



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 21a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (41. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (44. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (61. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa seme-alabatasunari dagokionez aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (63. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerabidea egin dezan 2030 Agendako 17.2 helburuan ezarritakoaren betetzeari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (69. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da, Haur Hezkuntzak duen hezkuntza-izaera ukalezina ikusita, aipatu zikloa departamentuak berak kudeatzearen alde egin dezan, eta, helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza arloko eragileekin batera plangintza bat diseina dezan, fasez fase gauza daitekeena. Osoko Bilkurak onetsia (70. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iruñeko espetxera ekar ditzan zigorra beste espetxe batean betetzen ari diren preso nafar guztiak edo errotzea Nafarroan duten pertsona guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (71. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa. Osoko Bilkurak onetsia (71. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza-proiektuaren diseinua hobetzeko proposamenak egin ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (72. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da hizkuntza eredu gisa ezar ditzan, berme juridiko eta hezkuntza-berme guztiekin, atzerriko hizkuntzetako ikasketa-programak –bereziki, ingelesezkoa (PAI)–. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (72. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea

AURKIBIDEA

ATARIKOA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Foru legearen xedea eta helburuak.

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.

3. artikulua. Betebeharra duten beste subjektu batzuk.

4. artikulua. Definizioak.

5. artikulua. Printzipioak.

6. artikulua. Gobernu Irekiaren neurriak.

II. TITULUA. GARDENTASUNA

I. KAPITULUA. Gardentasuna jarduera publikoan

7. artikulua. Informazioaren edo ezagutzaren kudeaketaren sistema integrala.

8. artikulua. Informazio publikoaren ardura duten unitateak.

9. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa.

10. artikulua. Gobernu Irekiaren Espazio Digitala.

11. artikulua. Gardentasun betebeharrak.

12. artikulua. Zerbitzu publikoak ematen dituztenen eta ahalmen administratiboak betetzen dituzten pertsona pribatuen gardentasun betebeharrak.

13. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

14. artikulua. Gardentasun betebeharren mugak.

15. artikulua. Foru legearen aplikazioaren norainokoari buruzko txostenak.

II. KAPITULUA. Informazio publikoaren berrehabilerak.

16. artikulua. Informazio publikoaren berrerabilera.

17. artikulua. Ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren emaitza den informazioa.

III. KAPITULUA. Publizitate aktiboa

18. artikulua. Argitaratu beharreko informazioa.

19. artikulua. Informazio instituzionala, antolaketa eta plangintzakoa.

20. artikulua. Goi kargudunei eta zuzendari-tzako langileei buruzko informazioa.

21. artikulua. Garrantzi juridikoa duen informazioa.

22. artikulua. Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta finantzarioa.

23. artikulua. Kontratazio publikoari buruzko informazioa.

24. artikulua. Zerbitzu emakidei buruzko informazioa.

25. artikulua. Lankidetzeta-hitzarmenei, programa-kontratuei, esleipenei eta baliabide berekien-tzako mandatuei buruzko informazioa.

26. artikulua. Diru-laguntzen arloko jarduerari buruzko informazioa.

27. artikulua. Ondareari buruzko informazioa eta informazio estatistikoa.

28. artikulua. Lurraldearen antolamenduaren, hirigintzaren, ingurumenaren eta etxebizitzaren arloko informazioa.

29. artikulua. Publizitatearen xede diren beste eduki batzuk.

III. TITULUA. INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

I. KAPITULUA. Arau orokorrak

30. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

31. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen mugak.

32. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

33. artikulua. Informazio partziala eskuratzea.

II. KAPITULUA. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura.

34. artikulua. Informazio publikoa eskatzea.

35. artikulua. Eskaera zehaztugabeak.

36. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerretarako prozedura ebazteko eskumena duten organoak.

37. artikulua. Eskaerak ez onartzeko arrazoiak.

38. artikulua. Eskaerak deribatzea.

39. artikulua. Hirugarrenek esku hartzea.

40. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.

41. artikulua. Eskaera ebazteko epeak eta isil-tasunaren esanahia.

42. artikulua. Ebazpena.

43. artikulua. Informazioaren forma edo forma-tua.

44. artikulua. Informazioa in situ eskuratzearen doakotasuna, eta tasa eta prezioak.

III. KAPITULUA. Aurkaratze araubidea.

45. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari erreklamazioa aurkeztea.

IV. TITULUA. INTERES TALDEAK

46. artikulua. Interes taldeak.

47. artikulua. Interes taldeen erregistro publi-koa.

48. artikulua. Erregistroan sartu gabeko per-sonak eta jarduerak.

49. artikulua. Erregistroaren gutxieneko edukia.

50. artikulua. Erregistroan inskribatzeak dakar-tzan betebeharrak.

51. artikulua. Jokabide Kodearen gutxieneko edukia.

52. artikulua. Ez-betetzeetan aplikatu beharre-ko neurriak.

53. artikulua. Titulu honen arau-garapena.

X. TITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

54. artikulua. Arau orokorrak

55. artikulua. Subjektu erantzuleak.

56. artikulua. Diziplina arloko arau-haustekak.

57. artikulua. Beste pertsona eta entitate ba-tzuen arau-haustekak.

58. artikulua. Diziplina zehapenak.

59. artikulua. Beste entitate eta pertsona ba-tzuei aplikatu beharreko zehapenak.

60. artikulua. Prozedura.

61. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

62. artikulua. Zehapenen publizitatea.

VI. TITULUA. NAFARROAKO GARDENTASU-NAREN KONTSEILUA

63. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

64. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak.

65. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren osaera.

66. artikulua. Kontseiluko lehendakariaren eginkizunak.

67. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

68. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarekiko lankidetzak.

69. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren egintzak eta ebazpenak betetzea.

Lehen xedapen gehigarria. Foru lege hau Nafarroako Parlamentuari aplikatzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Gardentasuna eta Gobernu Irekia ezartzeko Departamentuarterko Batzordea.

Hirugarren xedapen gehigarria. Publizitate aktiboaren betebeharrak betetzeko epea.

Laugarren xedapen gehigarria. Interes taldeen erregistro publikoa sortzea.

Bosgarren xedapen gehigarria. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileentzako sentsibilizazio eta prestakuntza neurriak.

Seigarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren ebaluazio orokorra.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziak.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Genero-berdintasuna hizkeran.

Xedapen iragankor bakarra. Gardentasun betebeharren aplikazioa lehenagoko harreman juridikoetan.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideen agintaldia.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege hau garatzeko gaikuntza.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

ATARIKOA

I

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen asmoa izan zen arau bakar batean biltzea Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako Gobernua bera zeharo garden izan zitezten ezinbestekoak ziren funtsezko alderdiak eta printzipioak; Administrazio publiko berri baterako oinarriak ezartzeko ahalegina izan zen, herritarrekin erlazio modu berriak baliatzeko, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari erlazio juridiko berri horren gune nagusiaren izaera emanaz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea –oinarrizko legea hein handi batean– onesteak eta indarra hartzeak erabateko aldaketa ekarri zuen estatuan lehenagotik zegoen erregulazioarekin alderatuta (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea); izan ere, herritarrek informazio publikoa eskuratzearen alde egiten du uneoro legeak, eta haren ukatzea arrazoituta egin behar dela ezartzen du, legean berariaz aurreikusitako kausaren bat tartean dagoelarik.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak hiru arlotan eragiten du, hitzaurrean jasotzen denez: lehenik, jarduera publikoaren gardentasuna handitu eta indartzen du –administrazio eta erakunde orok bete beharreko publizitate aktiboko betebeharren bidez antolatzen da gardentasuna–; bigarrenik, informazioa eskuratzeko eskubidea onartu eta bermatzen du –eremu subjektibo eta objektibo zabaleko eskubide gisa arautua dago–; eta, hirugarrenik, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onerako arauak eta horiek ez bete zitezaren ondorio juridikoak ezartzen ditu –jarduera publikoak burutzen dituen ororentzat erantzukizun-eskakizun bihurtzen da–. Lege honekin aurrera egiten da publizitate aktiboko betebeharrak taxutzeko prozesuan, eta sakondu egiten da, horietara biltzeko administrazio publiko guztiak, botere legegile eta judizialeko organoak –zuzenbide administratiboaren mendeko jarduerari dagokienez– eta konstituzioaren eta estatutuen arabera bestelako organoak. Halaber, lege hau beste zenbait erakunderi ere aplikatuko zaie, garrantzi publiko berezia izateagatik edo funts publikoak jasotzeagatik beren jardueraren gardentasuna indartzera behartuta daudenean.

19/2013 Legeak publizitate aktiboko betebeharrak zabaldu eta gogortzen ditu hainbat arlotan,

bai eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen berme araubidea ere.

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, berriz, administrazioen eta administratuen arteko “ad extra” harremanen gaineko erregulazio berria ezartzen du, eta haren helburu nagusia Administrazio Elektronikoa ezartzea da, administrazio publiko guztientzat derrigorrezkoa baita, eta interesdunen bermeak sendotzea, agiriak eta jarduketak artxibo elektronikoko batean jasotzeak laguntzen duelako gardentasun betebeharrak betetzen, interesdunei unean uneko informazio eguneratua modu azkarrean helaraziz.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen berritasunik handienetako bat da identifikazioa eta sinadura elektronikoa bereiztea eta bata eta bestea frogatzeko moduak sinplifikatzea, halako moldez non, oro har, lehena bakarrik izango baita beharrezko, eta bigarrena, berriz, interesdunaren borondatea eta adostasuna

frogatu behar direnean eskatuko baita. Horri esker, errazagoa da trabak kentzea informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzeko. Artxiboari dagokienez, berritasun gisa sartzeko da administrazio publiko bakoitza behartuta dagoela artxibo elektronikoko bakar batean izatera amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu guztiak, eta behartuta dagoela, orobat, espediente horiek dokumentuaren autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko dituen formatu batean kontserbatzera; artxibo elektronikoko hori oso tresna baliagarria izanen da herritarren informazio publikoaren eskaerei erantzuteko.

Horrekin batera, arauak egiteko prozeduraren arloan, nabarmentzekoa da araua egin aurretik herritarrei eta enpresei galdetu behar zaiela zer iritzi duten ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoez, arau hori onestearen premiaz eta egokitasunaz, arauaren helburuez eta izan litezkeen araugintzazko nahiz araugintzaz bestelako beste irtenbideez.

Bestalde, segurtasun juridiko handiagoa xedetzat harturik, ex ante arau-plangintza hobetzearen alde egin da. Horretarako, administrazio guztiek urteko araugintza-plan baten dibulgazioa egiten dute, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorri asmo diren lege- edo erregelamendutako proposamen guztiak. Aldi berean, indartu egin da ex post ebaluazioa, zeren eta, araudia erregulazio onaren printzipioetara egokitzen ote den etengabe berrikusteko beharrezko batera, beste betebeharrak ezartzen baita, indarrean diren arauen aplikazioa aldi behin ebaluatzeko

alegia, helburuak bete ote diren ikusteko eta arauak ekarri dituzten kostuak eta kargak justifikatuta eta egoki balioetsita dauden jakiteko.

Testuinguru horretan, foru lege honek ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen erregulazio partziala gainditzeko, gardentasun eskakizuna Nafarroako Gobernura, Foru Komunitateko Administrazioa eta haren menpeko organoetara mugatzen baitzuen, eta aplikazio esparrua hedatzen du Foru Komunitateko gainerako botere eta erakunde publikoetara, Toki Administrazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikora eta beste pertsona eta entitate batzuetara. Era berean, publizitate aktiboen norainokoa handitzen du, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea uneoro bermatzen duten tresnak ezartzen, eta eskubide horri eta hartaz baliatzeko prozedurari Europako Kontseiluaren agiri publikoak eskuratzeko bideari buruzko Hitzarmenaren arabera edukia ematen die. Halatan, gardentasun printzipioaren zeharkakotasuna sendotzen da, eta Administrazioaren antolaketa eta jardun osora zabaltzen da; bereziki, jarduketaren arduradunetara. Foru lege honetan islatzen da, finean, gardentasun printzipioak eskaera hau dakarrela berekin: botere publikoek herritarrekin jokatzeko eta haiei erantzuteko modua alda dezatela, eta arduradun politikoen eta langile publikoen barneratu dezatela gardentasun printzipioa, haien jarduna etengabe gidatu behar duen balioztat hartuta.

II

Foru lege honen oinarrian printzipio bat dago; alegia, informazioaren eta datu publikoen jabeak herritarrek direla, eta Administrazioaren betebeharrak dela horiek ematea, salbu eta Datu pertsonalak babesteari buruzko Legeak babesten dituenak eta administrazio prozeduraren fase erreserbatuetan daudenak.

Foru lege honek arau-esparru bat eratzen du, administrazioarentzat eta haien arduradunentzat inspirazio iturri izan behar duena herritarrekiko harremanetan. Parte-hartze demokratikoari buruzko Foru Lege berriarekin batera, beste arau hauek ere esparru hori osatzen dute: Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legea, Gobernu Onerako Kode bat ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legea gaindituko duen Kode Etikoa berri bat, eta Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea.

III

Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen eskusiboa du gai hauetan: Foru Erakundearen erregulazioan, 49.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat; Nafarroaren zuzenbide substantiboaren espezialitateen edo erkidegoaren antolaketa berekietan ondoriozko prozedura administratiboko arautan; eta Foru Diputazioaren araubide juridikoaren, bere Administrazioaren eta horren menpeko erakunde publikoen gainean. Horrenbestez, bermatuta dago administrazio publikoen aurrean administrazioak berdintasunez tratatuko direla, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1 artikuluen c) eta e) letrekin bat. Nafarroari dagozkio, halaber, 46. artikulua Toki Administrazioaren gaietan ematen ditzkion eskumenak.

IV

Foru lege honek honako egitura du: batetik, sei titulu, eta bestetik, amaierako zatia, zortzi xedapen gehigarri, xedapen iragankor batek, xedapen indargabetzaile batek eta lau azken xedapenek osatua.

Xedapen orokorrei buruzko I. tituluan legearen funtsezko gai zeharkakoak jasota daude, hala nola, legearen xedea eta helburuak, aplikazioaren esparru subjektiboa, eta legearen interpretazioa eta aplikazioa gidatu behar dituzten definizioak eta printzipioak. Legearen xedek hauek dira: jardura publikoan eta gobernu ekintzan gardentasuna arautu eta bultzatzea; informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egiaz baliatzeko aukera bermatzea, eta, horrekin batera, sustatu eta bermatzea herritarrek, ezagutzatik, arlo publikoan erabakiak hartzen eta kudeatzen parte har eta lagundu dezaten, horrela herritarrekiko elkarrekintza sortuko baita, demokrazia eraginkortasunez areagotuko duena; interes taldeak arautzea; eta gobernu ona ziurtatuko duen arau multzo bat ezartzea.

Aplikazio esparruari dagokionez, legearen asmoa da informazio publikoaren gordailu izan daitezkeen entitate guztietara zabaltzea; horien artean, toki entitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta, Zuzenbide Administrazioaren menpe dauden jardueri dagokienez, Nafarroako Arartekoa, Nafarroako Kontseilua eta Kontuen Ganbera. Horiekin batera gardentasun betebeharrak duten beste subjektu batzuk daude, legearen aplikazioa zabaltzen baita funts publikoekin finantzatzen diren entitate pribatuetara eta funts publikoekin finantzatzen diren zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzen dutenetara, herritarrek mantentzen dituzten funts publikoekin finantzatutako jarduketak horiek sortutako informazio publikoa

ezagutu eta eskuratzeko eskubidea. Era berean, interes taldeak ere legearen betebeharren menpeko subjektuak izanen dira.

Legearen arabera, gardentasuna balio bat da, hartarako betebeharra duten subjektuen jarduera osoari eta antolaketari eragin behar diena; herritarrek dira informazio publikoaren jabe eskubidedunak, eta, beraz, aipatutako subjektuak beharturik daude beren informazio publikoa herritarren eskura jartzera, modu proaktiboan edo herritarrek eskaera egin ondoren, bai eta ezagutzera ematera ere hartutako erabakiak eta haien prozesua, eta haien eginkizunak betetzean betetako ekintzak eta haien ebaluazioa. Halaber, gardentasuna oinarria eta erreferentzia esparrua da, beharrezkoa Nafarroako Administrazio Publikoek gobernu irekiko neurriak susta ditzaten, horrela herritarrek benetako parte-hartzea izan dezaten interes orokorreko gaien kudeaketan. Azken finean, gardentasuna ezinbesteko balioztat hartzen du kontuak emateko, horrek ahalbidetuko baitie herritarrei, ezagutzatik, arlo publikoaren kudeaketaren gaineko kontrola egitea, eta erabaki publikoen diseinuan, prestaketan, onespenean, gauzatzean eta ebaluazioan parte-hartzea, erantzukizuna konpartituz; horrez gain, ustelkeriari aurre egiteko tresna eraginkortzat ere hartzen du.

Gardentasunari buruzko II. tituluaren hiru kapitulu daude. I. kapituluaren gai nagusia jarduera publikoaren gardentasuna da. Hartarako, informazio sistema integral bat ezartzea sustatzen du, eta aurreikusten informazio publikoaren arduraren unitate batzuk izendatzea, ezinbestekoak baitira informazio betebeharra betetzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, informazio publikoa eskuratzeko eskaeren erregistroa sortzen da, eta betebeharra ezartzen zaie kasuko departamentu edo entitatean informazio publikoaz arduratzen diren unitateak atxikiak dituzten organoei, urtero txosten bat egitekoa legeak bakoitzaren esparruan izan duen aplikazio mailari buruz. Gobernu Irekiaren Ataria bitarteko bat da, beharrezkoa herritarrei entzuteko, informazioa helarazteko eta haien parte-hartzea eta inplikazioa bideratzeko. Gobernu Irekiaren Atariak eta etorkizunean irekiko direnek Web Erabilerraztasunerako Ekimenaren gomendioak bete beharko dituzte, desgaitasuna dutenei erabiltzeko aukera eta laguntza emateko.

I. kapituluaren gardentasun betebeharrak aurreikusten dira, bai Administrazio Publikoarenak bai zerbitzu publikoaren emaitzenak eta ahal administratiboak betetzen dituzten pertsona pribatuak; bestetik, herritarrok Administrazio Publikoarenak

ko harremanetan dituen eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu, eta gardentasun betebeharren mugak ere ezartzen, betiere modu murriztailean interpretatu beharko direnak.

II. kapituluaren sektore publikoak kudeatzen duen informazioa herritarren, erakunde akademikoaren, enpresen eta beste eragile batzuen esku uzteari buruzkoa da, informazioaren berrerabilera eta balio erantsia sortzea bultzatzeko xedeaz.

III. kapituluaren publiko egin behar den gutxiengo informazioaren berri ematen da, modu egituratuan eta horretarako betebeharra duten subjektuen izaera kontuan hartuta. Gai hauei buruzko informazioa da: Administrazioaren antolaketaren egitura; Enplegu Publikoaren Eskaintza; aldi baterako langileen prestakuntza, igoera eta hautapena; instalazio edo establezimendu publiko batean jarduera, zerbitzu edo obra iraunkor bat betetzen duten kontratuen adjudikazio-hartzaileen langileek betetzen dituzten postuen zerrenda; zerbitzuen katalogoa; osasun, gizarte zerbitzu, etxebizitza eta hezkuntza arloetako zerbitzu publikoak jasotzeko itxarote-zerrendak; ikastokien deialdiak eta adjudikazioa ikastetxe publiko eta itunduetan; goi kargudunen eta zuzendaritzako langileen datu biografiko profesionalak; agenda instituzionala; urtean jasotzen diren ordainsariak, mota guztietakoak; oparien, bidaia gastuen eta joan-etorrietako gastuen erregistroa; gobernu programa ezartzen duen plana edo akordioa; urteko araugintza plana; gobernuaren erabakiak; arau-xedapenak egin aurreko kontsulta publikoak; kontseilu aholku-emaitzen irizpenak; txostenak; informazio ekonomikoa, aurrekontuena, finantzarioa, zorpetzeari buruzkoa; kontratuen aldaketak, azpikontratazioak, esleipenak, ondasunak; eta lurraldearen antolamendu, hirigintza, ingurumen eta etxebizitza arloetako informazioa.

III. tituluaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen da. I. kapituluaren, eskubide horretaz baliatzeko arau orokorrak ezartzen dira, haren mugak, betiere modu murriztailean ulertu behar direnak, datu pertsonalen babesa eta datuen eskuratzeko partzialerako arrazoiak. II. kapituluaren, informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzeko bete beharreko prozedura definitzen da, bai eta informazio eskaerak ebazteko eskumena ere. Prozedura horrek errazten du eskubideaz baliatzea edozein bidetatik, telematikoa nahiz presentziala izan, eta behar den laguntza ematen du eskubideaz baliatzeko, zenbait kolektiboren behar berariazkoak kontuan hartuta. III. kapituluaren, informazio publikoa eskuratzeari buruzko ebazpenen kontrako erreklamazioen araubide juri-

dikoa arautzen da; erreklamazio horiek Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak ebazten ditu.

IV. tituluan interes taldeak arautzen dira, hau da, edozein estatutu juridiko izanik ere, jarduerak Nafarroan betetzen dituzten erakunde edo pertsonak, profesionalki, jarduera osoan edo zati batean, honetan aritzen direnak: araugintzako politikak edo arau-xedapenak egiteko prozesuetan eragitea, zuzenean nahiz zeharka, edo horien aplikazioan, edo erabakiak hartzean, norbere interesak, hirugarrenenak edo erakundeenak edo interes orokorrak ere defendatuz. Era berean, interes taldeak dira plataformak, sareak edo jarduera kolektiboko beste modu batzuk, nortasun juridikorik izan gabe ere, eragin-iturri antolatua direnean eta jarduera horiek betetzen dituztenean. Legeak interes taldeen erregistro publikoa sortzen du, eta jokabiderako kode bat ezartzen; hori ez betetzea V. tituluan araututako zehapen araubidean tipifikaturik dago.

V. tituluan zehapen araubidea ezartzen da, arau-hausteak eta zehapenak tipifikatzen dira, eta zehatzeko prozedura eta ahalmena ere ezartzen.

VI. tituluan, Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua arautzen da, organo autonomoa eta erabat independentea dena, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari atxikia, Nafarroako Foru Komunitatean gardentasuna sustatzeko helburuarekin. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari dagokio publizitate aktiboaren arloko betebeharrak betetzen direla zaindu eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzea. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak eta osaketa ezartzen dira, baita egintzak eta erabakiak eraginkorrak direla bermatzeko dituen eskudantziak ere.

Foru legeak, azkenik, zortzi xedapen gehigarri ditu. Lehenak erreferentzia egiten dio gardentasun-printzipioak Nafarroako Parlamentuari aplikatzeari, haren autonomia dela-eta. Gainontzekoak gai hauei buruzkoak dira: Gardentasunerako Departamentuarterko Batzordea sortzea, publizitate aktiboaren betebeharrak betetzeko epea, interes taldeen erregistro publikoa sortzea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako sentsibilizazio eta prestakuntza neurriak, gardentasunaren ebaluazio orokorra, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziak eta genero-berdintasuna hizkeran. Legeak xedapen iragankor bat du, gardentasunaren betebeharrak lege honen aurreko harreman juridikoetan duen aplikazioari buruzkoa, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen, gai hauei buruzkoak: Nafarroako Gardenta-

sunaren Kontseiluko kideen agintaldia, foru lege hau garatzeko gaikuntza eta haren indarraldia.

I. TITULUA Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Foru legearen xedea eta helburuak.

1. Honakoak dira foru lege honen xedeak:

a) Jarduera publikoan eta gobernu ekintzan gardentasuna arautu eta bultzatzea, eta, horrekin batera, sustatu eta bermatzea herritarrek, ezagutzatik, arlo publikoan erabakiak hartzen eta kudeatzen parte hartu eta lagundu dezatela, horrela herritarrekiko elkarrekintza sortuko baita, demokrazia benetan sakonduko duena.

b) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egiaz baliatzen dela bermatzea.

c) Interes taldeak arautzea, politikak eta arauak egiteko prozesuetan edo erabakiak hartzean eragin dezaketenak.

d) Arau-multzo bat ezartzea Nafarroako Gobernuaren, haren kideen eta administrazio publikoetako goi kargudunen gobernu ona izatea bermatzeko.

2. Hauek dira foru lege honen helburuak:

a) Kudeaketa publikoa gardena izatea, betebeharra duten subjektuek sortzen duten informazioaren zabalkundearen bidez.

b) Herritarren aurrean egin beharreko kontu-ematea erraztea, halako moduz non betebeharra duten subjektuen garapena ebaluatzeko aukera izanen baitute.

c) Behar diren baliabide guztiak jartzea, pertsona guztiek informazio publikoa prozedura erraz eta argien bidez eskuratzeko aukera izan dezaten.

d) Informazio publikoaren antolaketa, sailkapena eta erabilera hobetzea.

e) Erraztasunak ematea eta sustatzea herritarrek afera publikoetan parte hartu eta lagun dezaten, ezagutzatik betiere.

f) Gobernuaren jarduna printzipio etikoekin bat eta zerbitzu publikoa bermatuz bete dadin ziurtatzea.

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.

1. Lege honetako xedapenak honakoei aplikatzekoak dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta harekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoak.

b) Sozietate publikoak, fundazio publikoak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lotutako zuzenbide publikoko entitateak.

c) Nafarroako toki entitateak eta haien menpeko entitate instrumentalak.

d) Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta haren menpeko ente instrumentalak.

e) Nortasun juridiko berekia duten partzuergoak, Nafarroako administrazio publiko bati atxikitakoak.

f) Merkataritza sozietateak, baldin eta artikulua honetan aurreikusitako entitateek haien kapital sozialean duten partaidetza, zuzeneko edo zeharkakoa, ehuneko berrogeita hamar baino gehiagokoa bada, edo entitate horiek, jabetzagatik, partaidetza finantzarioagatik edo aplikatzeak zaizkien arauengatik, sozietate horietan nagusitasunezko eragina izan badezakete zuzenean edo zeharka.

g) Fundazioak, baldin eta eratzten badira artikulua honetan aurreikusitako entitate batek edo zenbaitek egindako zuzeneko nahiz zeharkako ekarpen gehiengodunarekin, edo haien fundazio-ondarea, modu iraunkorrean, entitate horiek ekarritako edo lagatako ondasunez edo eskubideez eratuta badago ehuneko berrogeita hamar baino gehiagoko portzentajea.

h) Nortasun juridiko berekia duten gainerako enteak, erakundeak edo entitateak, aurrekoen bestelakoak direnak, berariaz industria- edo merkataritza-izaerarik ez duten interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak direnean eta, betiere, artikulua honetan aurreikusitako subjektu batek edo zenbaitek haien jarduna gehiengoz finantzatzen badu, haien kudeaketa kontrolatzen badu edo haien administrazio- edo zuzendaritza-organoko kideen erdiak baino gehiago hautatzen baditu.

i) Nafarroako administrazio publikoek eta/edo haiekin lotutako edo haien menpeko ente instrumentalek eta atal honetan aurreikusitako gainerako erakunde eta entitateek eratutako edo osatutako elkarteak, lankidetzak-organokoak barne, aplikatzeak zaion araudian aurreikusitako moduan.

2. Administrazio zuzenbidearen aplikazio-esparrukoak diren zereginetan jardutean, langileriaren eta kontratazioaren alorretan aurrera eramaten dituzten jardueri dagokienez, aplikatzeak izanen zaie Kontuen Ganberari, Arartekoari eta Nafarroako Kontseiluari, kontra egiten ez zaien heinean erakunde horiek Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren bitartez eta haietako

bakoitzaren araudiaren bitartez esleituak dituzten botereei, funtzioei eta autonomiari.

3. Era berean, zuzenbide administratiboaren menpeko zereginetan jardutean, zuzenbide publikoko entitateei aplikatuko zaie, edo bestelako entitate batzuei ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren arabera Foru Komunitateak eskumena duenean haien gainean: lanbide elkargoak, Merkataritza Ganbera, jatorri-deiturak, kirol federazioak eta zuzenbide publikoko korporazioak.

4. Lege honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, Nafarroako administrazio publikotzat jotzen dira artikulua honen 1. zenbakiko a) letratik d) letrara bitartekoetan jasotako erakundeak eta entitateak.

3. artikulua. Betebeharra duten beste subjektu batzuk.

Halaber, foru lege hau honako hauei ere aplikatuko zaie, gardentasun arauari dagokienez:

a) Nafarroako Foru Komunitatean jarduten duten alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta enpresa-erakundeak.

b) Alderdien federazioak, hautesle taldeak, eta alderdi politikoekin, alderdien federazioekin, hautesle taldeekin eta erakunde sindikalekin eta enpresa erakundeekin lotura duten elkarte eta fundazioak, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako betebeharrak ekonomikoak sortzen dituzten kontratuak egin, hitzarmenak izenpetu edo laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenean.

c) Urtebetez 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuak, edo jasotako laguntzek edo diru-laguntzek entitate horien urteko diru-sarreraren gutxienez %20 egiten badute gutxienez, baldin eta gutxienez ere 5.000 euroko kopurura iristen badira.

d) Zentro itunduak, bereziki hezkuntzaren, osasunaren, kirolaren eta gizarte zerbitzuen arlokoak. Ituna eraentzen duten arauak ezarriko dute zein den argitaratu beharreko informazioa, eta kasuan kasuko pleguetan edo kontratu-agiri baliokideetan jasoko da.

e) 2. artikuluan aurreikusitakoez beste pertsona fisiko eta juridiko guztiak, zerbitzu publikoak ematen edo administrazio-ahalak egikaritzen badi-tuzte.

f) Interes taldeak, beren jardura Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen badute eta Erregis-

troan foru lege honek aurreikusitako moduan inskribaturik badaude.

4. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

a) **Gobernu Irekia:** funtzionatzeko modu bat da, herritarrekin etengabeko elkarrizketa abiarazteko gai dena, haiek esaten eta eskatzen dutena entzute aldera; bere erabakiak herritarren beharretan eta hobespenetan zentratuz hartzen dituena; herritarren parte-hartzea eta elkarlana errazten dituena bere politikak zehazteko, zerbitzu publikoak sortzeko eta eginkizunak betetzeko; informazioa ematen duena eta erabakitakoaren eta egindakoaren berri gardentasunez ematen duena; kalitaterako eta etengabeko hobekuntzarako irizpideen menpe jartzen dena; eta prest dagoena egindakoengatik kontuak emateko eta erantzukizuna bere gain hartzeko haren zerbitzuak jasotzen dituzten herritarren aurrean.

b) **Gardentasuna:** Gobernu Irekiaren sistemaren funtsezko balioa, hartarako betebeharra duten subjektuen jardura eta antolaketa osoari eragiten diena; herritarrak dira informazio publikoaren jabe zilegiak, eta, beraz, aipatutako subjektuak beharrik daude daukaten informazio publikoa herritarren eskura jartzera, dela modu proaktiboan, dela herritarrek eskaera egin ondoren, bai eta ezagutzera ematera ere beren eskumenak erabiliz hartutako erabakiak eta haien prozesua, eta beren eginkizunak betetzean egindako ekintzak eta horien ebaluazioa.

c) **Informazio publikoa:** foru lege honek aipatutako administrazio publikoek sortzen duten edo haien eskuetan dagoen informazioa, edozein izanik ere informazio horren euskarria eta adierazpidea.

Halaber, informazio publikotzat hartuko da zerbitzu publikoak ematen dituzten edo ahal administratiboak edo eginkizun publikoak betetzen dituzten beste entitate edo subjektu batzuek egindakotzat edo haien jabetzakotzat jotzen dena, baldin eta zeregin publiko batean jardutean sortu edo lortu bada.

d) **Publizitate aktiboa:** Jardura publikoaren eta gobernu ekintzaren gardentasuna bermatzeko garrantzizkoa den informazio publikoa modu iraunkorrean, egiazkoan eta objektiboan zabalteko betebeharra.

e) **Informazio publikoa eskuratzea:** Foru lege honen aplikazio esparruan aurreikusitako entitateen esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko aukera, haren egiazkotasuna segurua izanik, eta

Estatuko oinarritzko araudian eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzekin soilik.

f) **Datuak irekitzea:** Datuak euskarri digitalean, estandarizatuan eta irekian eskura jartzea, haiek ulertu eta berrerabiltzeko aukera ematen duen egitura argi bati jarraikiz, helburu hauekin: kudeaketa publikoaren gardentasuna sustatzea, haren azterketa eta ebaluazioa egiteko; administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzea; balioa eta aberastasuna sortzea datu horietatik eratorritako produktuen bidez.

g) **Berrerabiltzea:** Administrazioen eta sektore publikoko erakundeen esku dauden datuak, informazioa eta agiriak erabiltzea pertsona fisiko nahiz juridikoek, merkataritzako helburuetarako edo bestelakoetarako, betiere erabilera hori ez bada Administrazioaren jardura publiko bat, eta ez badago legez ezarritako mugen menpe.

h) **Herritarren parte-hartze eta elkarlan informaturia:** herritarren esku-hartzea eta inplikazioa, banaka nahiz taldeka, ezagutzatik abiatuz, Administrazioen politiketan eta haiei dagozkien eginkizunetan, herritarren eta Administrazio Publikoen arteko entzute aktiboa eta elkarrizketa ahalbidetu dituzten prozesuen eta mekanismoen bitartez.

i) **Interes-taldeak:** edozein estatutu juridiko izanik ere, jarduerak Nafarroan betetzen dituzten erakunde eta pertsonak, profesionalki, jardura osoan edo zati batean, honetan aritzen direnak: politikak edo arau-xedapenak egiteko prozesuetan eragitea, zuzenean nahiz zeharka, edo horien aplikazioan, edo erabakiak hartzean, norbere interesak, hirugarrenenak edo erakundeenak edo interes orokorrak ere defendatuz.

j) **Espazio digitala:** Informazioa web euskarrian, telefono mugikorren euskarrian edo gaur egun dagoen edo etorkizunean egon daitekeen beste edozeinetan bistartzeko tokia, gehien erabiltzen dena lehenetsiz.

5. artikulua. Printzipioak.

Foru lege honen interpretazioa eta aplikazioa printzipio orokor hauen inguruan gauzatuko dira:

a) **Gardentasun publikoaren printzipioa:** Administrazioak gardentasuna txertatu behar du bere jardura osoan eta bere antolakuntzan, halako moldez non herritarrek ezagutzen ahalko dituzten haren erabakiak, nola hartzen diren, zein diren bete nahi diren helburuak edo zertarako hartzen diren, erabakitakoa gauzatzeko zer neurri ezarriko diren, halakorik badago, nola antolatzen diren zerbitzuak eta nor diren haren jarduketan erantzukizuna duten pertsonak.

b) Publizitate printzipioa: Foru lege honek ezarritako betebeharrak duten subjektuen esku, zainzapean edo kontrolpean dagoen informazio oro publikotzat hartzen da, lege honetan aurreikusitako salbuespenekin.

c) Eskuragarritasunaren printzipioa: Informazioa bitarteko edo formatu eskuragarri eta ulergarri bidez emanen da, eta Administrazio Publikoak begiratuko du bere bulegoetan, bere politiken diseinuan eta bere jarduketak guztietan eskuragarritasun unibertsala errealitatea izatea.

d) Prozeduraren printzipio antiformalista: Informazio publikoa eskuratzeko prozeduraren arauak eskubidez baliatzen lagunduko dute, eta ez dira hura eskuratzeko traba izanen.

e) Herritarrak helburu izatearen printzipioa: Administrazioaren jarduketak herritarren egiazko beharren asetzeari behar du izan helburu, interes orokorra bilatu behar du beti, eta zerbitzua emateko borondatea izan behar du ezaugarri.

f) Publizitate aktiboaren printzipioa: Administrazioak bere esku duen informazioa eta bere jarduketari buruzkoa eman eta zabaltu behar du etengabe, egiaz eta modu objektiboan.

g) Herritarren parte-hartze eta elkarlanaren printzipioa: Administrazio Publikoak, bere politiken diseinuan eta bere zerbitzuen kudeaketan, bermatu behar du herritarrek, bai banaka bai taldeka, politika publikoen planifikazioan, diseinuan, garapenean eta ebaluazioan parte hartu, lagundu eta inplikatzeak aukera izatea, bai eta gai publikoetan erabakiak hartzen ere, ezagutzatik abiatuta.

h) Erantzukizunaren eta kontuak ematearen printzipioa: Administrazio Publikoak berariaz hartu behar ditu bere gain herritarren aurrean dituen betebeharrak, baita bere erabaki eta jarduketan ondoriozko erantzukizunak ere, ebaluazioaren kultura sustatuz eta kontuak emateko ariketa ezarritik.

i) Jokabide-kodea errespetatzearen printzipioa: Administrazio Publikoak eta haietako gidariek uneoro errespetatuko dute haien zerbitzuak jasotzen dituzten herritarren aurrean hartutako jokabide etikoaren konpromisoa.

j) Neutraltasun teknologikoaren printzipioa: Kode irekiko softwarearen funtzionamenduaren, erabileraren eta sustapenaren alde egingen du, eta teknologiaren eta informatikaren arloan estandar irekiak eta neutralak erabiltzearen alde. Orobat, aplikazio edo garapen informatikoen kontratazio administratiboan, soluzio ireki, bateragarri eta berrerabilgarri horien alde egingen du.

k) Arrakala digitala deuseztatzeko printzipioa: Edozein pertsonak informazioa eskuratzeko aukera izan duela bermatzea, informazioa jasotzen duen bitartekoa edo euskarria foru lege honetan ezarritakoa izan ez dadin betetzeko muga edo eragozpena, segurtatuz, halaber, adinarekin, sexuarekin, ekonomiarekin, estatus sozialarekin, kokapen geografikoarekin, desgaitasunarekin edo hezkuntzarekin lotutako kontuak ez daitezela eragozpena izan informazioa eskuratzeko eskubidez baliatzeak.

6. artikulua. Gobernu Irekiaren neurriak.

1. Gardentasuna eta informazio publikoa sistemaren erreferentzia esparrua eta balioa dira, eta horietan oinarrituta, Nafarroako Administrazio Publikoek, eta haiekin lotutako eta haien menpeko erakunde publikoek eta entitate publikoek gobernu irekiko neurriak sustatuko dituzte, horrela herritarrek benetako parte-hartzea izan dezaten interes orokorreko gaien kudeaketan.

2. Foru lege batean ezarritako dira herritarrek interes orokorreko gaietan egiazki parte hartzeko bidea sustatuko duten printzipioak, balioak eta bideak.

II. TITULUA **Gardentasuna**

I. KAPITULUA **Gardentasuna jarduera publikoan**

7. artikulua. Informazioaren edo ezagutzaren kudeaketaren sistema integrala.

1. Betebeharrak duten subjektuek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte herritarrei informazio publikoaren ezagutza errazteko. Informazioa betebeharrak duten subjektuen egoitza elektroniketan eta espazio digitaletan egin behar da publiko, modu argi eta egituratuan eta formatu berrerabilgarrian.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazio publikoaren gardentasuna sustatuko du, informazioarako edo ezagutza kudeatzeko sistema integral bat ezarritik; horren diseinua dokumentu publikoaren kudeaketa sistemen lehentasunezko erabileran oinarritu behar da, egiazko datuak eta dokumentuak ematen dituzten aldetik, sektore publikoaren elkarreragingarritasunaren baitan.

3. Bigarren apartatuan aipatzen den sistema integralak aukera eman beharko die pertsonen informazio publikoa erraz eta dohainik eskuratzeko, haien ezagutza sustatzeko eta afera publikoetan haien parte-hartze eta elkarlan arduratsua

errazteko, herritarraren bizitokia, prestakuntza, baliabideak, egoera pertsonala edo egoera soziala edozein izanik ere.

4. Foru lege honetan jasotako informazio publikoaren arloko betebeharrak bermatzeko beharrezkoak diren datuen eta dokumentuen biltegi edo biltegi zentralizatu bat izan beharko du sistema horrek. Oraingo artxiboen sisteman integratuko eta antolatuko da biltegia, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearekin bat.

8. artikulua. Informazio publikoaren ardura duten unitateak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoak, herritarrek informazio publikoa izateko eskubidea benetako bihurtzeko, informazio publikoaren ardura duten unitate batzuk izendatuko ditu. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak behar den denboran eta moduan tramitatzearen ardura izanen dute, egungo artxibo sistemarekin koordinatuta, eta, bereziki, artxibo elektronikoa bakarrezkin.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionalaren esparruan, informazio publikoaren ardura izateko izendatzen diren unitateak zein departamenturi atxikita edo lotuta dauden, horko idazkaritza tekniko nagusiak koordinatuta arituko dira, edo haien sektore publikoko entitate instrumentaletako gobernu organoek edo organo exekutibo baliokideek koordinatuta; eginkizun hauek beteko dituzte unitate horiek:

a) Bere eskumeneko arloetan, titulu honen III. kapituluak eskatzen duen informazioa eskatu, lortu eta prestatzea, eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuz zabaltzea.

b) Gardentasun proaktiboko politikak sustatu eta ezartzea, eta haren eskuragarritasuna bermatzea.

c) Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak tramitatzea, eskaerak jasotzea, eta eskatutako informazioa eskuratzeko behar diren barne trami-teak egitea.

d) Partikularrei laguntzea informazioa eskuratzeko eskaerak prestatzen eta, kasua bada, orientabideak ematea betebeharrak duten subjektu eskudunei buruz, aplikatzeko den araudiarekin bat.

e) Informazioa eskuratzeko eskaeren kontrola eramatea.

f) Unitate arduradunari igortzea beharrezkoak diren datuak, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko informazioa bi hiletik behin

argitaratzeko, bai eta urteko memoria edo txostena prestatzeko ere.

g) Foru lege honetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren gainerako eginkizunak.

3. Informazio publikoaren ardura duten unitateek, eginkizunak betetzean, datu pertsonalen segurtasuna bermatuko dute, eta haiek aldatu, galdu, eskualdatu eta baimenik gabe eskuratzeari galaraziko.

9. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa.

1. Nafarroako Foru Administrazioaren esparruan informazio publikoa eskuratzeko eskaeren erregistroa sortzen da; bertan inskribatuko dira aurkezten diren eskaerak, eta datu hauek jasoko:

a) Eskaeraren aurkezpen-data.

b) Eskatzailearen izena.

c) Eskatutako informazioa.

d) Eskaera ebatzi edo baiesteko eskumena duen organoa.

e) Ebazpenaren zenbakia eta data. Ebazpena ematea aginduzkoa ez denean, bidalketaren data.

f) Eskaerari erantzuteko hartutako denbora eta, erantzuna epez kanpo ematen denean, atzerapenaren arrazoiak.

g) Eskaerari emandako erantzun mota eta, onartzen ez bada edo osorik edo zati batean ezesten bada, horretarako arrazoiak.

h) Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendurako erregelamenduan ezartzen diren gainerakoak.

2. Erregistroa gardentasun arloko eskumenak bere gain dituen departamentuko organoaren menpe egonen da.

3. Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua gardentasun arloko eskumena duen departamentuko titularrak onetsitako arauekin bat etorriko dira.

10. artikulua. Gobernu Irekiaren Espazio Digitala.

1. Nafarroako Gobernuak Interneten duen Espazio Digitalean, Gobernu Irekiaren Atari berriratzeko garatuko da, software libreko eta berriratzeko plataformak informatiko batean ezarria, eta bertan emanen da argitara Foru Komunitateko Administrazioari eta haren menpeko entitate eta erakundeei buruzko informazioa, atarian berean informazioa jarriz edo esteka elektronikoen bidez.

Gobernu Irekiaren Espazio Digitalak bilatzaile bat izanen du, informazioa eskuratzeko bide azkarra, erraza eta ulergarria izateko, eta eguneratzen diren datuei buruzko alerta-mekanismoak ere jarriko dira bertan.

2. Honako hauetarako gune gisa eratuko da atari hori:

a) Herritarrei aktiboki entzun dakiela eta herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko elkarrikeria izan dadila sustatzea, haien beharrak identifikatzeko eta jarduketara publikoa haien eskaerara bideratzeko.

b) Herritarrei informazioa denbora errealean eta tratatu gabe ematea, libreki eta dohain partekatuta ahal izan dadin.

c) Datuak herritarren eskura uztea formatu ireki eta berrerabilgarrietan, berrerabil daitezkeen onura publikorako eta, balioa eta aberastasuna sortzeko, informazio horren ondoriozko produktuak lortu nahi dituen edozein pertsonaren onurarako, datuen irekiera edo OpenData izenez ezagutzen diren proiektuetan.

d) Herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea eta inplikazioa bideratzea, Administrazio Publikoaren laguntzaile aritu daitezkeen, prozesuen irekiera edo OpenProcess izenez ezagutzen diren proiektuetan.

3. Gobernu Irekiaren Espazio Digitalak eta sortzen diren espazio digitalek Interneten publizitate aktiboa zabaltzeko plataforma elektronikoen izaera izanen dute, erraz identifikatzeko modukoak izanen dira eta kasuan kasuko administrazio publikoen edo entitateen egoitza elektronikotarako esteka jaso beharko dute. Horrekin batera, Web Erabilerraztasunerako Ekimenaren gomen-dioak bete beharko dituzte, desgaitasuna dutenei erabiltzeko aukera eta laguntza emateko, bai eta arrakala digitalaren printzipioa jarraitu ere.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Toki Administrazioa osatzen duten entitateek beste neurri osagarri eta lankidetzazko batzuk hartzen ahalko dituzte titulu honen III. kapituluaren jasotako gardentasun betebeharrak betetzeko”.

11. artikulua. Gardentasun betebeharrak.

1. Gardentasun betebeharra betetzeko eta foru lege honetan aurreikusitako moduan, 2. artikuluan aipatzen diren subjektuek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Subjektuaren jardueraren gardentasuna bermatzeko zabaldu beharreko informazioa eta, gutxienez, titulu honen III. kapituluaren jasotakoa,

prestatu, eguneratu, hiru hilean behin gutxienez, eta zabaltzea modu iraunkorrean, egiazkoan eta objektiboan, norberaren egoitza elektronikoen edo web orriaren bidez.

b) Apartatu honen a) letran aipatzen den informazio publikoaren inbentario bat egin eta hiruhilean behin zabaltzea, informazio hori non aurki daitezkeen adierazita.

c) Informazio publikoa kudeatzeko sistemak eta politikak garatzea, haren fidagarritasuna, etengabeko eguneratzea, integritatea eta benetakotasuna bermatzeko.

d) Informazio publikoa kudeatzeko neurriak hartzea, hura lokalizatzea eta zabaltzea erraza izan dadin, eta eskuragarritasuna, elkarreragingarritasuna, kalitatea, egiazkotasunaren kontrola eta argitaratutako informazioaren berrerabilera sustatzeko.

e) Informazioa modu argi, egituratu eta ulergarrian argitaratzea.

f) Informazio publikoa eskuratzeko eskubiderako baldintzak argitaratu eta zabaltzea, bai eta eskubideaz baliatzeko prozeduraren, epeen eta ebazteko eskumena duen organoaren berri ematea ere.

g) Titulu honek pertsonen aitortzen dizkien eskubideak zabaltzea, aholku ematea behar bezala erabiltzeko eta laguntzea informazioa bilatzen.

h) Titulu honetan ezarritakoarekin bat, eskatutako informazioa behar diren epeetan, eta aukeraturako moduan eta formatuan ematea.

Toki entitateen esparruan, eguneratzeko maiztasuna berariazko xedapenetan ezarriko da.

2. Informazio publikoa epe hauetan egonen da argitaratuta:

a) Izatezko egoerak deskribatzen dituen informazioa argitaratuta egonen da gutxienez ere egoera horiek irauten duten bitartean.

b) Arauei buruzko informazioa arauak indarra duten bitartean, gutxienez.

c) Kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzei buruzko informazioa argitaratuta egonen da haietatik heldu diren betebeharrak irauten duten bitartean eta, gutxienez ere, haiek amaitu eta beste hamar urtez.

d) Informazio ekonomikoa sortu zen unetik kontatzen hasi eta gutxienez ere hamar urtez egonen da argitaratuta.

e) Ingurumen eta hirigintza arloko informazioa, indarra duen bitartean, eta indarra galtzen duenetik beste hamar urtez, gutxienez.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jendaurrean jarri beharreko informazioa tramitazioan dagoen bitartean argitaratu eta egon beharko du jendaurrean; epe horretan alegazioak, iradokizunak eta oharrak modu elektronikoan aurkezten ahalko dira, posta elektronikoaren bidez edo jendaurreko testuari buruzko iruzkinak egiteko aukera ematen duten aplikazio informatikoen bidez. Informazio publikoaren jendaurreko trami-tea sare sozial ohikoaren bidez zabaldu beharko da.

4. Ulertzen da titulu honetan jasotzen diren gardentasun betebeharrak ez dutela galarazten beste xedapen berariazko batzuk aplikatzea, publizitate arloan araubide zabalago baterako aukera ematen dutenak.

5. Titulu honetan aurreikusitako informazio guztia formatu erabilerraz eta ulergarrietan egonen da, erabilerraztasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioekin bat.

12. artikulua. Zerbitzu publikoak ematen dituztenen eta ahalmen administratiboak betetzen dituzten pertsona pribatuen gardentasun betebeharrak.

1. 2. artikuluan sartutakoez beste pertsona fisikoek eta juridikoek, zerbitzu publikoak eman edo administrazio ahalmenak betetzen dituztenek, betebeharra izanen dute, titulu honen aurreikuspenen arabera, betetzen dituzten administrazio eginkizunekin eta kudeatzen dituzten zerbitzu publikoekin zuzenean lotutako jardueri buruzko informazioari dagokionez. Betebehar horiek betetzea zuzenean ez ezik, haiekin lotutako Administrazioaren bidez ere eskatzen ahalko da.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa betetzen dela bermatzeko, entitate pribatuek hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuen sistema publikoetan parte hartzeko itunetan eta beste bide batzuk erregulatzen dituzten arauetan zehaztuta jasoko da zein diren entitate horiek dituzten betebeharrak publizitate aktiboaren eta informazioa ematearen arloan, baita kontrol eta jarraipen mekanismoak eta horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak ere. Betebehar horiek jasota egonen dira deialdietan, agirietan, kasuan kasuko ebazpenetan eta horietatik eratorritako formalizazio agiri orotan.

3. Sektore publikoko kontratuen adjudikazio-hartzaileak beharturik egonen dira foru lege honen 2.1 artikuluan aurreikusitako entitateei, haiekin lotura dutenei ematera, entitate horiek titulu hone-

tan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar den informazioa, eskaera egin ondoren eta hamar eguneko epean; betebehar hori berariaz jaso beharko da kasuko kontratuan. Ondorio horietarako, administrazio klausula partikularren agiriek edo agiri baliokideak zehaztuko dute betebehar hori.

4. Aurreko apartatuan aurreikusitako betebehar hori bete beharko dute, halaber, diru-laguntzen onuradunek, diru-laguntzen araudian eta emateko ebazpenean aurreikusitako moduan. Ondorio horietarako, diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarrietan, emateko ebazpenetan eta diru-laguntzak ematea antolatzen duten hitzarmenetan jaso beharko da berariaz betebehar hori. Edozein kasutan, foru legearen 3. artikuluko c) letran jasotako entitateen kasuan, honako hauei buruzko informazioa jasoko du, publiko egiteko: gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaketa; karguen zerrenda eta haien dedikazio araubidea, lansari gordinak eta entitateak kargu bakoitzarengatik jasotzen dituen diru konpentsazioak, kontzeptuen arabera zehaztuta, eta urteko kontuak.

5. Nafarroako Administrazio publikoek isun hertsatzaileak ezartzea erabakitzen ahalko dute, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari oharra egin eta entzunaldia eman ondoren, eskaeran horretarako emandako epea hura bete gabe iragan ondoren. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen eginkizun publikoak betetzeko edo zerbitzuak emateko gaikuntza ematen duen kontratuaren, diru-laguntzaren edo tresna administratiboaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

13. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

1. Edozein herritarrek erabiltzen ahalko ditu eskubide hauek foru lege honetan aurreikusitako-arekin bat:

a) Foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko, herritarren eskura utzitako informazio publiko eskuratzea.

b) Administrazio Publikoen esku dagoen informazio publikoa lortzea, aldezturik eskaera eginda, hartarako interes zehatzik deklaratzera beharturik egon gabe, eta foru lege honetan aurreikusitako mugekin bakarrik.

c) Foru lege honek ematen dizkien eskubideen berri izatea, eta horiek egoki erabiltzeko aholkularitza jasotzea.

- d) Informazioa bilatzeko laguntza jasotzea.
- e) Eskatzen duen informazioa jasotzea, foru lege honek ezarritako gehieneko epeetan.
- f) Eskatutako informazio publikoa aukeratutako moduan edo formatuan jasotzea, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat.
- g) Jakitea zergatik ez zaion informazioa ematen, batere ez edo zati bat ematen ez zaionean, eta zergatik ez zaion ematen informazioa eskatutako moduan edo formatuan.
- h) Eskatutako informazioa lortzeko exiji daitezkeen tasen eta prezioen zerrenda ezagutzea, baita salbuesteko arrazoiak ezagutzea ere.
- i) Herritarren parte-hartzea izan dezaketen prozesuei buruzko informazioa jasotzea.
- j) Herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa behar den denborekin eskuratzea, planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan egiaz eta eraginkortasunez parte hartzeko xedeaz.
- k) Parte hartu duen prozeduraren behin betiko emaitza publiko egitea, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakiola, parte hartzeko prozesu publikoari buruzko informazioa barne.
- l) Eraginkortasunez eta egiaz parte hartzea, aplikatzekoa den legerian xedatutakoarekin bat.
- m) Informazio publikoa eskuratzearen arloan 45. artikuluan aipatzen diren erreklamazioak aurkeztea.
- n) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea babesteko asmoz herritarrek sustatzen dituzten prozeduren ondorioz hartzen diren erabakien berri eman dakiola.

2. Foru lege honetan xedatutakoarekin bat informazio publikoa eskuratzen duten pertsonen betebeharrak hauek izanen dituzte:

- a) Informazioa eskuratzeko erabilitako moduak eraginik ez izatea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasunean.
- b) Eskuratzeko eskubideaz baliatzea bi printzipio hauekin bat: fede ona eta eskubidearen abusuaren debekua.
- c) Informazio iturrietara zuzenean jotzeko eta informazioa gordea dagoen bulego publikora edo artxibora jotzeko baimena ematen duen ebazpenean adierazitako baldintzak betetzea.

d) Lortutako informazioa berrerabiliz gero, araudian ezarritako betebeharrak betetzea.

e) Kopia lortzeko eta informazioa jatorrizkoaz beste formatu batera eramateko ezartzen diren tasak ordaintzea.

14. artikulua. Gardentasun betebeharren mugak.

1. Gardentasun betebeharrari aplikatzen zaizkien mugak 31. artikuluan informazio publikoa eskuratzeko eskubideari ezartzen zaizkion berberak dira.

2. Gardentasun printzipioa lehenetsunez interpretatu eta aplikatu behar da kasu guztietan. Edozein salbuespen edo muga lege mailako arau batek ezarria izan beharko du, eta aplikazioan modu murriztailean interpretatu.

15. artikulua. Foru legearen aplikazioaren norainokoari buruzko txostenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, informazio publikoaren ardura duten unitateak atxikiak dituzten organoek txosten bat eman beharko dute urtero, bakoitzaren esparruan legeak izan duen aplikazio mailari buruzkoa, eta gardentasun arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak ezartzen duen edukiarekin.

II. KAPITULUA

Informazio publikoaren berrerabilera.

16. artikulua. Informazio publikoaren berrerabilera.

1. Bigarren artikuluan sartuta dauden administrazio publikoek, instituzio publikoek eta entitateek foru lege honetan aurreikusitako moduan zabalduko dute informazio publikoa, haren berrerabilera erraztu eta sustatzeko, herritarrek, erakunde akademikoek, enpresek eta bestelako eragileek libreki erabil dezaten produktu eta zerbitzu berrien bidez balioa sortzeko, betiere informazioaren erabilera jarduera administratibo publikoa ez bada eta ordenamendu juridikoan ezarritako mugak errespetatzen badira.

Informazio publikoa berrerabiltzeko zabalkundea bide elektronikoetatik eginen da, eta horretarako muga bakarrak informazio publikoaren berrerabilerari buruzko araudian ezarritakoak izanen dira.

2. Erregelamendu bidez arautuko dira berrerabilerari ezartzen ahal zaizkion baldintzak, eta horien artean, besteak beste, aurreikusten ahalko da informazio publikoaren edukia eta izaera ez aldatzea eta jatorria eta azken eguneraketaren data adieraztea.

3. Informazioa emateko bitartekoak erabilera libre eta doakoa ahalbidetzen duten lizentziak izanen dira, nazioan eta nazioartean onarpen zabala dutenak edo beste Administrazio publiko batzuekin adostu direnak.

4. Nafarroako Gobernuak argitaratzen edo eskura jartzen duen informazio guztia berrerabiltzen ahalko da aurrez baimenik izan beharrik gabe.

5. Argitaratutako informazioa berrerabiltzeko baldintzak, haren indarraldia eta eguneratzeko maiztasuna zehaztu beharko dira 2. artikuluan jasotako administrazio publikoen, erakunde publikoen eta entitateen egoitza elektronikoa, atarian edo web-orrian.

6. Datu irekien elkarreragingarritasuna errazteko, aplikatuko da administrazio elektronikoaren esparruan elkarreragingarritasun-eskema nazionala arautzen duen estatu-araudian xedatutakoa.

7. Datu-baseen diseinuan kontuan hartu beharko da lurraldeen arabera ezartzen ahal diren erregistro guztiak georeferentziatu edo geolokalizatu beharko direla. Horrez gain, datu-baseen erregistroen diseinuak aukera eman beharko du jakiteko noiz egin den azken aldaketa eta nork egin duen.

8. Honako helburu funtsezko hauek bilatuko ditu berrerabilerak:

a) 2. artikuluan jasotako administrazio publikoen, erakunde publikoen eta entitateen esku dauden erabilera libreko datu guztiak argitaratzea.

b) Herritarrei bidea ematea hobeki ezagut dezaten sektore publikoaren jarduera.

c) Datu horietan oinarritutako informazio produktu eta zerbitzuak sortzeko erraztasunak ematea.

d) Datuak erabiltzeko erraztasunak ematea, herritarrek, erakunde akademikoek, enpresek eta bestelako eragileek balio erantsiko informazio produktuak eta zerbitzuak eskain ditzaten.

e) Merkatuko lehia erraztea, horren faltsutzea mugatuz.

17. artikulua. Ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren emaitza den informazioa.

Aplikatzekoa den zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloko legeriaren esparruan, foru lege honen 2. artikuluan jasotako administrazio publikoek, erakunde publikoek eta entitateek sustatu egingen dute nagusiki funts publikoekin finantzatutako ikerketa proiektuetan lortutako datuak formatu berrerabilgarrian eta dohainik jartzea eskuragarri.

III. KAPITULUA Publizitate aktiboa

18. artikulua. Argitaratu beharreko informazioa.

1. Foru lege honen 2. eta 3. artikuluetan jasotako administrazio publikoek, erakunde publikoek, entitateek eta subjektuek argitara eman beharko dute, gutxienez, gai hauei buruzko informazioa, hurrengo artikuluetan adierazten den moduan:

a) Informazio instituzionala, antolaketa eta plangintzakoa.

b) Goi kargudunei eta zuzendaritzako langileei buruzko informazioa.

c) Garrantzi juridikoa duen informazioa.

d) Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta finantzarioa.

e) Kontratazio publikoari buruzko informazioa.

f) Zerbitzu emakidei buruzko informazioa.

g) Lankidetzaren hitzarmenei, kontratu-programei, esleipenei eta baliabide berekientzako mandatuei buruzko informazioa.

h) Diru-laguntzen arloko jardueri buruzko informazioa.

i) Ondare informazioa eta informazio estatistikoa.

j) Lurraldearen antolamenduaren, hirigintzaren, ingurumenaren eta etxebizitzaren arloko informazioa.

k) Publizitatearen xede diren beste eduki batzuk.

2. Ulertzen da titulu honetan jasotzen diren gardentasun betebeharrak ez dutela galarazten beste xedapen berariazko batzuk aplikatzea, publizitate arloan araubide zabalago bat ezartzen dutenak.

19. artikulua. Informazio instituzionala, antolaketa eta plangintzakoa.

1. Foru lege honen 2. eta 3. artikuluetan jasotako administrazio publikoek, erakunde publikoek, entitateek eta subjektuek informazioa argitaratuko dute bete behar dituzten eginkizunei buruz, aplikatzekoa zaien araudiari buruz eta beren antolaketa egiturari buruz, organigrama eguneratu bat barne.

2. Foru lege honen 2. artikuluan jasotako administrazio publikoek, erakunde publikoek eta entitateek informazio hau argitaratuko dute antolaketa instituzionalari, egitura administratiboari eta zerbitzuei buruz:

a) Nafarroako Administrazio publikoek jakitera emanen dute beraiekin lotura duten edo beren menpekoak diren erakunde autonomoen, enpresa publikoen eta zuzenbide publikoko gainerako entitateen zerrenda eguneratua, bai eta sektore publikoko fundazioena eta atxikitako partzuergoena ere, adierazita haien araubide juridikoa, ekonomikoa, ondarekoa, giza balibideena eta kontrataziokoa.

b) Administrazioaren eta a) letran aipatzen diren organismoen eta entitateen antolaketako barne egitura, adierazita organoen egoitza, harremanetarako bideak, sail bakoitzeko arduradun politikoen eta funtzionarielen identifikazioa (zuzendari kudeatzailea, sailtako buruak, zerbitzu, atal eta bulegoetako buruak) eta haiei esleitutako eginkizunak.

c) Ente publikoen, sozietate eta fundazio publikoen, partzuergoen eta Administrazio Publikoarekin lotura duten gainerako entitateen sorrerari, parte-hartzeari eta funtzionamenduari dagozkien erabakiak.

d) 2. artikuluan aipatzen diren entitate eta erakunde plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda (funtzionarioak, lan-kontratudun finkoak, estatutupekoak eta izendapen libreko zuzendaritza karguetan aritzen diren behin-behinekoak).

e) Nortzuk diren langileak ordezkatzeko dituzten organoetako kideak, eta zenbat diren departamentu eta erakunde publiko bakoitzean dauden liberatu sindikalak, adierazita zer erakunde sindikalekoak diren, bai eta liberazio horiek departamentuetan eta erakundeetan eragiten dituzten kostuak ere. Halaber, erabilitako ordu sindikalen kopuruaren berri emanen da.

f) Enplegu Publikoaren Eskaintza edo langile beharrak betetzea kudeatzeko antzeko beste lanabes bat, bai eta langileak hautatzeko prozesuak, aldi baterako langileen prestakuntza, igoera eta hautapen zerrendak barne, izangai bakoitzak aukera izan dezan unean-unean zer postutan dagoen jakiteko.

g) Hitzarmenak, erabakiak eta itunak, funtzionarioen eta lan-kontratudunen arlokoak eta arlo sindikalekoak.

h) Jarduera publiko edo pribatuetarako bateragarritasuna baimendu edo onartzeari buruzko ebazpenak, enplegatu publikoei eragiten dizkietenak.

i) Ematen diren zerbitzuen katalogoa, zerbitzuskartak, bai eta zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko prozedura ere.

j) Zerbitzu publikoak jasotzeko itzarotezerrendak (osasunaren, gizarte zerbitzuen, etxebizitzaren, hezkuntzaren eta abarren arlokoak), zenbakizko kodeen bidez identifikatuak anonimo izan daitezzen.

k) Ikastetxe publiko eta itunduetako ikastokien deialdiak eta esleipena.

l) Zerbitzu publikoen kalitatearen eta politika publikoen eragin sozialaren ebaluazioa noraino betetzen den eta haren emaitzak jasotzen dituzten txostenak.

m) Tramitazioa hasia duten urteko eta urte anitzeko planak eta programak.

n) Onartutako urteko eta urte anitzeko planak eta programak, adierazita horien helburuak, jarduerak, bitartekoak eta betetzeko behar diren denborak, betetzeko ardura duten organoak, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko bide ematen duten adierazleak.

o) Plan eta programen betetze mailari buruzko informazioa.

p) Planak eta programak egin, onetsi eta ebaluatzeko prozesuetan herritarren parte-hartzeak izandako emaitza.

3. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak honakoak emanen ditu argitara:

a) Atxikiak dituen kide anitzeko organoen zerrenda, haien osaketa, antolaketaren eta funtzionamenduari arauak, hartzen diren erabakiak eta bilkuretako aktak.

b) 2.d) atalean deskribatutako lanpostuen urteko ordainsariak, osagarriak zehaztuta, eta ordainsariak osotara.

c) Aldi baterako kontratuen kopurua, lanbide edo lan kategorien arabera sailkatuta, adierazita kontratua plantilla organikoko lanpostu bati loturik dagoen edo ez, baita urteko ordainsariak ere, osagarriak eta ordainsari osoa zehaztuta.

d) Zerbitzuko zuzendarien eta idazkari tekniko nagusien lanpostuetan aritzen direnek jasotzen dituzten urteko ordainsari gordinak, kontzeptu guztiak zehaztuta, kalte-ordainak eta dietak barne.

e) Enplegatu publikoen kopurua, departamentua, erakundea, entitatea, sozietate publikoa, fundazio publikoa eta partzuergoa zehaztuta, haien maila edo kategoria adierazita, baita harreman mota ere (funtzionarioa, estatutupekoa, lan-kontratuduna), eta, funtzionarioen eta estatutupekoen kasuan, zein diren karrerakoak, atxikipen motarekin, eta administrazio kontratudunak, eta, azkenik,

lan-kontratudunen kasuan, kontratu mugagabea dutenak eta aldi batekoak.

f) Administrazioarekin izenpetutako kontratu baten bitartez bulego eta establezimendu publiko batean jarduera bat, zerbitzu bat edo obra bat betetzen duten adjudikazio-hartzaileetan dauden lanpostuen zerrenda, bai eta langile horien dedikazio araubidea, ordainsarien araubidea eta betetzen dituzten eginkizunak ere.

Giza baliabideei buruzko informazio publikoa eta, bereziki, plantillak eta lanpostuen zerrendak hileroko eguneratu beharko dira, bai eta lanpostuak edo tokiak aldatu, kendu edo sortzen direnean ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baldin badira.

4. Artikulu honetan aipatzen diren enplegatu publikoen identifikazio datuak argitaratzeari dagokionez, lege honen aplikazio esparruan sartutako subjektu bakoitzean giza baliabideen kudeaketaren ardura duten organoek hamabost eguneko epea ezarriko dute epai judizial irmoaren bidez edo kautelazko neurri administratiboaren bidez datuen nolabaiteko babesa edo erreserba ezarria duten enplegatuek hori frogatu dezaten epe horretan, informazio hori argitaratu beharretik salbuesateko.

20. artikulua. Goi kargudunei eta zuzendaritzako langileei buruzko informazioa.

1. 2. artikuluan aipatzen diren administrazioek, entitateek eta instituzioek argitara eman eta eguneratuta izan beharko dute honako informazio hau, goi kargudunei eta zuzendaritzako eginkizunak dituzten gainerako langileei buruzkoa, horien lanpostuak ez badaude funtzionarioentzat erreserbatuta, baita goi zuzendaritzako araubidean kontratatutako langileei buruzkoa ere:

- a) Identifikazioa eta izendapena.
- b) Datu biografiko profesionalak.
- c) Telefonoa eta helbide elektronikoak harremanak izateko.
- d) Eginkizunak.
- e) Erakunde publikoetako eta merkataritza sozietateetako kide anitzeko organo bateko eta zuzendaritza eta administrazio kontseiluetako kide bada edo izan bada, horien aipamena, bai eta elkarte, fundazio eta entitate pribatuena ere, haien zuzendaritza organoetako partaide bada edo izan bada azken lau urteetan.

f) Jarduera publiko eta pribatuak, horietarako bateragarritasuna baimendu edo onartu zaion kasuan.

2. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak honakoak emanen ditu argitara:

a) Edozein motatako ordainsariak, urtean kargu publiko batean aritzeagatik jasotakoak, dieta eta kalte-ordain guztiak barne, berariaz adierazita ordainsarien kontzeptu desberdinak eta erabilgaitako ordezkariak gastuen zenbatekoa ere.

b) Agenda instituzionala, gobernuko kideena eta atal honetako aplikazio esparruan sartutako gainerako goi kargudunena eta zuzendaritzako langileena, bai eta kabineteko behin-behineko langileena ere, zuzendari, aholkulari edo baliokideak badira; agenda hori, gutxienez, agintaldi osoan izanen da publiko. Agenda aldeztu aurretik publiko egitea ezinezkoa bada, publikitatea ondoren egiten da, arrazoi justifikatuak daudenean salbu.

c) Kargua dela eta jasotako opariren erregistroa, zehaztuta deskribapena, oparia nork (persona edo entitatea) eta noiz eman zuen eta opariren destinoa.

d) Nafarroako Foru Komunitateetik kanpora egindako bidaiak eta joan-etorriak, beren eginkizunetan egindakoak, zertarako, noiz eta kostu osoa adierazita, dietak eta ordezkarietako beste gastu batzuk adierazita.

e) Goi kargudunen bateragarritasuna baimendu nahiz ukatzen duten ebazpenak.

f) Kargua utzi ondoren jarduera pribatuan ari zeko bateragarritasuna baimendu edo ukatzeko ebazpenak.

g) Kargua uztean jasotako kalte-ordainak, baldin badaude.

h) Goi karguengatik aitortpena egiteko betebeharrak betetzeari buruzko txostena, bai eta Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari dagokionez egindako arau-hausteei eta ezarritako zehapenei buruzkoa ere.

3. Tokiko ordezkarietako dagokionez, ordainsariak eta ondasunen eta jardueren urteko aitortpenak Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1975 Legean aurreikusitako moduan argitaratuko dira. Edozein kasutan ere, ondasun higiezinaren kokapen zehatzari buruzko datuak ez dira jasoko, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko dira.

21. artikulua. Garrantzi juridikoa duen informazioa.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumen eta eginkizunen esparruan, honakoak emanen dituzte argitara:

a) Administrazioak onetsitako arauak —eskura egonen dira jatorrizko formatuko bertsioak eta, aldatu diren arauen kasuan, bertsio bateratuak— eta arauen aplikazioaren ebaluazioari buruzko datuak.

b) Zuzentarauak, jarraibideak, zirkularrak eta egindako kontsultei emandako erantzunak (anoni-motasuna babestuta), arauen interpretazioan eta aplikazioan eragin berezia dutenak.

c) Kontsulta publikoak, foru legeen aurre-proiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak.

d) Prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita.

e) Araugintzako ondorioak dituzten memoriak, txostenak eta araugintzako proiektu edo aurre-proiektuen tramitazioa justifikatzen duten agiriak, xedapenen testuak, eta jendaurreko prozedurak, herritarren parte-hartzeak eta interes taldeen esku-hartzeak sortutako agirien zerrenda eta balorazioa, aurkeztutako alegazioak eta ekarpenak barne, nork aurkeztu zituen eta erregistro datak adierazita.

f) Herritarren parte-hartzearen emaitza, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

g) Sektoreko legeria indardunaren arabera, tramitazioan zehar epe batez jendaurrean egon behar duten agiriak.

2. Horrez gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazio hau ere emanen du argitara:

a) Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako eskumenen eta eginkizun eta zerbitzuen eskualdaketen zerrenda.

b) Kasuan kasuko legegintzaldian jarduketara programa ezartzen duen plana edo erabakia. Sei hilean behin konpromisoak noraino bete diren jakinaraziko da.

c) Urteko Araugintza Plana, Gobernuak onesteko aurkeztutako dituen lege edo erregelamendu mailako proposamen guztiak jasoko dituena.

d) Gobernuaren funtzionamenduari dagokionez, Gobernu Irekiaren Atariak bilkuren gaitzerrenda emanen du argitara, bilkurak egin aurretik, bai eta bilkuran hartutako erabakiak ere.

e) Sozietate publikoetako administrazio kontseiluen aktak, datu pertsonalak bereizi ondoren.

f) Prozedura administratibo guztien inbentario eguneratua, adieraziz zein dauden eskuragarri formatu elektronikoan, bai eta idazkiak eta komunikazioak aurkezteko erregistroen egoitza, isiltasun administratiboaren esanahia eta prozedurak amaitzen dituzten ebazpenen aurka aurkez daitezkeen errekurtsioak ere.

g) Bide administratiboan berrikusteko prozedura baten xede izan diren egintzak.

h) Garrantzi publikoa izan dezaketen ebazpen administratiboak eta judizialak, eta eragiten dioten behin betiko ebazpen judizialak, foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak eta erantzukizunak direla eta.

i) Nafarroako Kontseiluaren eta gainerako kontsulta organoen irizpenak.

j) Aurkeztutako errekurtsio administratiboak eta administrazioarekiko auzi errekurtsioei buruzko urteko txostena.

22. artikulua. Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta finantzarioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazio hau emanen du argitara eta eguneratuta mantenduko du, bere kudeaketa ekonomiko-finantzarioari dagokionez eta harekin lotuta edo haren menpe dauden erakunde eta entitate publikoei dagokienez ere:

A. Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta kontabilitatekoa.

a) Ekitaldirako onetsi den gastu ez finantzarioaren muga.

b) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 36.4 artikuluan jasotzen den dokumentazio osagarria.

c) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

d) Kreditu bereziak, kreditu-gehigarriak eta bestelako aurrekontu aldaketak.

e) Nafarroako Aurrekontu Orokorren hiruhileko exekuzioari buruzko datuak biltzen dituzten txostenak.

f) Barne fiskalizazioko organoek emandako txostenak, bereziki kexak aurkezten dituztenak, aurrekontuak aldatzeko eta gastu publikoaren kudeaketaren kontrolerako espedienteetan.

g) Nagusiki Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza duten ente publikoen, sozietate publikoen, fundazio publikoen eta partzuergoen aurrekontuak.

h) Nafarroako Kontu Orokorrak.

i) Ente publikoen, sozietate publikoen eta fundazio publikoen urteko kontuak.

j) Auditoretza eta fiskalizazio txostenak, Nafarroako Kontu Orokorrei buruzkoak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa partaide nagusi duten ente publikoen, sozietate publikoen, fundazio publikoen eta partzuergoen urteko kontuei buruzkoak.

k) Eskualdeko sektore publikoko enpresen jarduketari, inbertsioei eta finantzaketari buruzko urteko programak.

l) Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren, zor publikoaren eta gastu erregelaren helburuak betetzeko onetsitako plan ekonomiko eta finantzarioak.

m) Egiturazko defizit kasuetarako onetsitako berronkatze planak.

n) Likidezia babesteko neurrien bidez onetsitako doikuntza planak.

o) Aurreko l), m) eta n) letretan aipatzen diren planen jarraipenari buruzko txostenak.

B. Sarrerei, gastuei eta ordainketei buruzko informazioa.

a) Nafarroako Foru Komunitateko finantzaketari buruzko oinarriko informazioa.

b) Gai hauei buruzko informazio eguneratua:

1. Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenari buruzko informazioa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko defizit/superabit publikoak eskualdeko BPGarekin alderatuta egiten duen proportzioa.

3. Tributu arloko informazioa tributu bakoitzaren arabera, eta azken urteetan sarrerek izandako bilakaera.

4. Zerga arloko sarrerak biztanleko.

5. Politiketan egindako gastuak eta horiek egiten duten portzentajea gastu osoarekin alderatuta.

6. Nafarroako Foru Komunitatean biztanleko egindako gastua.

7. Langileria gastuak eta gastu osoarekin alderatuta egiten duten portzentajea, zehaztuta zuzendaritzako langileei eta behin-behineko langileei dagokiena, baita liberatu sindikalei dagozkienak ere, adierazita kasu guztietan langileria gastuarekin eta gastu osoarekin alderatuta egiten duten portzentajea.

8. Ondasun higiezinaren errentamenduaren kontzeptuan egindako gastua.

9. Publizitate, sustapen, komunikazio instituzional, irudi, iragarki edo beste edozein formatu duten kanpainetan egindako edozein gastu, xehakatzuz plangintza-irizpideak, hautatutako euskarria, exekuzio-aldia eta kanpainaren kontzeptu desberdinak, bai eta hedabide bakoitzarekin kontratatutako zenbatekoa ere, eta haren eragin zenbatetsiari eta kanpainaren emaitzei buruz informatuz.

10. Jarduera ekonomikoetarako eta egoera bereziki ahulean dauden familientzako eta pertsonentzako laguntza edo diru-laguntzetan egindako gastu osoa, hala nola, mendekotasunaren arretari, ekintza sozialari eta lankidetzari, adinekoei, adingabeei eta desgaitasuna dutenei dagozkienak.

11. Nafarroako Foru Komunitatean biztanle bakoitzeko egindako inbertsioa.

12. Funtzen erabilerearen urteko plana.

13. Nafarroako Toki Entitateei Toki Ogasuneiei buruzko Foru Legea aplikatzearen ondorioz urtean esleitutako zenbatekoak, bai eta beste edozein arrazoiengatik esleitutako gainerako zenbatekoak ere. Zerrenda hori banakakoa izanen da.

14. Hornitzaileei eta laguntzen eta diru-laguntzen onuradunei ordainketak egiteko batez besteko epea, bai eta berankortasunari buruzko txostenak ere.

C. Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetzei buruzko informazioa.

a) Zor publikoaren zenbatekoa, adierazita zorpetze publikoa biztanleko eta eskualdeko BPGarekiko zorpetze erlatiboa.

b) Defizit helburuen betetze maila eta hura betetzeko planak.

c) Kaudimen adierazlea, epe laburrekoa eta luzekoa.

d) Foru sektore publikoko entitateek egindako mailegu eta kreditu eragiketak eta zor publikoaren jaulkipenak.

e) Foru sektore publikoko entitateek edozein kreditu motatan emandako abalak eta bermeak.

f) Foru sektore publikoko entitateek egindako finantza errentamenduko eragiketak.

2. Foru lege honen 2. artikuluan jasotako administrazio publikoek, erakunde publikoek eta entitateek informazio hau argitaratu beharko dute:

a) Administrazio publikoaren, instituzio publikoaren edo entitatearen aurrekontuak, eta Administrazio publikoa partaide nagusi duten ente publikoenak, sozietate publikoenak, fundazio publikoenak eta partzuergoenak, haien aldaketak eta informazio eguneratua eta ulergarria exekuzio egoerari buruz.

b) Administrazio publikoaren, instituzio publikoaren edo entitatearen urteko kontuak, eta hura partaide nagusi duten ente publikoenak, sozietate publikoenak, fundazio publikoenak eta partzuergoenak.

c) Kanpoko kontrol organoek urteko kontuei buruz emandako auditoretza eta fiskalizazio txostenak.

d) Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa, bai eta horretarako onetsitako planak eta haien jarraipena.

e) Sektore publikoko enpresen jarduketari, inbertsioei eta finantzaketari buruzko urteko programak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, harekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoek, sozietate publikoek, fundazio publikoek eta harekin lotutako zuzenbide publiko entitateek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak argitara emanen dute finantza entitateetan titular gisa irekita dituzten banku kontuei buruzko informazioa, Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legean ezarritako modu eta baldintzetan.

23. artikulua. Kontratazio publikoari buruzko informazioa.

1. Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez antolatuko da gardentasuna kontratazio publikoan. Atari hori ez da izanen bakarrik lizitazioei publizitatea emateko bitarteko ofizial bat, informazioa emateko funtsezko tresna bat ere izanen da, eta, informazio horretan, honako hauek adierazi beharko dira:

a) Entitate eta kontratazio organoari buruzko informazio orokorra, esate baterako, harremanetarako helbidea, telefono eta fax zenbakiak, posta helbidea eta posta elektronikoaren kontua.

b) Honako hauei buruzko informazioa: kontratuak, esparru-akordioak, adjudikatutako kontratuak, huts deklaratuak, uko-egiteak edo atzera-egiteak, deuseztatutako lizitazioak,

suntsiarazitako kontratuak, suntsiarazpena eragin duten kausak eta haren ondorioak adierazita, eta kontratazioa egoki kudeatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen den beste edozein.

c) Abian diren lizitazioei buruzko informazioa. Eskuragarri egonen dira kontratua gauzatzeko baldintza guztiak eta, behar denean, gainerako dokumentazio osagarria.

d) Kontratazio mahaien osaketa eta aktak.

e) Formalizatutako kontratuak, alderdi hauek adierazita:

1. Xedea, kontratu mota eta kontratazio organoa.

2. Formalizazio data.

3. Exekuzioaren hasiera eguna.

4. Iraupena.

5. Adjudikaziorako erabilitako prozedura.

6. Lizitazio eta adjudikazio zenbatekoak.

7. Parte hartzen duten lizitatzailen kopurua, identifikatuta onartu eta baztertu direnak, eta, kasua bada, prozeduran hautatu direnak.

8. Adjudikazio-hartzailearen identitatea.

9. Adjudikazio-hartzailearen kaudimen teknika eta ekonomikoa.

10. Adjudikaziorako irizpideak, bai balorazio automatikoa egitekoak bai judizio-balioaren eta ponderazioaren menpe daudenak.

11. Eskaintza ekonomikoak, proposamen teknikoak eta hobekuntzak konparatzen dituen taula, baldin badaude, puntuazio guztiak adierazita irizpide bakoitzaren arabera, eta arrazoien laburpena. Erabaki eta txosten juridikoak, teknikoak eta kontu-hartailtzakoak, kontratazio prozesuarekin lotutakoak.

12. Txosten juridikoak, teknikoak eta kontu-hartailtzakoak, kontratazio prozesuarekin lotutakoak.

13. Onetsitako aldaketak, kontratu osagarriak eta kontratuen luzapenak.

14. Kontratuaren lagapenari eta azpikontratazioari buruzko informazioa, zehaztuta lagapen-hartzaileen edo azpikontratatisten identitatea, zenbatekoa, eta kontratu bakoitzean azpikontratatu den bolumenaren portzentajea.

15. Kontratuaren amaieran egindako likidazioaren zenbatekoa.

16. Prezioen berrikuspenari buruzko informazioa, bai eta kontratatutako prestazioaren amaierako kostuan izandako desbideratzea adjudikatutako zenbatekoarekin alderatuta.

f) Kontratisten ez-betetzeengatik ezarritako zigorrak.

g) Garrantzi txikiagoko kontratuen zerrenda, hiruhilekoa gutxienez, zehaztuta, organo edo entitateen arabera, haien xedea, zenbatekoa, iraupena eta zer portzentaje egiten duten adjudikatutako kontratu guztiekin alderatuta.

h) Datu estatistikoak, kontratazio organoen arabera, zehazten dituztenak kontratu publikoei buruzko foru araudian aurreikusitako prozedura eta moduetako bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuen aurrekontu bolumenaren portzentajea.

i) Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

2. Aurreko paragrafoko e) letran aipatzen den informazioa ez da argitara emanen, espedientean justifikatu ondoren, isilpeko edo erreserbatuaren deklarazioa duten kontratuen kasuan, eta kontratu horiek segurtasun neurri bereziak hartuta beteko dira indarreko legeriarekin bat.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak sarbide libreko datu-base bat sortuko du, non enpresa adjudikazio-hartzaileekiko kontratuen informazio eguneratua bilduko baita. Datuek islatuko dute enpresa bakoitzak zenbat kontratu dituen Administrazioarekin, zer proiektu edo zerbitzu duen adjudikatuta, adjudikazioaren aurrekontua eta zer departamentuk egin duen adjudikazioa.

Publizitate instituzionaleko kanpainei dagozkien kontratuak atal independente batean identifikatuko dira, haien xedearen arabera egituratuta, indarraldiaz gain publizitateko zabalkunderako datak eta zein hedabidetan egiten den argi adieraziz.

4. 3. artikuluan aipatzen diren entitateek informazioa argitaratuko dute foru lege honen aplikazio eremu subjektiboan aipatzen diren entitate eta instituzioekin egindako kontratuei buruz.

24. artikulua. Zerbitzu emakidei buruzko informazioa.

1. Kontratu publikoei buruzko foru legeekin bat arautuko da zerbitzuen emakida; hortaz, arlo horretako gardentasuna Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez antolatuko da.

2. Nolanahi ere, zerbitzu publikoen emakiden gardentasunak eskatzen du zerbitzu emaileek

herritarrei bermatzea, kalitatezko zerbitzuak eskatzeko eta, behar denean, beren eskubideak erabiltzeko behar den informazioa jasoko dutela.

3. Ondorio horietarako, Administrazio Publikoak behar diren aurreikuspenak jasoko ditu kontratazioa arautzen duten agirietan, erabiltzaileei ondoko eskubideak, gutxienez, bermatzeko:

a) Zerbitzu publikoa emateko baldintzei buruz eta emandako zerbitzu publikoen betetze mailari eta kalitateari buruzko informazioa lortzeko eskubidea.

b) Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko. Arrazoiak emanda eta bakarka erantzun beharko dira.

c) Zerbitzua ematearekin loturik, esleipen hartzailearen bulegoetan aurkezten dituzten dokumentu guztien kopia zigilatua jasotzea.

d) Administrazioari exijitzea erabil ditzala ikuskatzeko, kontrolatzeko eta, behar denean, zehatzeko ahalmenak, zerbitzuak ematean dauden irregulartasunak zuzentzeko.

e) Zerbitzua erabiltzean berdintasunezko tratua jasotzeko, bazterketa zuzeneko nahiz zeharkakorik gabe, arrazoa edonolakoa izanik ere: jaiotzarekin lotutakoa, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal edo soziala.

25. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenei, programa-kontratuei, esleipenei eta baliabide berekientzako mandatuei buruzko informazioa.

1. Foru lege honen 2. artikuluan jasotako Administrazio publikoek, instituzio publikoek eta entitateek argitara emanen dituzte lankidetzaren hitzarmenak, programa-kontratuak, esleipenak eta baliabide berekietarako mandatuek, eta horietarako muga bakarrak izanen dira datu pertsonalak babesteari buruzko araudian eta foru lege honen 31. artikuluan ezarritakoak.

2. Foru lege honen 2. artikuluan jasotako administrazioek, entitateek eta erakundeek egindako kudeaketa esleipenen eta baliabide berekientzako betetze mandatuen zerrenda argitara emanen da eta eguneratuta mantenduko da, informazio hau barne:

a) Esleipena zer entitateri egin zaion eta iraupena.

b) Esleipena egiten duen organoak edo entitateak bere bitarteko pertsonalekin zerbitzuak ez ematea justifikatzen duten arrazoiak eta, hala badagokio, zerbitzua sektore publikoko kontratuen

gaineko legerian aurreikusitakoari jarraikiz ez lizitatzea egiaztatzen duten arrazoiak.

c) Esleipena egiten duen entitatearen erabakiz, zer bitarteko material jarriko dituen esleipena hartu duenaren esku lana egiteko.

d) Esleipen bakoitzean sartutako pertsonen kopurua eta lanbide kategoriak, bai eta langileria gastuetarako erabiliko den zenbateko osoa ere.

e) Esleipenaren xedea eta betebeharrak ekonomikoak, barne hartuta ezarritako tarifak edo prezioak.

f) Aurrekontuaren eta prezioen aldaketak eta berrikuspenak, bai eta esleipenaren amaierako likidazioa ere.

g) Azpikontratazioak, egin badira, adierazita horretarako erabilitako prozedura, pertsona edo entitate adjudikazio-hartzailea eta adjudikazioaren zenbatekoa.

h) Baliabide berekiak kontrol enteen alde egingako jardueraren portzentajea adieraziko da, ekitaldi bakoitzeko.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, lankidetzaren hitzarmenetan gardentasuna antolatuko da, funtsean, Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa baliatuz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bidez sortutakoa, alegia. Administrazioak sinatutako hitzarmen eta akordioen publikizaterako, gardentasunerako eta kontrolerako tresna izanen da.

4. Nolanahi ere, Nafarroako Hitzarmenen eta Itunen Erregistroaren gaineko erregulazioak bermatu beharko du herritarrek dohainik kontsultatu ahal izatea, bai bertaratu bai telematikoki, Erregistroan inskribatutako hitzarmen eta itunen zerrenda, baita haietan egindako aldaketak ere, eta, horretaz gain, horietako bakoitzari buruzko datu hauek:

a) Hitzarmenaren edo itunaren alderdi sinatzaileak, horien ordezkariak eta ordezkaritza horren izaera.

b) Hitzarmenaren edo itunaren helburua, adierazita konprometitutako jarduerak, horien ardura duten organoak eta hitzartutako betebeharrak ekonomikoak, halakorik bada.

c) Indarraldia eta indarrean izateko baldintzak.

d) Halakorik egin bada, hitzarmena edo ituna argitaratzeko tokia.

e) Hitzarmenak edo itunak indarrean zirenean izandako aldaketek zer xede zuten, eta aldaketa horien datak.

5. Programa-kontratuen kasuan argitaratuko dira, halaber, helburuen betetzeari buruzko ebaluazioen aldizkako txostenak.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta harekin lotuta dauden edo haren menpeko diren erakunde eta entitate publikoen esparruan, publikitatea eman beharko zaie gizarte edo osasun zerbitzuak besteren bitartekoekin emateko izenpetzen diren itunei edo hitzarmenei.

7. 3. artikuluan aipatzen diren entitateek informazioa argitaratuko dute foru lege honen aplikazio esparru subjektiboan aipatzen diren entitate eta erakundeekin izenpetutako hitzarmenei buruz.

26. artikulua. Diru-laguntzen arloko jarduerari buruzko informazioa.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek gardentasuna bermatuko dute diru-laguntzekin lotutako jardueran, eta, horretarako, honako informazio hau argitaratuko dute, sustapen jarduerak egiten dituen organo bakoitzeko:

a) Aurrekontu-ekitaldian aurreikusirik dituen laguntzen edo diru-laguntzen deialdien zerrenda eguneratua, adieraziz zer zenbateko erabiliko diren, helburua edo xedea eta onuradun izan daitezkeen deskribapena.

b) Laguntzen edo diru-laguntzen deialdiaren testu osoa.

c) Emandako laguntza edo diru-laguntza horiek, jakinarazi edo argitaratu eta ondoko hila-betean, adierazita onuradunen zerrenda, arau batek edo deialdiak hala aurreikusten bada, laguntzen zenbatekoa eta dagokien araudiaren identifikazioa. Halaber, urtero, aurreko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da.

d) Publikitatea eta lehia sustatu gabe emandako diru-laguntzak, salbu Administrazio Publikoak erreserbatutzat deklaraturako espedienteen kasuan.

e) Publikitatea emanen zaio, halaber, diru-laguntzaren kudeaketa, justifikazio eta kontu emateko prozedurari, alderdi hauei dagokienez: betetzeko epea, ordainketa aurreratuak edo kontura egindakoak, justifikatutako zenbatekoa, ordaindutako kopuruak, itzulketei buruzko ebazpenak eta ezarritako zehapenak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazio hau emanen du argitara, sustapen jarduerak egiten dituen organo bakoitzeko:

a) Ondokoak jasoko dituen zerrenda bat: diru-laguntza bakoitza aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta onura publikoko edo sozialeko eraginak, horiek erdiesteko egokitzat edo beharrezkotzat jotzen den epea, aurreikusitako guztirako kostuak eta finantzatzeko beste iturririk dagoen edo ez.

b) Diru-laguntzen bidez lortu nahi diren helburuak merkatuan eraginik baldin badute, arrazoiturik azalduko da, batetik, diru-laguntza horiek zer neurritan dauden bideraturik hutsak zuzentzera (hutsak identifikatuko dira) eta, bestetik, arrazoituko da haren eraginek zer neurritan ekarriko duten ahalik eta distortsio txikiena merkatuan.

3. Lege batek kontrakoa xedatu ezean, ez dira argitara emanen laguntzen, diru-laguntzen, prestazio sozialen, onura fiskalen edo bestelako onuradunak diren pertsona fisikoen datu pertsonalak, laguntza horien xedea kolektibo zehatz batzuen edo gizarte bazterketan gelditzeko arriskuan dauden pertsonen gizareratzea denean, edo laguntzak hezkuntza, etxebizitza edo beste edozein xede sozialetarako direnean, onuradunaren gaitasun ekonomiko txikiagoa dela eta, edo justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.

27. artikulua. Ondareari buruzko informazioa eta informazio estatistikoa.

1. Foru lege honen 2. artikuluan jasotako subjektuek, Administrazio Publikoaren izaera dutenek, beren jabetzako higiezin zerrenda argitaratu beharko dute, bai beste batzuen ere, baldin eta haien gainean eskubide errealeen bat badute, honakoak adierazita, gutxienez: bakoitzaren kokapena, azalera, ezaugarri nagusiak, izena, katastroko erreferentzia, hura atxikia duen unitatea edo departamentua, eta erabilera, salbu eta, pertsonak babesteko arrazoi justifikatuak direla eta, komeni bada ez argitaratzea.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak honakoak argitaratu beharko ditu:

a) Jabari publikoko ondasunen zerrenda.

b) Bere titulartasuneko ondasun higiezin zerrenda, bai eta beste batzuen ere, baldin eta horien gainean eskubide errealeen bat badu, zehaztuta bere organo edo zerbitzuetako bulegoek okupatuta dauden; horrekin batera, hirugarrenei edozein tituluren bidez lagatakoen zerrenda, lagapenaren onuraduna den pertsona edo entitatea, baldin badago, eta lagapenaren xedea.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak errentan hartuta dituen ondasun higiezin zerrenda, adierazita horien erabilera edo zerbitzu publikoa.

d) Administrazio publikoen baimena, kontrola edo fiskalizazioa eskatzen duten egintza edo eginkizunak gauzatzea ahalbidetzen duten baimen administratiboak, lizentziak, erantzukizuneko aitorpenak eta bestelako egintza administratiboak, baldin eta zuzeneko eragina badute jabari publikoaren kudeaketan edo zerbitzu publikoak ematean, edo garrantzi berezia badute beste arrazoi batzuegatik.

e) Bere titulartasuneko ibilgailu ofizialen zerrenda, bai eta errentan hartuta dituenena ere, erabilera eta xedea adierazita.

f) Telefono mugikor korporatiboaren zerrenda.

g) Herritarrek erabiltzen edo eskuratzen dituzten zerbitzu publikoei buruzko estatistikak, bereziki hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloan, eta batez ere, egindako kontsultei, kexei eta iradokizunei buruzkoak, erregelamenduz ezarritako moduan.

h) Tributu arloko estatistikak, lurralde, populazio eta ekonomiako parametroekin, eta sexuen arabera, datuen izaera erreserbatua kontuan hartuta, Tributu buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105. artikuluan aurreikusitakoa.

i) Nafarroako Estatistika Planean sartutako eragiketa estatistikoak.

j) Etxe partikularretan instalatuta dauden Interneteko konexioko lineen, telefono finkoko lineen edo bestelako komunikazio-dispositiboaren zerrenda.

28. artikulua. Lurraldearen antolamenduen, hirigintzaren, ingurumenaren eta etxebizitzaren arloko informazioa.

1. Lurralde antolamenduko eta udalen hirigintza planeamenduko tresnak argitara emanen dira, gutxienez alderdi hauei buruzko informazioa emanez:

a) Udallerri bakoitzeko egitura orokorra.

b) Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa.

c) Lurzorurako aurreikusitako antolamendua, behar den xehetasun mailarekin.

d) Herri bakoitzean planteatutako azpiegiturak.

e) Hirigintzako araudia.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenak betetzen ari direla, honakoak ere argitaratuko dituzte:

a) Ingurumen baimen integratuak eta ingurumen lizentziak, emandako txosten juridikoak eta teknikoak barne.

b) Administrazio Publikoak berak egindako informazio geografikoa, ekonomikoa eta estatistikoa, hura zabaltzea garrantzitsua denean, adieraziz zein diren erabilitako iturriak, ohar metodologikoak eta ereduak.

c) Indarreko araudiarekin bat argitara eman beharreko ingurumeneko informazioa.

29. artikulua. Publizitatearen xede diren beste eduki batzuk.

Aurreko artikuluetan adierazitako publizitate aktiboko betebeharez gain, herritarrentzat interesgarritzat jotzen den beste edozein informazio ere argitara emanen da, eta, bereziki, eskuratzeko eskaera gehien jasotzen duena.

III. TITULUA

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

I. KAPITULUA Arau orokorrak

30. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

1. Edozein pertsona fisiko edo juridikok, publikoa nahiz pribatua izan, eskubidea du informazio publikoa eskuratzeko, dela norberaren izenean eta banaka, dela herritarrak bildu edo ordezkatzeko dituzten erakunde legez eratutako izenean, aurrez eskatuta eta foru lege honetan finkatzen diren mugekin.

2. Eskubide hori erabiltzeko, ez da beharrezkoa izan eskaeran arrazoiak ematea edo foru lege hau aipatzea, ez eta inolako interesik frogatzea ere.

3. Administrazio publikoek behar diren antolaketa neurriak hartu behar dituzte, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea betetzen dela bermatzeko, titulu honetan ezarritakoari jarraikiz.

31. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen mugak.

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatuko da, bakarrik, informazioa ematearen ondorioz kalteren bat sortzen baldin bazaio honako hauetako bati:

a) Segurtasun publikoari.

b) Erabakiak hartzeko prozesuetan eskatzen den konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.

c) Arauen urratze penal, administratibo edo diziplinazkoen prebentzioa, ikerketa edo zehapena.

d) Aldeek prozesu judizialean izan beharreko berdintasuna, eta babes judizial eraginkorra.

e) Zaintza, ikuskapen eta kontrol lan administratiboak.

f) Interes ekonomiko eta merkataritzakoak, zilegi direnak, foru lege honi jarraikiz hitzarmenei, kontratuei eta bestelako egintza administratiboak publizitatea ematea galarazi gabe.

g) Sekretu profesionala eta jabetza intelektuala eta industrialak.

h) Ingurumenaren babesa.

i) Lege mailako arauak erreserbatutzat deklaratu edo babestutako informazioa.

2. Mugen aplikazioa proportzionala izanen da, xedea eta babesteko asmoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, era murriztailean eta justifikatuan interpretatu beharko dira, eta aplikazioak kasu zehatzaren inguruabarrak hartuko ditu kontuan, bereziki informazioa zabaltzea justifikatzen duen goragoko interes publiko bat egotea.

3. Administrazio Publikoak ezin izanen ditu muga horiek alegatu herritarrari galarazteko harengan modu pertsonalean, partikularrean eta zuzenekoan eragina izan dezaketen agiriak eta informazioa eskuratzeko, are gutxiago eragin hori herritarraren eskubide eta interes legitimoen gainekoa bada.

4. Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak aplikatuko dira, bakarrik, legeek ezarritako aldirako edo neurri hori justifikatzen duen arrazoiak dirauen bitartean.

5. Artikulu hau aplikatuz ematen diren ebazpenak argitara emanen dira, jasotzen dituzten datu pertsonalak behin kenduta eta interesdunei jakinarazi ondoren; nolanahi ere, informazioa badela edo ez adierazte hutsak eskuratzeko mugaren bat urratzea dakarrenean, inguruabar hori ere adierazi beharko da eskaera ezesten denean.

6. Artikulu honetan finkatutako mugak aplikatzen ahalko dira, orobat, foru lege honen II. tituluan aurreikusita dauden hedatzeko betebeharrei dagokienez.

32. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

1. Eskatutako informazioan identifikazio hutseko datuak jasotzen direnean, foru lege honen aplikazioaren menpe dauden administrazio, instituzio, entitate edo pertsona fisiko edo juridikoen

antolaketaekin, funtzionamenduarekin edo jarduera publikoekin lotutakoak, organo eskudunak aukera emanen du informazioa eskuratzeko.

2. Eskatutako informazioa pertsona juridikoei buruzkoa denean, informazioa eman egingen da bertan zuzendaritza, administrazio eta kontrol organoetako ordezkariak, administratzaileak edo kideak diren pertsona fisikoen izen-deiturak eta harremanetarako helbideak egonda ere.

3. Eskatutako informazioa pertsona fisikoei buruzkoa denean eta datuak ez badaude bereziki babestuta, organoak jakinarazten ahalko dio informazioa eskatzaileari baldin eta eskaera aztertzean iruditzen bazaio honakoa lehenestekoa dela:

– Identifikaziorako edo harremanetarako datuak besterik ez direla, eta horiek jakinaraziz ukitutakoen interesei ez zaiela kalte nabarmenik egiten irizten zaionean.

– Eskatzaileak bere eskaera justifikatzen duenean zuzeneko interes legitimo baten titularra den aldetik, edo herritar gisa duenez beste eskubide subjektibo baten izenean.

– Eskatzaileak ikerlaria izatea eta eskuratzeko adierazteko arrazoiak helburu historikoak, zientifikoak edo estatistikoak izatea.

– Ukituentzako kaltea txikiagoa izatea, agiria- ren edo informazioaren datatik hasita hamar urte iragan direlako.

4. Aitzitik, eskaera ezesten ahalko du zuzenean ukitutakoen eskubideen berme handiagoa lehenetsi behar dela iritzita, agirian bildutako datuek haien intimitateari edo segurtasunari eragiten ahal diotenean, edo adingabeenak direnean.

5. Eskatutako informazioan datu bereziki babestuak jasota daudenean, ukitutakoaren baimen berariazkoa beharko da, non ukitutakoak berak ez baditu datu horiek modu agerikoan publiko egin eskuratzeko eskatu aurretik, edo eskuratzeko lege mailako arau batek babesten ez dituen.

6. Gainerakoan, datu pertsonalen babesari buruzko araudia hartuko da kontuan.

33. artikulua. Informazio partziala eskuratzeko.

1. Eskatutako informazioak eskuratzeko eskubiderako mugetako bat baldin badu, muga horrek ukitzen ez duen informazioa modu partzalean eskuratzeko onartuko da.

2. Informazioa modu partzalean eskuratzeko onartzen denean, bermatu beharko da mugatutako informazioaren erreserba, eta erreserba horren

ohartarazpena egiten dela eta jasota gelditzen dela.

II. KAPITULUA

Informazio publikoaren eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura

34. artikulua. Informazio publikoaren eskuratzeko.

1. Informazio publikoaren eskaerak informazioa zer administrazioaren edo entitatearen esku dagoen, horri zuzendu zaizkio.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen kasuan, unitate organikoak eskaeren berri emanen dio gardentasunaren arloan eskumena duen unitate administrazioari.

Foru lege honen 2. artikuluan aipatzen diren administrazio publikoek, instituzio publikoek eta entitateek eskaerak aurkezten laguntzeko bitarteko elektronikoak sustatuko dituzte.

2. Eskaera egiteko, edozein bide erabiltzen ahalko da, baliabide elektronikoak barne, honako hauek jasotzeko aukera ematen badute:

a) Eskatzailearen nortasuna, hura frogatzea beharrezkoa izan gabe.

b) Eskatzen den informazio zehatza, baina ez da nahitaezkoa dokumentu edo espediente jakin bat identifikatzea.

c) Eskatutako informazioa eskuratzeko nahia- go den modua edo formatua.

d) Harremanetarako helbide erabilgarri bat, eskaera dela-eta egiten diren komunikazioak bidaltzeko.

3. Eskatzaileak informazioa eskuratzeko arrazoiak azal ditzake, hala nahi badu. Dena dela, ez dago inola ere arrazoiak eskatzerik.

4. Edozein dela ere eskaera egiteko erabiltzen den bitartekoa, informazio publikoaren ardura duten unitateek eta informazio bulegoek, bai eta eskaera aurkeztu edo zuzentzen den organo edo entitateak ere, behar den laguntza emanen dute informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzea errazteko, kolektibo batzuen behar bereziak kontuan hartuta.

5. Eskaerak Nafarroako Foru Komunitatean ofizialak diren hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkezten ahalko dira.

6. Eskaria ahoz egiten denean, dela unitate erantzuleen aurrean agertuz, dela informazio- bulegoetan edo telefono bidezko komunikazioaren bitartez, hura formatu elektronikoan jasoko da, eta

aurreko apartatuan aipatutako xehetasunak jaso beharko dira. Horri buruzko ziurtagiri bat emanen zaio eskatzaileari.

35. artikulua. Eskaera zehaztugabeak.

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskaera zehaztugabea, orokorra edo lausoa baldin bada, edo zaila baldin bada hura ulertzea edo informazioa aurkitzea, eskatzaileari eskatuko zaio zehaztu dezala, eta horretarako, hamar egun balioduneko epea emanen zaio gehienez. Bitartean, ebazteko gehieneko epea eten eginen da. Zuzendu ezean, eskatzaileak atzera egin duela joko da. Helburu horretarako, laguntza emanen zaio bere informazio eskaera ahalik eta azkarren zehaztu dezan.

2. Eskatzailea atzera egintzat jotzeko eta eskaera artxibatzeko deklarazioa ebazpen bidez eginen da, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio, beste eskaera bat aurkezteko aukera izan dezan, baina nahi duen informazioa edo eskaera zehaztuta.

36. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerentarako prozedura ebazteko eskumena duten organoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eremuan, prozedura ebazteko eskumena kasuan kasuko informazioa duten unitateetako nagusi hierarkikoek izanen dute, baina, betiere, ebazteko eskumenak esleituak izan beharko dituzte, egitura organikoak arautzen dituzten arauekin bat.

2. Erakunde publikoetan lehendakariak edo zuzendari kudeatzaileak izanen dira eskudunak.

3. Foru sektore publikoko partzuergoetan, fundazioetan eta enpresa publikoetan haien estatu-tuetako arauak edo jarduneko araubideak ezartzen duten organoak izanen dira eskudunak. Halakorik ezean, erabakitzeko eginkizunak esleituak dituen organo gorena izanen da eskuduna. Dena dela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berarentzat gorde dezake ebazteko ahalmena, baldin eta informazio publikoa eskuratzeko eskaera jasotzen duena hauetako bat bada: sozietate edo fundazio publiko bat, hari lotutako zuzenbide publikoko entitate bat, eginkizun publikoak edo ahalmen administratiboak betetzen dituen norbait edota haren agintepean zerbitzu publikoak ematen dituen norbait. Horrelako kasuetan, zehaztuko du zein diren departamentu bakoitzean horrelako eskaerak ebazteko eskumena duten organoak.

4. Toki entitateek, Nafarroako Kontseiluak, Kontuen Ganberak, Nafarroako Arartekoak eta

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, zeinek bere autonomiaren esparruan, informazio publikoaren eskaerak ebazteko eskumena duen organoa zein den ezarriko dute.

37. artikulua. Eskaerak ez onartzeko arrazoiak.

Honelako eskaerak ez dira tramitera onartuko, ebazpen arrazoituaren bidez:

a) Informazioa eskuratzeko eskubidetik legez salbuetsita dagoen informazioari buruzkoak.

b) Eskaera zuzendu zaion entitateak ez daukan informazioa emateko eskaerak, eta eskuduna ezezaguna denean.

c) Kontsulta juridikoei erantzuteko eskaerak, edo txostenak edo irizpenak egiteko eskaerak.

d) Gehiegizkoak direla irizten zaionean, agerikoa bada arrazoigabeak edo errepikakorrek direla edo eskubidearen neurrigabeko abusua dakartela.

e) Prestatze faseko dokumentazioa, lantzen ari den materiala edo bukatu gabe dauden dokumentu edo datuak, administrazio espedientearen parte ez direnak, eskuratzeko eskaerak. Bukatu gabe dauden datutzat jotzen dira Administrazio Publikoaren barrenean oraindik lantzen ari diren datuak, haiei buruz inolako irizpen, txosten edo onespenik eman ez denean. Arrazoi horregatik ezesten baldin bada eskaera, ebazteko eskumena duen organoak ezespenean aditzera emanen du zein unitate ari den prestatzen material hori, eta eskatzaileari adieraziko dio noizko aurreikusten den bukatzea lanketa hori.

f) Izaera lagungarria edo sostengukoa duen informazioari buruzkoak, hala nola hauetan jasotakoa: oharretan, zirriborroetan, iritzietan, barneko erabilerako laburpenetan edo barne komunikazioetan, garrantzi edo interes publikorik gabeak. Ez dira izaera lagungarri edo sostengukotzat hartuko txosten juridikoak, teknikoak, ekonomikoak edo bestelakoak, espedientearen parte badira edo ebazpenekin edo beste egintza administratibo batzuekin lotura badute.

g) Zabalduta aurretik berregin behar den informazio bati dagozkionak. Informazioa eskura ez jartzea justifikatzen duen berregitetzat ez da hartuko erabilera arrunteko tratamendu informatizatuaren bidez lor daitekeen informazioa, ez eta zenbait agiri desberdinetan sakabanatutako informazioa biltzeko egintza ere.

38. artikulua. Eskaerak deribatzea.

1. Informazioa eskuratzeko eskaera informazio hori ez duen entitate edo organo administratibo

bati zuzentzen zaionean, horrek deribatu beharko du informazioa duen entitate edo organora, ezagutzen badu, edo kasuan kasuko informazio publikoaren ardura duen bulegora, hamar egun naturaleko epean, eta eskatzaileari jakinarazi beharko dio zer organotara deribatu den eskaera eta harekin harremanetan jartzeko datuak zein diren.

2. Informazio eskaera administrazio bati zuzendu, eta entitate edo organo administratibo eskuduna ez bada administrazio horretakoa edo haren menpekkoa, horren berri eman beharko zaio eskatzaileari, bide elektronikotik ahal bada, eta adierazi zer administraziori bidali zaion eskaera informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzeko.

3. Informazioa eskuratzeko eskaerari erantzun partziala emateko eskumena duen entitate edo organo bati zuzendu bazaio eskaera, zati horri dagokionez erantzun beharko du entitate edo organo horrek. Bere eskumenekoa ez den informazioari dagokionez, berriz, aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera jokatu du.

39. artikulua. Hirugarrenek esku hartzea.

1. Informazio eskaerak baiesteak berarekin dakarrenean datu pertsonalak jakinaraztea, bereziki babesuta daudenak, edo hirugarrenen interesak kaltetzeko aukera dagoenean, ebazpena eman behar duen organoak hamabost eguneko epea emanen die ukituei informazioa eskuratzeko berariazko baimena adieraz dezaten edo egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

2. Ukituari eskaera bidaltzearekin batera ebazteko epea eten eginen da, harik eta alegazioak jaso arte edo aurkezteko epea iragan arte. Eskatzaileari inguruabar horren berri eman beharko zaio. Hirugarrenek erantzuten ez badu eskatutako epean, ulertuko da ez dagoela ados eskatutako informazioa ematearekin.

3. Organo eskudunak, hirugarrenek berariaz edo ustez adierazitakoa oinarri hartuta, eta foru lege honetan jasotakoari jarraikiz, bidezkotzat jotzen duen ebazpena emanen du, interes publiko orokorrarekin bat.

40. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.

1. Eskatzaileari entzunaldiaren tramitea emanen zaio eskuratzeko eskubiderako mugetako bat dagoenean edo ukitutako hirugarrenek esku hartu dutenean.

2. Eskatzaileak gehienez hamabost egun ditu, eta gutxienez hamar, egokitzat jotzen dituen agiri eta justifikazioak alegatu eta aurkezteko.

3. Entzunaldiaren tramiteak ebazteko epea etetea eraginen du, alegazioak jaso, aurkezteko epea iragan edo eskatzaileak adierazi arte ez delako alegaziorik egiteko asmorik, ez eta agiririk edo justifikaziorik aurkeztekorik ere.

41. artikulua. Eskaera ebazteko epeak eta isiltasunaren esanahia.

1. Kasu bakoitzean eskumena duen organoak lehenbailehen eman beharko du eskatutako informazio publikoa, edo, bestela, lehenbailehen jakinaraziko dizkio eskatzaileari informazio hori ukatzeko arrazoiak, beranduenik lege mailako berariazko arauetan ezarritako epeetan, eta, aurreikuspenik izan ezean, epe hauetan:

a) Oro har, Administrazioaren edo ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu eta hilabeteko epean, gehienez.

b) Epe hori beste hilabetez luzatzen ahalko da, baldin eta, informazioaren bolumena eta konplexutasuna ikusita, ezinezkoa bada lehen adierazitako epean ematea. Kasu horretan, hamar eguneko epean eskatzaileari adierazi beharko zaizkio ebazpena epe horretan ematea justifikatzen duten arrazoiak.

2. Artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa ukatu gabe, ebatzi eta jakinarazteko ezarritako gehieneko epean berariazko ebazpenik jasotzen ez bada, ulertuko da eskaera baietsi egin dela, salbu eta lege mailako arau batek berariaz ezartzen badu eskatutako informazioa, dena edo parte bat, ukatu egin behar dela.

3. Eskaerak isiltasun administratiboaren bidez baiesten direnean, Administrazio Publikoak behartuta egonen dira eskubide osoa edo partziala aitortzen duen berariazko ebazpena eman eta jakinaraztera, foru lege honetan jasotakoaren arabera.

42. artikulua. Ebazpena.

1. Emandako informazioa bat etorri gero eskatutakoarekin, eta organo eskudunaren iritziz haren edukian ez bada jasotzen hirugarrenen daturik edo hirugarrenen eskubideei edo interesei zuzenean eragiten dienik, eskatzaileak uler dezake informazioa emateko egintza ebazpen administratiboa dela, ebazpena formalizatu beharrik izan gabe. Aurrekoa ez da eragozpena izanen emandako informazioari buruzko zehaztapenak egiteko, eskatzaileak eskaera osatzeko edo hobeki bete zeko eskatzen dituenak, egokia izanez gero.

2. Gainerako kasuetan, ebazpena idatziz formalizatuko da, eta eskatzaileari eta, kasua bada, ukitu den hirugarren pertsonari ere jakinaraziko

zaio. Eskaera osorik edo partez baietsiz gero, informazioaren forma edo formatua adieraziko da, eta, bidezkoa denean, baita informazioa eskuratzeko epea eta inguruabarrak ere; eskubidearen eraginkortasuna eta informazioaren osotasuna bermatu beharko dira ahalik eta epe laburrenean.

Ebazpenak baimena ematen badu informazioa ematearen aurka azaldu den hirugarren bat ukitzen duen informazioa osorik edo partez eskuratzeko, informazioa eskuratzen ahalko da, bakar-bakarrik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea halakorik formalizatu gabe bukatu ondoren, edo, errekurtsoa jarriz gero, informazioa jasotzeko eskubidea berretsiz ebatzi ondoren. Informazioa eskuratzeko eskubidearen etendura hori berariaz adieraziko da ebazpenean.

3. Arrazoituak izanen dira informazioa eskuratzeko osorik edo partez ukatzen duten ebazpenak, baita hirugarren ukituren batek parte hartu arren informazioa eskuratzeko baimentzen dutenak ere, eta, azkenik, informazioa eskatutako forman edo formatuan ez beste batean eskuratzeko aurreikusitako dutenak.

Informazioa badela edo ez dela aipatze hutsa informazioa eskuratzeko eskubideari ezarritako mugetako bat bada, inguruabar hori adierazi beharko da.

4. Informazioa ukatzeko arrazoia hirugarrenek jabetza intelektualeko edo industrialerako eskubidea edukitzea baldin bada, eskubide horien titularraren pertsona fisikoa edo juridikoa zein den adierazi beharko da, ezaguna izanez gero, edo, bestela, zeinek laga duen eskatutako informazioa.

5. Informazio publikoa eskuratzeko arloan emandako ebazpenek bide administratiboa amaitzen dute, eta haien kontrako errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, foru lege honen 45. artikuluan aurreikusitako aukerako erreklamazioa jartzea galarazi gabe.

6. Nolanahi ere, Nafarroako Arartekoak, Kontuen Ganberak eta Nafarroako Kontseiluak emandako ebazpenen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baizik ez da aurkezteko ahalik.

7. Eskatutako informazioaren ezaugarriek horretarako bidea ematen badute, ebazpenaren jakinarazpenarekin batera helaraziko da informazioa.

43. artikulua. Informazioaren forma edo formatua.

1. Organo eskudunak eskatu zaion modu edo formatuan eman beharko du informazioa, non eta honako inguruabarren bat gertatzen ez den:

a) Lehenagotik, informazio hori beste forma edo formatu batean zabaldua izatea, eta eskatzaileak hori errazki eskuratzeko badu. Kasu horretan, eskatzaileari adierazi beharko zaio non eta nola eskura dezakeen informazio hori, edo bestela, daukan formatuan helaraziko zaio.

b) Organo eskudunari zentzuzkoa iruditzea informazioa beste forma edo formatu batean jartzea eskatzailearen eskura, eta egoki justifikatzen badu.

Informazioa "in situ" eskuratzeko jatorrizko euskarria galtzea edo hondatzea ekar dezake, kopia formatu jakin batean egitea ezinezkoa denean ez dagoelako ekipamendu teknikorik eskura, edo informazioa eskatutako modalitatean ematea jabetza intelektualeko eskubidea urratu baldin bidezkoa, bidezkoa izanen da informazioa beste modu edo formatu batean ematea eskatzaileari.

Orobat, bidezkoa izanen da eskatzaileari beste forma edo formatu batean ematea informazioa baldin eta errazagoa edo ekonomikoagoa bada altxor publikoarentzat.

2. Ondorio horietarako, ahaleginak egiten dira informazio publikoa telekomunikazio informatikoen edo beste baliabide elektroniko batzuen bidez aise eskuratu eta erreproduzitzeko moduan edo formatuetan gordetzeko, eta, ahal dela, formatu irekietan emanen da.

3. Organo eskudunak ebazten duenean informazioa eskatutako modu edo formatuetan ez ematea, ez osorik ez zati batez, eta beste modu batean egiten badu, eskatzaileari justifikatu beharko dio eskuratzeko eskubidea onartzen den ebazpenean.

44. artikulua. Informazioa in situ eskuratzeko doakotasuna, eta tasa eta prezioak.

1. Zerbitzu hauek doakoak dira:

a) Foru lege honen II. tituluan aipatzen den informazioa eskuratzeko, baita bestelakoa ere, kontraktorik xedaturik ez badago.

b) Eskatutako informazioa gordetzen den tokian berean aztertzea.

c) Informazioa posta elektronikoaren bidez edo balio bereko beste sistema elektroniko baten bidez ematea.

2. Artxibo, liburutegi eta museoaren kasuan, berariazko legediak xedatutakoari jarraikiko zaio doakotasunari edo ordainketari dagokionez.

3. Kopia egiteagatik eta informazioa gordetzen duen jatorrizkoaz beste formatu batera era-

mateagatik diru-kopuru bat ordaintzea eska liteke, baina lan horien kostua gainditu gabe.

Administrazio Publikoak tasak ezartzeko, tasa eta prezio publikoei buruzko araudi aplikagarrian ezarritakoari jarraikiko zaio.

4. Desgaitasuna duten eskatzaileek informazio publikoa eskuratzen laguntzeko egin beharreko egokitzapenek edo doikuntzek ez dute inola ere kostu gehigarririk ekarriko haientzat.

5. Informazioa gordetzen duten unitate, organo edo entitateek eskaera bakoitzari dagozkion tasa eta prezioen zerrenda prestatu, argitaratu eta informazio publikoaren eskatzaileen eskura jarriko dute, inolako ordainketarik egin behar ez den kasuak ere zehaztuta.

III. KAPITULUA Aurkaratze araubidea.

45. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari erreklamazioa aurkeztea.

1. Informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako berariazko nahiz presuntziosko ebazpenen kontra erreklamazioa aurkezten ahalko da, aukerakoa, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan, administrazioarekiko auzien bidean aurkaratu aurretik.

2. Kapitulu honetan aurreikusitako erreklamazioa errekurtsio administratiboan ordezkatuz joko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian xedatutakoarekin bat.

3. Erreklamazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo isiltasun administratiboa ondorioak izan eta biharamunetik hasita edozein unetan.

4. Erreklamazioa tramitatzean, indarreko lege-riak errekurtsioei buruz xedatutakoari jarraikiko zaio.

5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehiengo epea hiru hilabetekoa izanen da, eta, epe hori iraganik, erreklamazioa ezetsi dela ulertuko da.

6. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako ebazpenak, barnean dituzten datu pertsonalak behin kendu, eta interesdunei jakinarazi ondoren, bitarteko elektronikoen bidez argitaratuko dira erregelamenduz ezartzen den moduan.

7. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako egintzak administrazioarekiko auzien bidean aurkaratzen ahal dute horretarako legitiimitatea dutenek.

8. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako egintzak lotesleak izanen dira foru lege honen 2. eta 3. artikuluen arabera betebeharra duten subjektuentzat.

IV. TITULUA Interes taldeak.

46. artikulua. Interes taldeak.

Foru lege honen ondorioetarako, interes talde-tzat joko dira, edozein estatutu juridiko izanik ere, jarduerak Nafarroan betetzen dituzten erakunde edo pertsonak, profesionalki, jarduera osoan edo zati batean, hauetan aritzen direnak: araugintzako politikak edo arau-xedapenak egiteko prozesuetan eragitea, zuzenean nahiz zeharka, edo horien aplikazioan, edo erabakiak hartzean, norbere interesak, hirugarrenenak edo erakundeenak edo interes orokorrak ere defendatuz; hori, halere ez da eragozpena izanen biltzeko eta informazioa eskuratzeko edo eskariak egiteko banakako esku-bideez baliatzeko.

Era berean, interes taldeak dira plataformak, sareak edo jarduera kolektiboko beste modu batzuk, nortasun juridikorik izan gabe ere, eragin-iturri antolatua direnean eta Erregistroaren aplikazio-esparruan sartutako jarduerak betetzen dituztenean.

47. artikulua. Interes taldeen erregistro publikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen eta 5.000 biztanletik gora dituzten toki entitateen eremuan, Interes Taldeen Erregistro Publiko bat sortuko da –eta hartan nahitaez inskribatu beharko dute foru lege honen 46. artikuluan aipatzen diren subjektu, erakunde eta enteek–, haren aurrean betetako jarduera guztien identifikazioa eta kontrola errazteko, erabilitako bidea edo bitartekoa edozein dela ere.

2. Erregistroak publizitatea emanen du interes taldeen jarduketari buruz, bereziki agintariekin, kargudunekin, hautetsiekin edo diputatuekin egindako bilerei buruz eta hizpide izandako gaiei buruzko komunikazioei, txostenei eta bestelako ekarpenei buruz.

3. Erregelamenduz arautuko da erregistroaren sorrera, haren mendekotasun organiko eta funtzionala, bertan inskribatu behar diren pertsonen eta erakundeen sailkapena, aitortzaileei eskatutako informazioa, jokabide kodearen eduki zehatza, salaketak ikertu eta tramitatzeko prozedura eta inskripzioak eteteko eta bertan behera uzteko zehapenak ezartzeko eskudun diren organoak, bai eta funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren beste gai guztiak ere.

48. artikulua. Erregistroan sartu gabeko pertsonak eta jarduerak.

Erregistrotik kanpo egonen dira aholkularitza juridikoa edo profesionala emateko jarduerak, legearen esparruan edo prozedura administratiboen ukitutako interesen defentsan egindako bateratze edo bitartekaritza jarduerekin lotutakoak, bai eta aholkularitza eginkizunak ere, xede informatiboekin egindakoak ordenamendu juridikoak ezarritako eskubideak edo ekimenak baliatzeko.

49. artikulua. Erregistroaren gutxieneko edukia.

Erregistroan, gutxienez, honakoak sartuko dira:

a) Politika publikoen prestaketan eta aplikazioan eragina izateko xedearekin jarduten duten pertsonen eta erakundeen zerrenda bat, kategorien arabera ordenatua, eta haien egoitzak ere adierazita.

b) Betetzen dituzten jardueri buruz eman behar duten informazioa, bakoitzaren interes esparrua eta finantzabideak adierazita, bai eta jasotako funts publikoak ere.

c) Guztientzako jokabide kode bat.

d) Kontrol eta fiskalizazio sistema, ez betetze kasuetan salaketarako eta foru lege honetan edo jokabide kodean ezarritakoa betetzeko tresnak ezarri behar dituenak.

e) Interes taldeen jarduketari buruzko informazio publikoa, bereziki goi kargudunekin edo parekoekin egindako bilerei buruzkoa eta hizpide izandako gaiei buruzko komunikazioei, txostenei eta bestelako ekarpenei buruzkoa.

50. artikulua. Erregistroan inskribatzeak dakartzan betebeharrak.

1. Interes Taldeen Erregistroan inskribatzeak betebeharrak hauek dakartza:

a) Emandako informazioa publiko egitea onartzea.

b) Emandako informazioa osatua, zuzena eta fidagarria dela bermatzea.

c) Jokabide kodea betetzea.

d) Kontrol eta fiskalizazio araubidearen aplikazioa eta kasuan kasuko neurriak onartzea, jokabide kodea edo foru lege honetan ezarritakoa betetzen ez bada.

2. Aitortzaileek jakinarazi beharko diete instituzioei zer jarduera betetzen dituzten, zer bezero, pertsona edo erakunderentzat egiten duten lan, eta jasotzen dituzten diru kopuruak, hala bada, eta

interes talde bezala betetzen duten jarduera dela eta dituzten gastuak.

51. artikulua. Jokabide Kodearen gutxieneko edukia.

49.c) artikuluan aipatzen den jokabide kodean honakoak jaso beharko dira gutxienez:

a) Izenpetzen duen aitortzailearen izena eta datuak.

b) Aitortzaileak ordezkatzeko duen entitatea edo erakundea, edo zeinentzat egiten duen lan, eta haren bezeroen interesak, helburuak edo xedeak zein diren.

c) Aitortzailearen konpromisoa, informazioa zintzotasunik gabe ez eskuratzekoa edo eskuratzeko ez sailatzekoa, eta erabakiak hartzean ez eragitekoa.

d) Aitortzailearen konpromisoa, erregistroan inskribatzean informazio eguneratu gabea eta engainuzkoa ez emateko eta etengabe eguneratuta mantentzeko.

e) Agintariak, kargu publikoak, diputatuak edo funtzionarioak legea edo jokabide kodeak ezarritako portaera arauak haustera inongo modutan ez bultzatzeko konpromisoa.

f) Foru lege honek edo jokabide kodeak ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean hartzen diren neurriak onartu eta betetzeko konpromisoa.

52. artikulua. Ez-betetzeetan aplikatu beharreko neurriak.

1. Foru lege honek edo jokabide kodeak ezarritako betebeharrak ez betetzeak interes taldeen erregistroko inskripzioa aldi batez etetea ekar dezake edo, ez betetzea astuna bada, inskripzioa bertan behera uztea, eta zehapena erregistroan argitaratuko da.

2. Edozein pertsonak du legitimitatea egitate materialetan oinarritutako salaketa bat aurkezteko, susmatzen badu titulu honetan jasotako pertsonen edo erakundeek legeak edo jokabide kodeak ezarritako betebeharrak ez dituela betetzen.

3. Salaketak tramitatzeko eta ikertzeko prozedura Erregistroaren arduradunek beteko dute, eta ukitutakoari entzunaldia ematea bermatu beharko da.

4. Erregistroko inskripzioaren eteteak eta deuseztatzeak berekin dakarte ukitutako pertsonen eta, kasua bada, haiek partaide direneko erakundeek eskuragarri ez izatea erakundeen eta organismo publikoen bulego eta zerbitzuetarako sarbidea, eta zehapena Erregistroan argitaratzea.

53. artikulua. Titulu honen arau-garapena.

Erregelamenduz arautuko da Interes Taldeen Erregistroan inskribatu behar diren pertsonen eta erakundeen sailkapena, aitortzaileei eskatuko zaien informazioa, jokabide kodearen eduki zehatza eta salaketak ikertu eta tramitatzeko prozedura.

V. TITULUA Zehapen araubidea

54. artikulua. Arau orokorrak

1. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik titulu honetan aurreikusitakoaren arabera zehapena ezarriko da, izan litezkeen bestelako erantzukizunak ukatu gabe.

2. Titulu honetan jasotako zehapen araubidea ez da aplikatuko egitateak arau-hauste penala izan daitezkeenean, ez eta, legearekin bat, erantzukizun administratiboko edo izaera jurisdikzionaletako beste araubide bat aplikatzeko izan daitekeenean, betiere subjektu eta oinarriak berberak badira.

3. Foru lege honetan araututako arau-hausteez eta zehapenek bost, hiru eta urtebetera preskribatuko dute, erantzukizun oso astunak, astunak edo arinak izan, hurrenez hurren, horrek ukatu gabe diziiplina izaerako arau-hauste eta zehapenetan aplikatzekoak diren epeak, aplikatzeko den araudiari jarraikiz.

Preskripzio epeak kontatzeko, eta epeak eteteko arrazoiak zein diren jakiteko, administrazio prozedurari buruzko oinarriko araudian xedatutakoa beteko da.

55. artikulua. Subjektu erantzuleak.

1. Kapitulu honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzuleak hauek dira:

a) Foru lege hau aplikatzekoak zaien Administrazioaren eta instituzio eta erakunde publikoen zerbitzuko goi kargudunak eta langileak, arau-haustetzat tipifikatutako egintza edo ez-egitea egozten ahal zaienean, esleiturik dituzten eginkizun eta eskumenekin bat.

b) 3. artikuluan aurreikusitako entitate eta pertsona fisiko eta juridikoak, esleiturik dituzten eginkizun eta eskumenekin bat.

56. artikulua. Diziiplina arloko arau-haustek.

2. artikuluan adierazitako entitateen zerbitzuko agintariei, zuzendaritza taldeko kideei eta langileei honako arau-hauste hauek egozten ahalko zaizkie:

1. Arau-hauste oso astunak:

a) Publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak edo beharrak edo informazio publikoa ematekoak ez betetzea, organo eskudunen errekerimendu espresua bete ez bada lau alditan baino gehiagotan bi urteko epean.

b) Informazio partziala eman, informazio garrantzitsua isilean gorde edo manipulatzeko, herritarren iritzia sortzen eragina izateko xedeaz.

c) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen ukazio arbitrarioa.

d) Informazioa dohainik jasotzen den kasuetan informazioa eskuratzeko aukera kontraprestazio batekin baldintzatzea.

e) Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak informazio publikoa eskuratzeko arloko erreklamazioei buruz emandako ebazpenak lau alditan baino gehiagotan ez betetzea bi urteko epean.

f) Arau-hauste astun bat egitea ebazpen irmo bidez beste zehapen bat jaso ondoren izaera bereko arau-hauste batengatik urtebeteko epean.

2. Arau-hauste astunak:

a) Publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak edo beharrak edo informazio publikoa ematekoak ez betetzea, organo eskudunen errekerimendu espresua bete ez denean lau alditan baino gehiagotan bi urteko epean.

b) Informazio partziala edo osatugabea ematea herritarrek aztertu beharreko proposamenei buruz, halako moduan non horrek parte-hartze prozesuaren esanahia edo emaitza aldatzen ahal baitu.

c) Herritarren parte-hartze prozesuek, berak aztertu dituenek, izandako emaitzari buruzko informazioa isilean gordetzea.

d) Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak informazioa eskuratzeko arloko erreklamazioei buruz emandako ebazpenak bi alditan baino gehiagotan ez betetzea bi urteko epean.

e) Politika publikoen eta zerbitzu publikoen ebaluazioari buruzko informazioa isilean gordezea.

f) Informazio publikoa eskuratzeko eskaera epean ebazteko betebeharra ez betetzea bi alditan baino gehiagotan urtebeteko epean, justifikatutako arrazoirik gabe.

g) Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ukitutako hirugarrenei entzunaldia emateko tramieta ez betetzea, hirugarrenen argi identifikaturik badaude.

h) Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak arrazoitu gabe ezestea.

i) Informazioa ulertzea modu agerikoan galazten edo oztopatzen duten formatu edo baldintzetan ematea, nahita.

j) Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan aurkezten diren erreklamazioak tramitatzen ez laguntzea.

k) Egiazkotasunaren printzipioak dakartzan betekizunak bete gabe ematea informazioa.

l) Nafarroako Arartekoan aurkezten diren kexak tramitatzen ez laguntzea.

m) Arau-hauste arin bat egitea izaera bereko beste arau-hauste batengatik ebazpen irmo bidez beste zehapen bat jasotzen denetik urtebeteko epean.

3. Arau-hauste arinak:

a) Publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak ez betetzea arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean.

b) Informazio publikoa eskuratzeko eskaera epean ebazteko betebeharra justifikaziorik gabe ez betetzea.

57. artikulua. Beste pertsona eta entitate batzuen arau-haustekak.

3. artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateei honako arau-hauste hauek egozten ahal zaizkie:

1. Arau-hauste oso astuna:

a) Publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak edo beharrak ez betetzea, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren edo administrazio publiko eskudunen errekerimendu espresua bete ez bada lau alditan baino gehiagotan bi urteko epean.

b) Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak egindako errekerimenduaren ondorioz edo Kontseiluak informazioa eskuratzearan arloan emandako ebazpen bat betetzeko erreklamatu zaien informazioa emateko betebeharra ez betetzea lau alditan baino gehiagotan bi urteko epean.

c) Arau-hauste astun bat egitea izaera bereko beste arau-hauste batengatik ebazpen irmo bidez beste zehapen bat jasotzen denetik urtebeteko epean.

2. Arau-hauste astuna:

a) Publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak edo beharrak ez betetzea, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren edo administrazio

publiko eskudunen errekerimendu espresua bete ez bada bi alditan baino gehiagotan bi urteko epean.

b) Egiazkotasunaren printzipioak dakartzan betekizunak bete gabe argitaratzea informazioa.

c) Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak egindako errekerimenduaren ondorioz edo Kontseiluak informazioa eskuratzearan arloan emandako ebazpen bat betetzeko erreklamatu zaien informazioa emateko betebeharra ez betetzea bi alditan baino gehiagotan bi urteko epean.

d) Informazio eskaerari ez erantzutea.

e) Foru lege honetan ezarritako erregistro betebeharrak edo foru lege honen 57. artikuluan ezarritako jokabide kodearen gutxieneko edukia osatzen duten konpromisoak ez betetzea modu agerikoan.

3. Arau-hauste arina:

a) Publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak, aplikatzekoak, ez betetzea arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean.

b) Informazioa ematea atzeratzea justifikaziorik gabe.

c) Informazio modu partzialean ematea edo eskatutakoak ez diren baldintzetan.

d) Foru lege honek ezarritako erregistro betebeharrak edo foru lege honen 57. artikuluan ezarritako jokabide kodearen gutxieneko edukia osatzen duten konpromisoak betetzean izandako irregulartasunak.

58. artikulua. Diziiplina zehapenak.

Foru lege honen 2. artikuluan aurreikusitako entitateen zerbitzuko langileei egozten ahal zaizkien arau-hausteei aplikatuko zaizkien zehapenak kasu bakoitzean aplikatzekoa den diziiplina araubidearen arabera dagozkienak izanen dira.

59. artikulua. Beste entitate eta pertsona batzuei aplikatu beharreko zehapenak.

1. 57. artikuluan aurreikusitako arau-hausteei zehapen hauek aplikatuko zaizkie:

a) Arau-hauste oso astunak egiteagatik:

Lehen a. 6.001 eta 12.000 euro arteko isuna.

Bigarren a. Administrazioarekin kontratatutako aukera etetea, gehienez ere sei hilabetez.

Hirugarren a. Laguntza publikoak jasotzeko desgaitzea, urtebetetik bost urtera bitarteko epean.

Laugarrena. Emandako diru-laguntza osorik edo zati batean itzultzea, edo ezarritako kontratua, ituna edo lotura suntsiaraztea, horiek arautzen dituen egintza edo agiri administratiboan jasotako moduan.

Bosgarrena. Interes Taldeen Erregistroan egindako inskripzioa deuseztatzea behin betiko.

b) Arau-hauste astunak egiteagatik:

Lehena. 600 eta 6.000 euro arteko isuna.

Bigarrena. Laguntza publikoak jasotzeko desgaitzea, gehienez ere urtebetez.

Hirugarrena. Interes Taldeen Erregistroko inskripzioa etetea, gehienez ere urtebetez.

Laugarrena. Emandako diru-laguntza osorik edo zati batean itzultzea, edo ezarritako kontratua, ituna edo lotura suntsiaraztea, horiek arautzen dituen egintza edo agiri administratiboan jasotako moduan.

c) Arau-hauste arinak egiteagatik, ohartarazpena edo 200 eta 599 euro arteko isuna.

2. Zehapenaren norainokoa zehazteko aplikatu beharreko irizpideak araubide juridikoaren eta administrazio prozeduraren gaineko legerian ezarritakoak dira. Baloratzen da, halaber, interes publikorako kalterik ote dagoen, jokabidearen ondorioak herritarrengan eta eragindako kalte ekonomikoak edo ondarekoak, baldin badaude.

60. artikulua. Prozedura.

1. Titulu honetan ezarritako zehapenak ezartzeko, zehapen prozeduran aurreikusitako xedapenak aplikatuko dira edo, Administrazioaren eta beste entitate batzuen zerbitzuko langileei egozten ahal zaizkien arau-hausteen kasuan, funtzionarioen, estatutupekoen edo lan-kontratudunen diziplina araubidea, kasu bakoitzean aplikatzeko dena.

2. Prozedura ofizioz hasiko da beti, organo eskudunaren erabakiaren bidez, dela organoaren beraren ekimenez, dela goiko agintarien agindu baten ondorioz, beste organo batzuen arrazoibidezko eskaeraren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.

3. Edozein herritarrek aurkezten ahalko du salaketa foru lege hau ez-betetzea dela eta, eta eskubidea izanen du erantzun arrazoitua jasotzeko salaketa aurkeztu eta hilabeteko epean. Salaketa eta erantzuna kasuan kasuko web orrian edo atarian argitaratuko dira, datu pertsonalak kendu ondoren.

4. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak eskatuko du espedientea irekitzea, gai honetan arau-hausteak gertatu direla dakienean, titulu honetan aurreikusitako arau-hausteen kalifikazioa izan dezaketenak. Organo eskudunak egintza espresu eta arrazoituaren bidez baizik ez du atzera botatzen ahal prozedura irekitzea, eta Kontseiluari jakinarazi beharko dio.

61. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

1. Subjektu arau-hauslea zein administrazio edo entitatetako den, horri aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen organoari dagokio diziplina zehapenak ezartzeko eskumena, edo, kasu bada, subjektu arau-hausleak zer administrazio edo entitatekin duen lotura, horri aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen organoari.

2. Arau-hausteak Foru Komunitateko Administrazioari eta menpeko erakunde eta entitateetako goi kargudunei eta zuzendaritzako langileei egoztekoak direnean, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 19. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bertan ezartzen baitira zehapen ahalmenaren titular diren organoak.

3. Erantzulea pertsona edo entitate pribatu bat denean, funts publikoen kargura jasotzen dituen laguntzak edo diru-laguntzak edo sektore publikoarekin dituen kontratuak edo hitzarmenak direla eta informazioa eman beharra duena, diru-laguntza edo laguntza ematen duen edo kontratua edo hitzarmena izenpetua duen departamentuko titularrarena izanen da eskumena.

Diru-laguntza edo laguntza publikoak departamentu batekoak baino gehiagokoak direnean, edo kontratua entitate batzuen artean izenpetzen denean, zenbateko handiena eman duen edo prestazioetan edo prezioan zama handiena bere gain hartzen duen departamentuko titularra izanen da eskuduna.

Informazioa emateko betebeharra dagozkion eginkizun edo ahalmen publikoen ondorioa denean, horiek zein arlotan betetzen diren, arlo horretako departamentuko titularra izanen da eskuduna.

4. Erantzulea pertsona fisiko edo juridiko bat denean, foru lege honetan aurreikusitako betebeharrak benetan betetzeko beharrezkoa den informazioa Administrazioari emateko betebeharra dela eta, informazioa zer departamenturi eman behar dion, departamentu horretako titularrak izanen du eskumena.

62. artikulua. Zehapenen publizitatea.

Foru lege honetan aurreikusitako arau-hauste astun eta oso astunak egiteagatik ezartzen diren zehapenak Gobernu Irekiaren Atarian emanen dira argitara, horrek ukatu gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar diren kasuak.

VI. TITULUA**Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.****63. artikulua.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak, Nafarroako Foru Komunitatean gardentasuna sustatu behar duen organo independente gisa, publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla zainduko du eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuko.

2. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari atxikita egonen da organikoki; eta, foru lege honek ematen dizkion eginkizunak betetzean, objektibotasunez, profesionaltasunez, ordenamendu juridikoa errespetatuz, autonomiaz eta erabateko independentziaz jardunen du.

64. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak.

1. Hauek dira Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Informazio publikoa eskuratzearen arloan ematen diren berriazko edo presuntziozko ebazpenen kontra aurkezten diren erreklamazioak aztertzea.

b) Lege honetan jasotako betebeharren ez-betetzeen zuzenketa eskatzea, berak hala erabakita edo salaketa edo erreklamazio baten ondorioz.

c) Gardentasunaren arloan legea garatzen duten edo arlo horrekin loturik dauden arau proiektuei buruzko aginduzko txostenak ematea.

d) Gardentasun betebeharrak dituzten entitate eta erakundeek horiek noraino aplikatu eta betetzen dituzten ebaluatzea; betebeharrak horiek hobeki betetzeko gomendioak ere egiten ahalko ditu.

e) Foru lege honetan jasotako betebeharren interpretazio bateraturako irizpideak hartzea.

f) Publizitate aktiboaren eta informazioa eskuratzeko eskubidearen arloan horretarako betebeharrak duten entitate eta instituzioek egindako kontsultak ebaztea.

g) Memoria bat egitea urtero, entitateek eta instituzioek gardentasun arloko betebeharrak betetzen dituztela zaintzeko egindako lanari buruzkoa, ondoren Nafarroako Parlamentuan aurkeztu beharko duena. Memoria horretan, Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legeak ezarritako betebeharrak betetzeari dagokion atal berriazkoa ez ezik, jasoko dira, halaber, tramitatutako erreklamazioak eta kontsultak, Kontseiluaren iritziz egokiak zirelako egindako gomendioak edo errekerimenduak, eta, diziplina espedienteak edo zehapen espedienteak irekitzeko eskaera egin bada, horien aipamena ere.

h) Diziplina edo zehapen espedienteak irekitzeko eskatzea V. tituluko aurreikuspenekin bat.

i) Hertsapen-isunak ezartzea, foru lege honen 69. artikuluan ezarri bezala.

j) Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea.

k) Antzeko izaera duten organoekin elkarlanean aritzea berezkoak dituen gaitetan.

l) Lege edo erregelamendu mailako arauen bidez emandako gainerako eginkizunak.

65. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua lehendakariak eta kide hauek osatuko dute:

a) Nafarroako Parlamentuko lau kide, Nafarroako Parlamentuan dauden taldeen arabera aintzasun irizpidea aintzat hartuta izendatutakoak.

b) Gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuaren ordezkari bat.

c) Nafarroako Toki Entitateen hiru ordezkari, Nafarroako Foru Komunitatean kide gehien dituzten udal elkarte edo federazioek proposatuak.

d) Nafarroako Kontseiluaren ordezkari bat.

e) Kontuen Ganberaren ordezkari bat.

f) Nafarroako Arartekoaren ordezkari bat.

g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkari bat.

Kasuan kasuko erakunde edo organoari dagokio bere kontseilukidea izendatzeko prozedura, eta horrek, gainera, ordezkari bat izendatzen ahaliko du, titularra eri, kanpoan edo aldi baterako ezintasun egoeran dagoenerako.

2. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria Nafarroako Parlamentuak hautatuko du izen eta gaitasun profesional handiko pertsonen artean, erabateko gehiengoaz, Parlamen-

tuko taldeek proposatutako hautagaitzetatik; Nafarroako Gobernuak izendatuko du foru dekretu bidez, lau urteko epe ez-luzagarriko.

Haren kargu-uztea gertatuko da berak uko eginda, heriotzaren ondorioz edo epai bidez ezgaitua izan ondoren. Bestalde, Nafarroako Parlamentuak gehiengo osoz hala eskatuta utzi behar du kargua, eginkizunen ez-betetze larriagatik, zereginak betetzeko izendatu ondoren sortutako ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo doloeko delitua dela-eta zigorra jasotzeagatik.

Apartatu honetan aipatzen den agintaldia ahituta, une horretan karguan ari denak eginkizunetan jarraituko du izendapen berria egiten den arte.

3. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak lau urterako izendatuko ditu Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko buruak proposatuta, kasuan kasuko entitateek edo erakundeek hautatu ondoren.

Haren kargu-uztea gertatuko da berak uko eginda, ordezkariaren eta ordezkatzan duen entitatearen arteko lotura desagertzen denean, heriotzaren ondorioz edo epai bidez ezgaitua izan ondoren, bai eta proposatu dituen entitateak edo erakundeak hala eskatzen duenean ere, haien eginkizunen ez-betetze larriagatik, zereginak betetzeko izendatu ondoren sortutako ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo doloeko delitua dela-eta zigorra jasotzeagatik.

Agintaldia ahituta, une horretan karguan ari denak eginkizunetan jarraituko du izendapen berria egiten den arte.

4. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide izateak ez dakar erabateko dedikaziorik, ez eta inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik ere. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria izatea bateraezina da Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Administrazio goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko legerian aipatzen diren karguetako edozeinekin, bai eta alderdi politiko bateko kide izatearekin ere, hautaketaren aurreko 4 urteak aintzat harturik.

66. artikulua. Kontseiluko lehendakariaren eginkizunak.

1. Honakoak dira lehendakariaren eginkizunak:

a) Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren ordezkaria izatea eta harremana izatea Kontseilura jotzen duten herritarrekin eta antzeko izaera duten autonomia erkidegoetako edo estatu-ko organoetako titularrekin.

b) Lege honetan jasotako betebeharrak betetzen direla zaintzea, atzemandako balizko ez-

betetzeen berri ematea organo eskudunari, eta, kasua bada, diziiplina edo zehapen espedienteak irekitzeko eskatzea V. tituluan aurreikusitakoarekin bat.

c) Kontseiluaren bilkuretako gai zerrenda eta deialdia egitea, eta bertan buru eta moderatzaile lanak betetzea, kalitatezko botoarekin.

d) Nafarroako Parlamentuari aurkeztean foru lege honetan aurreikusitako memoria.

e) Gai hauetan lan egitea antzeko izaera duten organoekin, estatukoak edo autonomia erkidegoak izan.

f) Karguari dagozkion gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Kontseiluko lehendakariaren kargua hutsik dagoenean, kanpoan edo eri dagoenean edo legezko beste arrazoi bat dagoenean, kontseiluko lehendakariaren ordezkariaren Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide zaharrena arituko da, lege honen 65.4 artikuluan ezarritako bateraezintasun araubidea betetzen badu.

67. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendua organo horrek onetsi beharreko erregelamenduak zuzenduko ditu. Erregelamendu hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

2. Gardentasun-eginkizunak eta informazio publikoa eskuratzekoak betetzeko, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren laguntza juridikoa, teknikoa eta administratiboa izanen du, bai eta beharrezkoak diren harengandiko bitarteko pertsonalak nahiz materialak ere.

68. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarekiko lankidetzak.

Nafarroako Administrazio publikoek eta lege honen 2.1 artikuluan, 2.2 artikuluko b) eta c) letretan eta 3. artikuluan aipatzen diren gainerako erakunde eta entitateek eman beharko diote Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari eskatzen dien informazioa eta haren eginkizunak betetzeko behar den laguntza guztia.

69. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren egintzak eta ebazpenak betetzea.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren Informazioa eta dokumentazioa eskatzeko egintzak eta emandako ebazpenak lotesleak izanen dira foru lege honen 2. eta 3. artikuluen arabera

betebeharra duten administrazio publiko, entitate eta pertsonentzat, salbu eta haren menpe ez dauden Nafarroako Foru Komunitateko instituzio publikoentzat.

2. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak bere egintzak edo ebazpenak benetan betetzen direla zainduko du. Horretarako, egintzan edo ebazpenean xedatzen ahal du norke bete behar duen, betetzeko zer neurri behar diren, eta, hala badagokio, betetzeak eragindako gorabeherak ebatzi.

3. Aldeek behar diren betetze neurriak proposatzen ahal dizkiote Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari egintzak eta ebazpenak benetan betetzen direla bermatzeko.

4. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak, jakinez gero bere eskumenen esparruan emandako egintza edo ebazpen bat ustez ez dela betetzen ari, ofizioz edo aldeetako batek eskatuta eskatzen ahal die agintariei, entitateei, enplegatu publikoei edo partikularrei, dagokienei, hura bete dezatela ezartzen zaien epean eta horren berri eman dezatela.

Ezarritako epea iraganik eta Kontseiluak ikusten badu egintza edo ebazpena osotara edo zati batean ez dela bete, neurri hauetako edozein hartzen ahalko du:

a) 500 eurotik 5.000 eurora bitarteko heretsapen-isuna ezarri Kontseiluaren egintzak edo ebazpenak betetzen ez dituzten administrazio, entitate, agintari, enplegatu publiko edo partikularrei; isun hori hamar egunetik behin errepikatzen ahal da agindutakoa osorik bete arte.

b) Erantzuleen jarrera, ez betetzearena, argitara eman web orrian, urteko txostenean eta hedabideetan, eta Nafarroako Parlamentuari jakinaraztea, jokabide horren berri izan dezan.

5. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak edozein administrazio edo botere publikoren laguntza eskatzen ahal du, bere ebazpenak eraginkorrak izatea bermatzeko, eta horiek lehentasunez eta lehenbailehen emanen diote laguntza hori.

Lehen xedapen gehigarria. Foru lege hau Nafarroako Parlamentuari aplikatzea.

1. Foru lege honetako gardentasun-printzipioak Nafarroako Parlamentuari aplikatuko zaizkio haren Erregelamenduaren bidez eta gainerako garapen-eta aplikazio-arauen bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak gardentasun-gaie tan emandako ebazpenek agortu egiten dute bide administratiboa, eta ezin izanen zaie hautazko

errekurtsorik jarri Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren aurrean. Haien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa besterik ezin izanen da aurkeztu.

Bigarren xedapen gehigarria. Gardentasuna eta Gobernu Irekia ezartzeko Departamentuarterko Batzordea.

1. Nafarroako Gobernuak Gardentasunerako eta Gobernu Irekirako Departamentuarterko Batzordea sortuko du, zeregin hauetaz arduratzeko unitate gisa: oro har, foru lege honetatik sortzen diren neurrien ezarpena bultzatu eta koordinatzea, haien ezarpen maila baloratzea, eta, kasua bada, behar diren neurri zuzentzaileak sustatzea foru lege honetan jasotako xedapen guztiak guztiz eraginkorrak izan eta bete daitezela lortzeko.

2. Jarraipen Batzordeko burua gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak izanen da, eta horrez gainera, kide hauek ere izanen dira batzordean: Lehendakartzaren eta Gobernu Irekiaren, teknologia berrien, administrazio elektronikoaren eta herritarren arretaren arloetan eskumenak dituzten zuzendaritza nagusietako titularrak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu-arlo bakoitzetik ordezkari bat bederen, gutxienez zuzendari nagusi izanen direnak.

3. Batzordeak, urtero, txosten bat prestatu eta argitaratuko du foru lege honen aplikazio mailari buruz, eta, lau urtean behin, haren aplikazioaren gaineko ebaluazio bateratua eginen du, eraginkorragoa izateko hobekuntzak proposatuz.

4. Era berean, aldi behin, informazio publikoa emateko jasotako eskakizunei buruzko informazio estatistikoa prestatu eta argitaratuko du, baita foru lege honen aplikazioan eskuratutako eskarmentuari buruzko informazioa ere, betiere informazio publikoaren eskatzaileen konfidentzialtasuna bermatuko duela.

5. Batzordeak, bere eginkizunetan jarduteko, horretarako izendatuko den batzorde tekniko baten laguntza izanen du.

Hirugarren xedapen gehigarria. Publizitate aktiboaren betebeharrak betetzeko epea.

1. Hirugarren xedapen gehigarri honen 2. atalean xedatutakoa ukatu gabe, I. titularen aplikazio esparruan sartutako entitateek behar diren neurriak hartuko dituzte foru lege honetan publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak berriek eragindako informazioa eskura egon dadin egoitza elektronikoan edo web orrian urtebeteko gehiengo epean, foru lege honek indarra hartzen duen egunetik aurrera.

2. Toki entitateek bi urte izanen dituzte gehieze ere foru lege honetan jasotako betebeharrak egokitzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezarritakoez harago doazen heinean.

Laugarren xedapen gehigarria. Interes taldeen erregistro publikoa sortzea.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean Interes Taldeen Erregistro Publikoa sortuko da, IV. tituluan aipatzen dena.

Bosgarren xedapen gehigarria. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileentzako sentsibilizazio eta prestakuntza neurriak.

Gobernuak, foru lege hau abian jartzean, gardentasunaren arloko prestakuntza plan bat onetsiko du, Nafarroako Administrazio publikoetako funtzionario eta langileei zuzendua, eta, horrekin batera, informazio kanpaina bat egingen du herritarrei eta gardentasun betebeharrak ukitutako entitate pribatuei begira.

Seigarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren ebaluazio orokorra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik bi urteko epea iraganik, Nafarroako Gobernuak, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren bidez, aplikazioaren ebaluazioari buruzko txosten bat egingen du eta Nafarroako Parlamentura igorriko.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziak.

1. Foru lege hau aplikatzeko izanen da, orohar, 2. artikuluan aurreikusitako Administrazio publikoen, instituzio publikoen eta entitateen informazio publikoa eskuratzearekin zerikusia duen jardura guztian.

Ingurumenari, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari, artxiboei eta dokumentu historikoei eta diru-laguntzei buruzko informazioa eskuratzeko foru lege honetan xedatutakoak zuzenduko du, salbu eta lege maila duen araudi bereziak informazio hori eskuratzeko mugak ezartzen baditu, interes publiko zehatz batzuk edo datu pertsonalak babestearren.

Aurrekoa gorabehera, zergen, osasunaren eta poliziaren arloko informazioa eskuratzeko araudi berariazkoak zuzenduko du, bai eta beste edozein informazio ere, lege mailako arau batek berariaz deklaratu duenean informazioak izaera erreserbatua edo konfidentziala duela.

Araudi berariazkoan aurreikusita ez dagoen guztian foru lege hau aplikatuko da osagarri gisa.

2. Kasu guztietan, edozein dela ere aplikatzeko den araudia, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak eskumena izanen du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea betetzen dela zaintzeko eta informazio publikoa eskuratzeko osotara edo partzialki baimendu edo ukatzeko egintzen eta ebazpenen kontrako erreklamazioak aztertzeko, salbu eta Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren, Nafarroako Kontseiluaren eta Nafarroako Arartekoaren kasuan.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Genero-berdintasuna hizkeran.

Pertsona, lanpostu edo karguei buruz ari denean foru lege honek, gaztelaniazko testuan, genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasuetan ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko dela horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, aipatutako pertsonen edo kargu edo lanpostu horien titularren sexua edozein dela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan ondorio juridikoen ikuspegitik.

Xedapen iragankor bakarra. Gardentasun betebeharrak aplikazioa lehenagoko harreman juridikoetan.

3. artikuluan aipatzen diren subjektuak salbuesirik egonen dira eta ez dituzte bete beharko foru lege honetan adierazten diren publizitate aktiboko betebeharrak lege honek indarra hartu aurretik amaitutako kontratuei, diru-laguntzei, itunei edo beste edozein motatako erlazio juridikoei dagokionez, horrek ukatu gabe, betiere, foru lege honen III. tituluko II. kapituluaren ezarritako betebeharrak informazio publikoa eskuratzeari dagokionez.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Berariaz indargabetzen dira Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen II., III., V., VII., VIII. eta IX. tituluak, bai eta foru lege honetan ezarritakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideen agintaldia.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko egungo kideek agintaldia amaitu arte jarraituko dute karguan.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege hau garatzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman eta behar diren neurriak har ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hiru hilabeteko epean hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea".

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea

ATARIKOA

Foru lege honek aldatu egiten ditu Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea eta

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea.

14/2004 Foru Legea ukiturik suertatzen da gobernu ekintzaren etikari eta gardentasunari dagoenez, eta adierazten du interes orokorra eta gardentasuna izanen direla Nafarroako Gobernuko kideen eta Administrazio Publikoko goi kargudunen jardunaren gidari; halatan, herritarrek emandako konfiantzarekin bateraezina da ustelkeria-delituak ustez egiteagatik ikerketako egoera prozesalean dagoenak karguan segitzea. Horrekin batera, hauek ere arautzen dira: interes gatazka ekar dezakeen jarduera pribatu orotan ez abstenitzeko betebeharra; gardentasuna gobernu ekintzan eta kontu-ematean; eta gobernu aldaketetan botere eskualdaketa gardengoa izateko arauak garatzen ditu.

Bestalde, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean, aldatu egiten da 15. artikulua ezartzen duen zehapen-araubidea.

Eta, Arartekoari buruzko Foru Legean, haren eginkizunak gehitu egiten dira, Nafarroako administrazio publikoetako gardentasunik ezagatik kexen aldetik.

Aldaturiko hiru legeen elementu amankomuna da gehiengo osoko legetzat hartuak direla, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Lege berriko xedapenen osagarri-zeregina betetzen dutenak.

1. artikulua. Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeari V. titulu berria, Gobernu ekintzaren etikari eta gardentasunari buruzkoa, gehitzen zaio; honako hau da haren edukia:

"V. TITULUA

Etika eta gardentasuna

64. artikulua Jarduteko printzipioak.

Nafarroako Gobernuko kideen eta Administrazio Publikoko goi kargudunen jardunaren ardatzak interes orokorra eta beren kudeaketaren gardentasuna izanen dira, eta martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen bidez onetsitako Gobernu Onaren

Kodean jasota dauden jokabiderako printzipio etikoak beteko dituzte.

65. artikulua Interes gatazkak.

Nafarroako Gobernuak kideek ez dute izanen beren ardura publikoekin gatazkan egon daitekeen jarduera pribaturik ez eta interesik ere. Interes gatazka bat dagoela joko da batera egokitzen badira, haiek erabaki beharreko gaitan, interes publikoak eta interes pribatuak –beraienak, beraien zuzeneko familiartekoenak edo hirugarren pertsonekin partekatua—. Aurreko guztia aplikatuko da deusetan galarazi gabe foru lege honen 11. artikuluan abstentziorako ezarrita dauden kasuak.

Aurreko apartatuan ezarritakoa Administrazio Publikoko goi kargudunei ere aplikatuko zaie.

66. artikulua Jarduneko Gobernuak.

Jarduneko Gobernuak jarduteko eta erabakiak hartzeko muga batzuk izanen ditu, hain zuzen, foru lege honetan ezarrita daudenak. Gainera, gobernu sartu berriarentzako dokumentazioa egoera onean dagoela bermatu beharko du, eta horretarako, oinarrizko agirien inbentarioak prestatuko ditu, formatu seguru eta praktikoenean, botere-aldaketa errazteko. Inbentario horien helburua izanen da gobernu berriak jarduteko ezinbestekotzat jotzen diren garrantzi publikoko gai eta arxibo bukatugabeen egoera zehatzaren berri ematea, gardentasunez, departamentuz departamentu, eta, orobat, dagokion aurrekontuaren betetze-mailaren egoeraren berri ematea, eta betiere:

- a) Egitura, organigrama eta eginkizunak.
- b) Gauzatzen ari diren programak.
- c) Indarra duten hitzarmenak, gauzatzeari buruzko xehetasunekin.
- d) Ekitaldiko aurrekontuen betetzeari eta erabilgarri dagoen diruari buruzko txostena.
- e) Emandako eta eskatutako finantza maila guztiaren zerrenda.
- f) Onartutako konpromiso ekonomikoaren zerrenda.
- g) Langileen egoerari buruzko txostena.
- h) Aldaketaren unean indarra zuten kontratu guztien zerrenda eta kopia.
- i) Ordaindu gabe dauden obligazio guztien zerrenda eta kopia.

j) Onetsitako xedapen orokor guztien zerrenda, gobernu berriak jabetza hartu ondoren indarra hartuko dutenena.

67. artikulua Gardentasuna Gobernuaren jardueran eta kontu-ematea.

1. Kasuan-kasuan Nafarroako Gobernuak osatzen duten pertsona guztiek konpromisoa hartuko dute gobernu jardueran gardentasunez aritzeko, eta beharturik egonen dira herritarrei beren kudeaketaren kontu-ematea egitera.

2. Horretarako, behar diren tresnak arautu eta ezarriko dira bai Gobernuak, oro har, baita Gobernuak kide bakoitzak ere, nor bere esparruan, hauek egiteko:

a) Herritarrekin konpartitzea politikaren gaineko erabakiak eta kudeaketaren eta inbertsio publikoaren gaineko lorpenak eta zailtasunak.

b) Kontuak ematea baliabide publikoak administratzeko moduz, onetsitako plangintzaren araberakoa izan dadin.

c) Politikaren ekintzak doitzeko baliabideak sortu eta garatu, herritarren eskakizunei egokitzeko.

d) Herritarrei ahalbideak ematea Gobernuaren jarduera osoa kontrolatzeko, eta herritarrek jarduera hori bultzatu eta orientatzeko duten gaitasuna indartzea.

68. artikulua Ustelkeria delituengatik ikertutakoak.

1. Kargu publiko hautatu batek edo izendapen libreko batek modu frogagarrian jakinez gero epaitegi edo auzitegi eskudun batek auto bat eman duela, ikertuaren egoera prozesalean edo egoera parekidean jartzen duena Kode Penal indardunaren 404.etik 444.era bitarteko artikuluetan edo 472.etik 509.era bitartekoetan aurreikusitako delituak ustez egiteagatik, ulertuko du berak karguan segitzea bateraezina dela herritarrei printzipio etikoaren indarrak eta instituzioen ospe ona babesteko beharraz eman behar zaien konfiantzarekin.

2. Horrela ulertuko du, halaber, izendapen libreko goi karguen kasuan, kargutik kentzeko ahalmena duenak”.

2. artikulua. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 15.1. artikulua aldatu da. Hau da testu berria:

“15. artikulua. Zehapenak.

1. a) Arau-hauste oso astunak eta astunak foru lege hau urratzeari buruzko adierazpenarekin

zehatuko dira. Horrelako adierazpenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

b) Arau-hauste oso astunak 600 eta 6000 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira.

c) Arau-hauste oso astunek kargu-uztea ekarri ahalko dute.

3. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen II. tituluaren I. kapituluari 11. bis artikulua berri bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“11. bis artikulua.

1. Ezertan galarazi gabe Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari aurkeztu ahal zaion erreklamazioa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legeko III. Tituluan aitortzen den eskubidearen egikaritzea herritarrei ezinezko egiten dieten edo guztiz nahiz partzialki mugatzen dieten Administrazio Publikoko organoen esanbidezko edo ustezko ebazpenen aurkakoa, informazio publikoa

eskuratzeari dagokionez, informazio publikoaren eskatzaileak eta interesdun diren hirugarrenek kexa bat egin ahalko diote Nafarroako Arartekoari, baldin eta ezindu edo mugatu egin bada haien informazio hori eskuratzeko duten eskubidea, foru lege honetan xedatuari jarraikiz.

2. Nafarroako Arartekoaren esku-hartzeak ez ditu etenen bidezkoa den erreklamazioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epeak”.

Xedapen gehigarria. Abenduaren 3ko 14/2004, azaroaren 4ko 19/1996 eta uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeen aldaketa honek erabateko gehiengoa behar duten legeen izaera du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 20.2 eta 25. artikuluen arabera.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hiru hilabeteko epean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea,
Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa**

ATARIKOA

I

Gizarteak bere jarduketa- eta kudeaketa-moduak aldatzen eta baldintzatzen dituzten erronkei aurre egin behar die. Gizartean, enpresan, lanean, politikan, administrazioan, teknologian eta abarretan izan diren aldaketek paradigma politiko eta administratibo berri baten aitzinean paratu gaituzte. Halatan, gaur egungo kontrol-tresnak ez dira aski jarduera politiko eta administratiboa aurreikusteko, begiratzeko eta monitorizatzeko, ustelkeria-egintzak edo jardunbide desegokiak prebenitze aldera. Gauzak horrela, beharrezkoa da erakunde bat sortzea berariaz, Administrazioaren baitan eta esparru parlamentarioan diren kontrol eta fiskalizazio erakundeekin koordinatuta egonen dena, politika publikoen emaitzak hobetzarren eta gardentasuna eta lan ona mailarik gorenera eramatearren.

Foru lege honen bidez sortzen da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa. Xedea da balizko

ustelkeria kasuak prebenitzea eta ikertzea, jardunbide egokiak sustatzea eta Nafarroako administrazioen eta sektore publikoaren zuzentasuna zainitzea.

Azaldutakoaren ildotik, Bulegoak beteko ditu kontratuei buruzko legediak Kontratazioa Arautu eta Gainbegiratzeko Bulegoari esleitzen dizkion eginkizunak.

Foru lege honen arabera, nazioarteko tresna juridikoekin bat, ustelkeria da norberarentzat nahiz hirugarrenentzat etekin pribatuak lortze aldera egindako botere-abusu oro.

II

Ustelkeriari aurre egiteko eta jardunbide egokiak sendotzeko, ezinbestekoa da gizarteak Administrazio Publikoaren kontrolean esku hartzea. Parte-hartzea ziurtatzeko, herritarrek beren erakundearen kontrol eraginkorrean egiaz parte hartzeko tresnak sortu beharra dago, eta arduradun politikoek herritarren nahiz beren ordezkari-organoen aitzinean kontu emateko sistemak ezarri behar dira.

III

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua babesean sortzen da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa. Hartara, Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa onesten duen Nazio Batuen Biltzar Orokorraren 2003ko urriaren 31ko 58/4 Ebazpena betetzen da; izan ere, konbentzio horren 6. artikuluan ezartzen da Nazio Batuetako kide diren estatuetan ustelkeria prebenitzeko erakundeak sortu beharra dagoela. Halaber, Bulegoa sortzean, sakondu egiten da iruzurrari aurre egite aldera Europar Batasunak ezarritako parametroetan, zei-

nak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren 325. artikuluan jasotzen baitira.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa abian jartzeak indartu egiten du orobat Nafarroako Foru Komunitateak betetzea Espainiako Estatuak hartutako konpromisoak, Ustelkeriari buruzko Hitzarmen Zibila (Europako Kontseiluaren 174. zenbakikoa) eta Ustelkeriari buruzko Zigor Hitzarmena (Europako Kontseiluaren 173. zenbakikoa) sinatu eta berrestetik heldu direnak, bai eta Ustelkeriari aurre egiteko hoge printzipio gidariei buruzko Europako Kontseiluaren 24. Ebazpenetik (97) heldu direnak ere.

IV

Foru lege honek sei titulu, hiru xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

I. tituluak dihardu Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren sorrerari, izaera juridikoari eta xedeari buruz. Titulu horretan jorratzen dira Bulegoaren araubide juridikoa, jardun-eremua eta eginkizunak.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak neurriak sustatu eta ezarri behar ditu ustelkeria prebenitu, ikertu eta haren aurka borrokatzeko, jardunbide egokiak sustatu eta hobetzeko, eta salatzailera babesteko. Haren helburu nagusia da Nafarroako Foru Komunitateko erakunde publikoen jarduna indartzea, ekidite aldera horietan galera morala gertatzea eta Ogasun Publikoak txirotze ekonomikoa pairatzea, hori guztia herritarren kaltetan eta zerbitzu publikoen kalitatearen kaltetan izanen baillizateke.

Haren jarduketa-eremuak barnean hartzen ditu Foru Komunitatea osatzen duten erakunde guztiak. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak halaber jo ahalko du, foru lege honek aurreikusten dituen baldintzetan, enpresa eta entitate pribatuen nahiz pertsona fisikoen aurka, administrazioekin daukaten harremanaren arabera.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa lau printzipio nagusiri jarraituz taxutzen da, eta horiek dira haren jardunaren ardatzak. Lehendabizikoa prebentzioa da. Bulegoak zainduko du gardentasunez egiten direla publikoa denaren kudeaketa eta gizarte zibilaren parte-hartzea; publikoa denaren kudeaketan kontu-ematearen eginbeharra betetzen dela gain-begiratu du; eta jardunbide egokien kode bat egin eta betetzea sustatu du hautetsien, izenda-

pen askeko kargudunen eta sektore publikoko langileen kasuan; halaber, publikoa denaren kudeaketan interes-gatazka zaindu eta kontrolatu du.

Bere prebentzio-eginkizuna betetzean, Bulegoak, administrazio publikoekin lankidetzan, ustelkeria eta jardunbide okerrak gertatzeko arriskuak identifikatu ditu, eta horiek desagerrarazteko proposamenak egingen ditu. Orobat azterlana egingen du langileen eta kargu publikoen zintzotasun gutxiko jokabideei, jokabide horien zergatiei eta jokabide horiek desagerrarazteko moduei buruz. Publikoa denaren kudeaketan jokabide etikoak barneratzeko eta ezartzeko lan egingen du.

Horretarako, Bulegoak gomendioak emanen ditu, jardunbide egokien kultura sustatzeko eta ustelkeria isolatzeko xedez. Halaber, aholkularitza instituzional espezializatua emanen du eta sektore publikoko langileentzako, kargu politikoentzako eta zuzendaritza-karguentzako prestakuntza-jarduerak egingen ditu.

Jarduketa egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak orobat lan egingen du gure gizartean susta eta asimila daitezen publikoa dena errespetatzearen eta zaintzearen herritar-balioak eta iruzurra eta ustelkeria gizartearen esparru guztietan arbuizatzearenak.

Ikerkuntza da bigarren jarduera-ardatza, eta helburu izanen du arduradunak identifikatzea honako kasu hauetan: funts publikoen desbideratzeak, interes-gatazka –errealak edo potentzialak–, abusuak eta botere-desbideratzea, sarbide erreserbatuko informazioen erabilera baimendugabea, ondasun eta baliabide publikoak norberaren edo hirugarrenen onurarako aprobetxatzea, bai eta agintarien, goi kargudunen eta sektore publikoko langileen, pertsona fisikoen edo juridikoen bestelako jokabide irregular batzuk, Administrazio Publikoari kalte moral edo ekonomiko egin ahalko lieketenak. Ikerketa bukatu ostean, baldin eta ikerketak iraun duen bitartean administrazio-irregularitasuneko zantzurik detektatu bada, zeinarentzat administrazio-zehapena aurreikusten baita, Bulegoak berehala igorriko dizkie ikerketak administrazio-organo eskudunei, horren arabera jardun dezaten eta irregularitasun horiek berriz gertatzea eragotz dezaten. Ikerketa bat abian den bitartean delitu-zantzurik aurkitzen baldin bada, jurisdikzio-organoei horren berri emanen zaie berehala. Ikerkuntza-prozedura orobat bukatzen ahalko da kasuko erakundeari gomendioak eginez, erakundearen eta erakundea osatzen duten pertsonen zintzotasunari eragiten dioten disfuntzioak zuzendu edo ekiditekoak.

Bulego honen jardueraren hirugarren ardatza da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurrien kontrola eta ebaluazioa. Horretarako, beste erakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzaz egonkorreko bideak ezarriko ditu, bere helburuak lortzeko. Bere jardunarekin zintzotasun, onestetasun eta gardentasun mailarik handienak sustatuko ditu politika publikoak taxutu eta garatzeari, zerbitzu publikoak emateari eta baliabide publikoak kudeatzeari dagokienez. Hala ere, ustelkeria kontrolatze eta borrokatze aldera administrazio publikoetan ezarritako tresna juridikoak eta neurri administratiboak ebaluatzeko balioko du.

Foru lege honen laugarren ardatza da gure erakundeei kalte moral edo ekonomikoa eragiten dieten jokabide susmagarriak edo jarduketa irregularrak salatzen dituzten pertsonak –foru lege honen jarduketa-esparrukoak– babestea. Horren xedea da ekiditea gure gizartearen herritar-baliok defendatzeagatik lan baldintzak edo baldintza profesionalak okertu daitezela. Horrenbestez, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak lagundu beharko du babesten ustez ustelkeriakoak edo jardunbide irregularrak diren jokabideak foru lege honetan xedatutakoarekin bat salatzen dituzten pertsonak.

II. tituluak, ikerketa-prozedura, salatailearen edo informatzailearen babestea eta erreserbatutzat kalifikatzen den dokumentazioaren tratamendua aztertzen dira.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikerketa-lana ofizioz abiarazten da, partikularrek, funtzionarioek edo erakundeek eta pertsona juridiko publikoek zein pribatuek salatutako gertakariak aztertu ondoren.

III. tituluak Bulegoaren eta zuzenbide publikoko beste erakunde eta entitate batzuen arteko lankidetzaz jorratzen du. Bere eginkizunak betetzen dituen eraginkorrako izatearren, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulego beste erakunde, administrazio publiko eta entitate publiko batzuekin koordinatuko da, foru lege honetan ezarritako moduan eta bakoitzaren eskumetik erabateko errespetuz.

IV. tituluak arautzen ditu Bulegoak egindako jardueraren emaitzak; honako hauek, alegia: Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei eta Parlamentuari kontu-ematea, urteko oroitidazkia egitea eta oroitidazki hori legebiltzarrerara igortzea. Halere, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaritzak urteko txosten bat igorriko du, azaltze aldera Bulegoak zer jarduera egin dituen prebentzio eta ikerketa,

kontrol eta ebaluazio eginkizunak betetzeko. Hori guztia ez da eragozpen izanen aparteko txostenak edo txosten bereziak egiteko. Titulu horrek bermatzen du txosten horiei guztiei zor zaien publizitatea emanen zaiela.

V. tituluak da Bulegoaren giza baliabideen eta baliabide materialen zuzkidurari buruzkoa. Bulegoak zuzendari bat izanen du. Nafarroako Parlamentuak hautatuko du, eta pertsona independentea eta frogatutako balioa duena izan beharko du.

Bestalde, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoko langileei Nafarroako Administrazio Publikoen Langileen Estatutua aplikatuko zaie, errespetatuz betiere, lanpostuak betetzeari dagokionez, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak. Foru Komunitateari lotutako langileei aplikatzekoak zaizkien bateraezintasunei buruzko araubide berezia ere jasotzen da bertan.

VI. tituluak zehapen-araubidea jorratzen da, arau-hausteak definitzen dira, horien astuntasuna kalifikatzen da eta kasuko zehapenak ezartzen dira. Esperientziak diosku besterik gabeko gomen-dioak eta gaitzespen publikoa ez direla aski. Hori dela-eta, lege honek zehapenak ezartzen ditu, eta eskumen hori Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaritzari esleitzen dio, edo diziplina arloko eskumena duten agintariei dei egiten die eskumen hori balia dezaten.

Azkenik, foru lege honek xedapen gehigarri eta iragankor eta azken xedapen batzuk badauzka; horien artean, nabarmendu behar dira bigarren xedapen gehigarria, zeinak Bulegoari kontratazioaren arloko arautze- eta gainbegiratze-eginkizunak esleitzen baitizkio, kontratuei buruzko legediak ezarritakoaren arabera, eta hirugarren xedapen gehigarria, zeinak bulegoaren barruan atal bat sortzen baitu, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikulua Ebaluazio Bulego Nazionalari esleitzen dizkion eginkizunak betetzeko.

Azken xedapenak hiru hilabeteko *vacatio legis* bat ezartzen du indarra hartzeari dagokionez.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Xedea, printzipio orokorrak, araubide juridikoa eta jarduketa-esparrua

1. artikulua. Xedea eta izaera juridikoa.

1. Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta

ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzea zuzenbide publikoko entitate gisa. Nortasun juridiko berekia izanen du eta, bere eskumenak betetzean, objektibotasunez eta profesionaltasunez jardunen du, antolamendu juridikoari men eginez eta administrazio publikoengandiko erabateko independentzia organiko eta funtzionalarekin.

2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzen da Nafarroako administrazio publikoetako eta horiek parte hartzen duten sozietate eta entitateetako ustelkeria eta iruzurrezko jardunbideak detektatu, prebenitu, ikertu eta desagerrarazteko, foru lege honek ezarritako baldintzetan.

3. Bulegoa sortzen da jardunbide egokien, herritar-balioen eta gobernu onaren kultura bultzatu eta erraztearren herritarren artean, eta ustelkeria baztertearren politika publikoen edo jarduketara administratiboaren taxutze, betetze eta ebaluatzean.

2. artikulua. Printzipio orokorrak.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak objektibotasunez erantzuten die interes orokorrei, zintzotasunaren, neutraltasunaren, erantzukizunaren, inpartzialtasunaren, proportzionaltasunaren, konfidentziasunaren, zerbitzu publikorako dedikazioaren eta errugabetasun-presuntzioaren printzipioekin bat.

Halaber, bere jardunean errespetatu egin beharko ditu helburu eta asmo publikoen bete-tzean legezketasunez, eraginkortasunez, efizientziaz eta ekonomiaz jardutearen printzipioak.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak gardentasunaren, parte-hartzearen eta kontu-ematearen printzipioekin bat jarduten du herritarrekiko harremanetan.

3. artikulua. Araubide juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa foru lege honetan eta Administrazio Zuzenbideko arauetan xedatutakoari lotuko zaio.

VI. tituluan ezartzen diren zehapenak ezartzeko, foru lege honetan eta zehapen-prozedura administratiboari buruzko araudi indardunean jasotako xedapenei eta printzipioei jarraituko zaie.

4. artikulua. Bulegoaren jarduketa-eremua.

Honako hau da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduketa-eremua:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren menpeko erakundeak, enteak, entitateak, fundazioak, partzuergoak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, alde batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren. Partaidetza hori % 50ekoa baino txikiagoa baldin bada, Bulegoaren jarduketa-eremuak honako hauek hartuko ditu: zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak, herri lanak egiteko jardura eta laguntza edo hornidura jarduerak, Nafarroako sektore publikoaren konturakoak.

2. Nafarroako toki entitateak eta haien menpeko erakundeak, enteak, entitateak, fundazioak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, alde batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren. Partaidetza hori % 50ekoa baino txikiagoa baldin bada, Bulegoaren jarduketa-eremuak honako hauek soilik hartuko ditu: zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak, herri lanak egiteko jardura eta laguntza edo hornidura jarduerak, Nafarroako sektore publikoaren konturakoak.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta haren menpeko ente, entitate, fundazio eta erakundeak.

4. Alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta enpresa erakundeak, eta haiei loturik dauden fundazio eta elkarteak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 4.1.e) artikuluan jasotako baldintzetan.

II. KAPITULUA **Helburu eta eginkizunak**

5. artikulua. Eginkizunak.

1. Honako hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren eginkizunak:

a) Prebentzio-eginkizuna.

b) Ikerketa-eginkizuna.

c) Ebaluazio-eginkizuna.

d) Babes-eginkizuna.

e) Kontratazio publikoa arautu eta gainbegiratzearen eginkizuna.

6. artikulua. Prebentzio-eginkizuna.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren prebentzio-eginkizunak honako jarduketa hauek hartuko ditu:

a) Ustelkeria-arriskuak identifikatzea, jokabide desagokiak edo zintzotasunaren eta etika publiko-

aren aurkakoak detektatzea. Horretarako, datuak bilduko ditu eta azterlanak eginen ditu sektore publikoko iruzur-tipologiak, iruzurrak zer esparrutan gertatzen diren eta iruzurrak gertatzea errazten duten egoerak identifikatu ahal izateko.

b) Jokabide Kode Etiko berri bat taxutzea, zeinaren bidez ezarriko baita zer arau etiko eta zer jokabide-arau bete beharko dituzten Nafarroako Gobernuo kideek, goi-kargudunek, behin-behineko langileek, sektore publikoa osatzen duten entitateetako zuzendaritza-kideek eta hautetsiek, zeinen jarduketek honako printzipio hauek zaindu beharko baitituzte: objektibotasuna, zintzotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredugarritasuna, zerbitzu publikoaren alde lan egitea, eraginkortasuna, onestasuna, austeritatea, genero-berdintasunarekiko errespetua eta kultura- nahiz hizkuntza-ingurunearen eta ingurumenaren errespetua, sustapena eta babesa. Nafarroako Parlamentuak foru lege baten mailarekin onetsiko du Kodea.

c) Administrazio Publikoan Jokabide Kode Etikoa eta jardunbide egokien gida aplika daitezen sustatu, bultzatu eta bermatzea, zerbitzu publikoen ematearen kalitatea hobetzen laguntzeko xedez.

d) Jarduera eta Interesen Erregistroa kudeatzea eta jardueren eta interesen aitortpenetan emandako informazioa egiaztatzea, gatazka-kasuak ebaztea eta kargu publikoen ondasunaren gehikuntza moduan gertaturiko aldaketen justifikazioa egiaztatzea. Horretarako, Bulegoak bere ekimenez jardunen du, eta ekimena abiarazteko arrazoi txosten bat eginen du.

Halaber, zilegi izanen du aitortutako informazioa egiaztatzea eta gatazka-kasuak ebaztea Nafarroako Toki Administrazioiko goi-kargudunen eta kargu hautetsi publikoen bateraezintasunen araubideari dagokionez, baldin eta Toki Administrazioiko organo eskudunak horretarako erabakia hartu badu, eta kasuko hitzarmena formalizatu ondoren.

e) Aholku ematea, txostenak egitea, proposamenak aurkeztea, arau-aldaketei buruzko proposamenak barne, sektore publikoaren jarduketak hobetzeko xedez eta disfunczioak edo jarduketa diskrezionalak ekidin eta jardun administratiboak hobetu ditzaketen irizpideak jasotzeko xedez.

f) Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak taxutu eta programatzea prebentzioaren arloan eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokan arloan.

g) Foru lege honetan aipatzen den guztiari dagokionez langileei prestakuntza ematen laguntzea, organo edo erakunde eskudunak hala eskatuta –alde batera utzita publikoa ala pribatua den–.

h) Beste edozein jarduketa, baldin eta horren edukia eta xedea iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako ekintza prebentibotzat har badaitezke.

7. artikulua. Ikerketa-eginkizuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikerketa-eginkizunak honako jarduketa hauek hartuko ditu, besteak beste:

a) Jokabide irregularrei buruzko ikerketak egitea, jokabide horiek interes-gatazkak sor baditzaizkete agintariengan, goi-kargudunengan eta administrazio publikoen zerbitzuko nahiz haien gehiengoaren partaidetza edo jabari eraginkorra duten fundazio eta enpresa publikoen –zuzenbide publikoz nahiz pribatuz eraenduak direla– zerbitzuko langileengan, Kode Etikoaren kalterako badira edo Nafarroako sektore publikoari zuzenean nahiz zeharka kalte ekonomikoa edo ospegalera ekar badieziaiokete.

b) Ikertzea sektore publikoaren zerbitzuko langileen berariazko eginkizunetatik heldu diren informazioak onura pribaturako erabili izana eta ondasun eta baliabide publikoak norberaren nahiz hirugarrenen onurarako baliatu izana.

c) Ikertzea berdintasun, merezimendu, publizitate eta gaitasun printzipioak urratu izana sektore publikoko lanpostuak betetzean nahiz gehiengodun partaidetzako edo jabari eraginkorreko –zuzenbide publikoz nahiz pribatuz eraenduak direla– fundazio eta enpresa publikoetako lanpostuak betetzean.

d) Jarraipena eta egiaztapena egitea ente instrumentalei agindutako mandatuen exekuzioaz eta foru lege honetako 4. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan adierazitako subjektuetakoren batek lizitatu eta esleitutako kontratu administratiboaren exekuzioaz.

2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak lankidetzan jardunen du Parlamentuarekin, baldin eta parlamentariak eta talde parlamentarioek hori eskatzen badute, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

3. Ikerketa-prozesu batean beste kontrol- edo/eta fiskalizazio-erakunde batzuei dagozkien eskumenen gaineko egintzak edo egoerak detektatzen badira, egindako jarduketan berri

emanen zaio kasuko organo edo erakunde eskudunari, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

8. artikulua. Ebaluazio-eginkizuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak ustelkeria prebenitzeko eta jardunbide egokiak sustatzeko neurrien eraginkortasunaren kontrol-, jarraipen- eta ebaluazio-lanak eginen ditu. Lan horiek egitean, beste kontrol-organo batzuekin lankidetzan arituko da, bakoitzaren eskumenak eta berariazko eginkizunak errespetatuz betiere.

2. Jarduketek lagundu beharko dute errugabetasun-presuntzioa bermatzen, bai eta zintzotasun, onestasan eta gardentasun mailarik handienak ere, kontratazio publikoko prozesuetan eta ente instrumentalei egindako mandatuetan, diru-laguntza prozesuetan, erabakiak hartzeko prozesuetan, zerbitzu publikoen emate egokian eta ondasunen, eskumenen eta baliabide publikoen plangintza eta kudeaketa efizientean, hartara lagunduko baitute Administrazio Publikoetan ustelkeriaren kontra borrokatze eta kontrolatze aldera jada ezarritako neurri administratiboak eta baliabide juridikoak ebaluatzen.

3. Honako hauek jasoko dira jarduketa bakoitzaren ebaluazio-txostenetan:

a) Bulegoak eskatuta edo gomendatuta egindako arau-aldaketak.

b) Errutinazko jardunbideetan edo ezarritako erabileretan Bulegoak proposatu eta onartu diren aldaketak.

c) Aurrekari administratiboek buruz proposatu eta onartutako aldaketak, kudeaketa eraginkor, garden eta ekitatibo bati eragiten ahal diotenak.

d) Emaizten analisia.

e) Administrazio publikoekin harremana duten enpresa pribatuetan jardunbide egokiak ezartzea.

f) Jarduketa bakoitzean zehazten diren beste ebaluazio-adierazle batzuk.

9. artikulua. Babes-eginkizuna

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak zainduko du foru lege honen 4. artikuluko 1, 2 eta 3. zenbakietan jasotako erakundeek zerbitzuko langileek beren eginkizunak legez ezarritako moduan bete ahal izan ditzatela.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak zainduko du balizko ustelkeria-kasuak salatzen dituzten pertsonak ez dezaten jasan beren lan-

inguruneko baldintzen okertzerik edo ezain kalte edo diskriminaziorik, halako moduan non ez baita interferentziarik eginen zigor arloko prozeduretan edo ikerketetan, eta betiere foru lege honetako 10. artikuluan ezarritako mugak kontuan hartuz. Bulegoaren zuzendariak agintari eskudunen aitzinean sustatuko ditu ekintza zuzentzaileak edo berrezarpenekoak, eta jasota utziko ditu urteko oroitidazkian.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak egiaztatu beharrekoak diren gertakari edo jokabideak salatu edo jakinarazten dituen pertsona orok lortzen ahal du, hala eskatuz gero, bere nortasunaren berri hirugarrenei ez ematearen konpromiso idatzia. Hartara, delako salatzaile edo informatzailearen datuak, bai eta hura identifikatzea ekar lezaketen xehetasunak ere, sekretupean gordeko dituzte Bulegoaren zerbitzuko langileek.

III. KAPITULUA

Mugak eta laguntza emateko betebeharra

10. artikulua. Mugak.

1. Edonola ere, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren eginkizunak beteko dira ezertan galarazi gabe Nafarroako Kontuen Ganberari, Nafarroako Arartekoari edo bestelako kontrol- eta fiskalizazio-erakunde batzuei dagozkienak.

2. Modu berean, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak bere eginkizunak beteko ditu ezertan ere galarazi gabe agintaritzaren judizialari edo Fiskaltzari dagozkionak.

11. artikulua. Laguntza eman beharra.

Beren eginkizunak garatu ahal izateko, administrazio publikoek eta foru lege honetako 4. artikuluan adierazitako entitateek laguntza eman beharko diote Nafarroako Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari, honek behar duen orotan eta ikertzen ari den gertakariekin zerikusia duen orotan. Ildo horretan, eta kontuan hartuta jarduketaren proportzionaltasunaren printzipioa, Bulegoak administrazio publiko edo/eta entitate horien bulegoetarako sarbidea eta haiek daukaten informazioa eskuratzeko bidea izanen du.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari laguntza emateko betebeharra daukaten pertsona fisiko edo juridikoek, publiko edo pribatuek, Bulegoaren eginkizunak betetzea eragozten badute edo hark eskatu dizkien txostenak, dokumentuak edo espedienteak hari

emateko borondaterik eza agertzen badute, legeak ezarritako erantzukizuna izanen dute.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak laguntza emanen die eta lankidetzan arituko dira gardentasunaren, iruzurraren eta ustelkeriari aurre egitearen alorrean eskudun diren edo harenak bezalako eginkizunak dituzten autonomia erkidegoetako, estatuko, Europako edo/eta nazioarteko erakundeekin.

II. TITULUA Ikerketa-prozedura

12. artikulua. Postontzia.

1. Bulegoak postontzi bat jarriko du, herritarrek kexak, salaketak edo iradokizunak aurkez ditzaten, agintariak, langileak eta goi-kargudunak foru lege honen 4.1 artikuluan arabera izan ditzaketen jarduketa edo jokabideekin lotutakoak, betiere foru lege honen aplikazio-esparrukoak diren gaiei buruzkoak direnean.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak kexa eta salaketa horiek aztertuko ditu, eta erabakiko du ea informazio-espeditierik abiarazten duen ofizioz, balizko erantzukizunak ezartzeko xedez. Ikerketa-espeditierik ez abiaraztea erabakiz gero, erabaki hori hartzeko oinarriari buruzko erantzun arrazoitua emanen zaio kexa edo salaketa aurkeztu duen partikularrari. Edonola ere, Bulegoak, urteko oroitidazkian, modu arrazoituan adieraziko du zenbat salaketa jaso dituen eta zeintzuk hartu diren aintzat eta zeintzuk ez.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak orobat baloratuko ditu iradokizunak, eta urteko oroitidazkian jasoko ditu, arrazoituta, horiek onartu diren ala ez.

4. Urteko txostena argitaratu egingen da, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian jasotako printzipioak betez betiere.

13. artikulua. Abstentzia eta errekusazioa.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoko langileak administrazio prozedura erkidean ezarritako abstentzio- eta errekusazio-arrazoi berberak dituzte.

2. Abstentzia nahiz errekusazioa idatziz planteatuko dira, haiek oinarritzen direneko arrazoia edo arrazoiak adierazita, eta zuzendariak ebatziko ditu, erabakiaren aurkako errekurtsioa paratzeko aukerarik gabe. Abstentzia edo errekusazioa Bulegoaren zuzendariak edo hari aurkeztutakoa bada, zuzendariaren ondokoak ebatziko du.

I. KAPITULUA Prozedura abiaraztea

14. artikulua. Abiaraztea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren jarduketak beti abiaraziko dira ofizioz, bulegoaren zuzendaritzak erabakita, bai haren ekimez bai pertsona fisiko edo juridiko batek, publikoa nahiz pribatua, jarritako salaketa batengatik, edo beste organo edo erakunde publiko batek aurkeztutako eskari arrazoitu batengatik. Jarduketa horiek lotuko zaizkie objektibotasunaren, seriotasunaren, diskrezioren, konfidentziasunaren, azkartasunaren eta errugabetasun-presuntzioaren printzipioei, besteak beste.

2. Agintariak, zuzendaritza-karguek, bulego publikoetako eta erakunde publikoetako arduradunak eta, oro har, eginkizun publikoak betetzen dituzten edo beren lana entitate eta erakunde publikoetan egiten dutenek iruzurrezko jardunbideak edo interes orokorraren aurkako jardunbide irregularrak izan daitezkeen gertakariak jakinarazi beharko dituzte, horien berri duten unetik bertatik, zigor arloko legedi prozesaleko berariazko jakinarazpen-betebeharrak gorabehera. Horretarako, bide egokiak ezarriko dira.

15. artikulua. Aurretiazko jarduketak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak jarduketak abiarazi eta salaketak, jakinarazpenak edo eskabide arrazoituak artxibatu aitzin, egiazkotasun-azterketa egingen da salatu edo jakinarazi diren edo eskabidearen oinarrian dauden gertakariak edo jokabideei buruz. Egiazkotasunaren azterketa hori oinarritzeko, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak informazio edo dokumentazio gehigarria eskatzen ahalko dio salaketa-egileari, eta jarduketak abiarazteari ezetza emateko ezin izanen du aitzakia hartu salaketa-egilearen esku ez dagoen eta Bulegoak berak lor dezakeen dokumentazioaren falta.

2. Jarduketak abiarazteko erabakia hartu aitzin, bai eta egiaztatze eta ikertze faseetan ere, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa Nafarroako Foru Komunitatea osatzen duten administrazioen eta sektore publiko instrumentala osatzen duten entitateen edozein zentrotan bertarutzen ahalko da, behar diren datu guztiak egiaztatzeko, dokumentazioa edo espeditienteak aztertzeko eta egoki deritzen elkarrizketa pertsonal guztiak egiteko.

3. Foru lege honetako 4. artikuluan ezarritako jarduketa-eremuko entitate publiko eta pribatu

guztiak behartuta daude Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari ematera haren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia. Informazio hori aurretiaz ezarritako betebeharrak izanen da, edo arrazoiturik eta helburua adierazita errekeritutako betebeharrak; eta ezin izanen da erabili beste helburu baterako. Informazio erreserbatuaren izaera izanen du, eta dokumentazioa bere jatorrira itzuliko da hura erabiltzeko premia bukatzen denean.

16. artikulua. Epeak.

Prozedura abiarazteko edo artxibatzeko erabakia, pertsona fisiko edo juridiko baten edo organo edo erakunde publikoen salaketa edo jakinarazpen baten ondoriozkoa, gehienez bi hilabeteko epean hartu beharko da, salaketa edo jakinarazpena Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari aurkezten zaionetik aitzina.

17. artikulua. Salaketak eta jakinarazpenak.

Salaketak edo jakinarazpenak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari zuzenduko zaizkio, eta idatziz egin beharko dira. Edozein unetan egiten ahalko dira, are gertakariak edo inguruabarrak lehenago hasi edo gertatu badira ere.

18. artikulua. Ez izapidetzeko kasuak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak artxibatu egiten ditu pertsona fisiko edo juridikoek, organo edo erakunde publikoek aurkeztutako salaketa, jakinarazpen edo eskaera arrazoituak, baldin eta funsgabeak badira edo, kasua bada, salaketaren edo jakinarazpenaren sendotasunari eragiten dioten akatsak edo gabeziak zuzentzeko errekerimenduaren ostean osatzen ez badira.

2. Artxiboa interesdunari idazki arrazoitu bidez jakinaraziko zaio eta, kasua bada, bere eskubideak baliarazteko bide egokiak adieraziko zaizkio.

3. Baldin eta salaketak edo jakinarazpenak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa ez den besteren batean aurkezten badira, Bulegoari gehienez ere zazpi eguneko epean igorriko zaizkio. 16. artikuluan adierazitako epeak ez dira zenbatzen hasiko harik eta salaketa edo jakinarazpena Bulegoan jaso arte.

19. artikulua. Abiarazteko erabakia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulego-

ari dagokio prozedura hau abiarazteko erabakia hartzea, eta interesdunari jakinaraziko zaie.

2. Erabakiak honako hauek jasoko ditu guztienez ere:

- a) Prozeduraren instruktorearen izendapena.
- b) Prozedura abiaraztea eragin duten gertakariak.
- c) Prozedura ebazteko organo eskuduna.
- d) Prozeduran alegazioak aurkezteko eta entzuna izateko eskubideari eta horretarako epeei buruzko oharra, adierazita ezen, prozedura abiarazteko erabakiaren edukiari buruzko alegaziorik ezarritako epean egin ezean, eduki hori erabaki-proposamentzat hartzen ahalko dela egotzitako erantzukizunari buruzko adierazpen zehatz bat jasotzen duenean.

II. KAPITULUA **Izapidetze-prozedura**

20. artikulua. Izapidetzea

1. Prozedura abiaraztea erabakita, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak gertakariak argitzeko kasuko ikerketa sustatuko du. Administrazio prozedura erkideari buruzko araudi indarduneari ezarritakoarekin bat izapidetuko da, eta, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da; lege horrek prozedura guztien izapidetze elektronikoa ezartzen du, prozeduraren hasieratik azkeneraino.

Bulegoan ikerketa eta ikuskaritza-eginkizunak esleiturik dauzkaten langileek agintari izaera edukiko dute froga-ondorioetarako, eta honako hauek egiten ahalko dituzte:

- a) Bertaratzea, agintari edo Bulegoko agente izaera frogatuz, administrazio edo entitate publikoen edozein bulegotan edo zerbitzu publiko bati atxikitako zentroan, foru lege honen esparruaren barruan, informazioa eskatzeko, egiaztapenak in situ egiteko eta dokumentuak, espedienteak, liburuak, erregistroak, kontabilitatea eta datu-baseak aztertzeko, zein ere den horiek grabatuta dauden euskarria, bai eta erabilitako ekipoak ere.
- b) Egoki irizitako elkarrizketa pertsonalak egitea, bai kasuko egoitza administratiboan, bai Bulegoaren egoitzan. Elkarrizketatuek eskubidea dute beraiek izendatutako pertsonaren laguntza izateko, baita abokatu batena ere.

c) Eskuratzea, legedi indardunak horretarako modua ematen duen neurrian, banku-entitateen

kontu korronteei buruzko informazioa, kasuko errekerimendua eginez, baldin eta horietan egin ahal izan bada kontratu publikoen esleipen prozedurekin lotutako ordainketarik edo funts-xedapenik edo diru-laguntza publikoen ematerik.

d) Erabakitzea, jaso daitezkeen datuen kalte-gabetasuna bermatze aldera, lortutako dokumentuen fotokopia kautotuak egin daitezzen, zein ere den haiek biltegitratuta dauden euskarria.

e) 1. zenbakiko a) apartatutik d) apartatura bitartean aipatzen diren jarduketa guztiak errugabetasun-presuntzioaren printzipioa eta defentsarako oinarritzko eskubidea zorrotz errespetatuz gauzatu beharko dira, babesgabetasunik eragin gabe.

2. Salatuak edo haren nagusiek erantzun idatzia emateari ezetza ematen badiote edo justifikaziorik gabe berandutzen badira, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak bere ikerketa-jarduketarako jokabide oztopatzaile gisa hartu ahal du hori. Eta jasota utziko du bere urteko oroitidazkian, kasuko zehapena ezarri nahiz ez ezarri.

21. artikulua. Iraungitzea.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren ikerketa-jarduketek ezin izanen dute iraun sei hilabete baino gehiago, ikerketa abiarazteko erabakia hartzen denetik aitzina, salbu eta kasuaren konplexutasuna dela-eta epe hori luzatzea komeni bada; edonola ere, luzatzeko erabaki hori espresuki eta arrazoituz hartu beharko da, eta gehienez ere beste sei hilabeterakoa izanen da.

22. artikulua. Datuen erreserba.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren jarduketek denik eta erreserbarik goren zurratatu beharko dute betiere, ikertutako pertsonarentzako edo entitatearentzako kalteak ekiditeko eta jarduketa horien ondorioz abiaraz litekeen prozedura jurisdikzionalaren edo administratiboaren eraginkortasuna babesteko.

2. Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak ezin du izaera pertsonaleko daturik zabaldu, ezta beste pertsona edo erakunde batzuei jakinarazi ere, datu horiek ez badira, xedapen indardunekin bat, pertsona edo erakunde horiek beren eginkizunak direla-eta ezagut ditzaketanak. Eta datu horiek ezin izanen ditu erabili foru lege honetakoak ez diren beste xede batzuetarako.

Betebehar hori ez betetzeak berekin ekarriko du barne-ikerketa bat abiaraztea eta, bidezkoa izanez gero, diziiplina- edo zehapen-espedientea hastea, kasuan kasukoa.

3. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudi indardunaren arabera tratatuko dira izaera pertsonaleko datuak.

23. artikulua. Ebazpena.

1. Izapidetzea bukatutakoan, instrukzioaz arduratzen den pertsonak honako hauek ebazten ahalgo ditu:

a) Prozedura amaitzea, jarduketak artxibatuta, ebazpen-proposamenik egin beharrik gabe.

b) Zehapen-prozedura bat abiaraztea, foru lege honetan xedatuarekin bat.

c) Abiarazitako jarduketa guztiak Fiskaltzari igortzea, baldin eta, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak hasitako ikerketaren ondorioz, Bulegoak ondorioztatzen badu ustez delitu izan daitezkeen jokabideak edo gertakariak izan direla.

d) Kontuen Auzitegiaren jurisdikzioari berri ematea, Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legean ezarritako bidetik, baldin eta ikerketetatik balizko kontabilitate-erantzukizun bat, zuzena nahiz subsidiarioa, ondoriozta badaiteke.

e) Xedapenak, hala nola erregelamenduak, zirkularrak eta jarraibideak, taxutzea edo aldatzea proposatzea, bere eskumenaren esparruan.

f) Gomendio arrazoituak zuzentzea administrazioei eta entitate publikoei, irizpideak aldatu, deuseztatu eta gehitzeko iradokizunarekin, hobetzeko modukoak diren disfuntzio edo praktika administratiboak saihesteko xedez, detektaturiko jokabide irregularren kasuetan eta arrisku-alorretan.

2. Bulegoaren zuzendariak, instrukzioaz arduratzen den pertsonaren ebazpen-proposamena ikusita, ebazpen arrazoitua eman beharko du hamar eguneko gehieneko epean, ebazpen-proposamena jasotzen denetik aitzina.

III. KAPITULUA

Salaketa-egilearen babesa eta dokumentu erre-serbatuak

24. artikulua. Salaketa-egilearen babesa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren jardunak arreta berezia jarriko du foru lege honen bidez babestu nahi diren ondasunen eta printzipioen balizko urraketa-kasuak salatzen dituzten pertsonak babesteko. Halatan, Bulegoa

arduratuko da pertsona horiek ez dezaten paira bakartzerik, jazarpenik edo beren lan-ingurune baldintzen okertzerik, eta ez dezaten arriskurik izan beren herritar-jokabidearen ondorioz inolako kalterik edo diskriminaziorik pairatzeko.

2. Salaketa-egileak babestuta egon behar du iruzurra edo ustelkeria izan daitekeela uste duen gertakari bat salatzean izan duen herritar-jokabidearen ondorioz jasan lezakeen kalte ekonomikoa eta moralaren aitzinean, diskriminazio ororen aitzinean eta bere lantokiko edo lanbide-esparruko baldintzen okertze ororen aitzinean. Hartara, pertsona horrek bere anonimotasuna gordetzen ahalko du, eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak ezin izanen dizkie haren datuak ezagutzera eman ez ukitutako administrazio, entitate edo funtzionarioari, ez hirugarrenei ere; halere, hori guztia ez da eragozpen izanen epaileak beharrezkoak diren babes-neurriak har ditzan ikertutako gertakariak delitua izan badaitezke. Kasu horretan, Bulegoak berak hartutako balizko neurrien berri emanen du.

3. Bulegoak jakiten badu salaketa-egileak, zuzenean edo zeharka, beldurrarazte- edo errepresalia-egintzarik pairatu duela salaketa jartzeagatik, zilegi izanen du bidezkotzat jotzen dituen neurri zuzentzaileak eta egoera lehengortzekoak hartzea, eta urteko oroitidazkian horien berri emanen du. Kasu bakoitzaren inguruabarrak aintzat hartuta eta betiere salatzailearen ekimezez, Bulegoak organo eskuduna premiatu ahalko du hura beste lanpostu batera alda dezan. Horretarako, Bulegoak beharrezkoa den aholkularitza emanen dio salaketa-egileari.

4. Babesa ikerketa-prozedura amaitu eta gero ere mantendu ahalko da, betiere era arrazoituari. Salaketaren xede ez diren gertakizunengatik izan ditzakeen erantzukizunetatik ez dio ezein kasutan salbuespenik ekarriko babes horrek.

5. Arestian ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta salaketan adierazi eta emandako informazioa faltsua, lardaskatua edo modu ez-zilegian lortutakoa bada. Halakoetan, Bulegoak zilegi izanen du, aldeztu aurretik salaketa-egileari isilpean entzutea emanda, salaketa artxibatzea konfidentzialtasuna gordez, eta salaketa-egilea ohartaraziko du ezen salaketa hori publiko egiten badu ez zaiola emanen foru lege honetan ezarritako babesa, eta erantzukizun diziplinario edo penalak izan ditzakeela salaketa faltsuaren egileak.

25. artikulua. Informazioaren tratamendua.

Ukitutako edozein pertsonak ikerketa batean zehar bere lekukotasunaren nahiz bere laguntza

pertsonalaren bidez eman dezakeen informazioak erreserbatu izaera edukiko du.

III. TITULUA

Beste erakunde eta entitate batzuekiko lankidetzak

26. artikulua. Kontuen Ganbera eta Nafarroako Arartekoa

1. Beharrezkoa denean, Jardunbide Egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak laguntza eskatuko die, Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren bidez, Kontuen Ganberari edo Nafarroako Arartekoari. Halaber, Bulegoak bere txosten guztien kopia igorriko die Kontuen Ganberari eta Nafarroako Arartekoari.

2. Urtero, urtarrilaren 31 baino lehen, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak Nafarroako Arartekoari eta Kontuen Ganberari jakinaraziko die urteko bere jarduketaplana, balizko bikoiztasunak eta interferentziak ekiditeko xedez.

27. artikulua. Nafarroako Parlamentua.

Nafarroako Foru Komunitateko jokabide onen aldeko eta ustelkeriaren aurkako Bulegoak Parlamentuarekin lankidetzan jardunen du foru lege honen 7.2 artikuluan ezarritako moduan.

28. artikulua. Beste erakunde batzuk.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan arituko da, iruzurra eta ustelkeria prebenitu eta borrokatzeko.

29. artikulua. Gizarte zibila.

Nafarroako jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak gizarte zibilarekiko topaguneak eta trukerako guneak sustatuko ditu aldian-aldian, haren ekarpenak jasotzeko.

IV. TITULUA

Jardueratik heldutakoa

I. KAPITULUA Kontuak ematea

30. artikulua. Urteko oroitidazkia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak urtero kontu emanen du egin duen jarduerari buruz, oroitidazki edo txosten bat eginez, zeinetan jasoko baititu Bulegoak prebentzioaren, ikerketaren, ebaluazioaren eta babesaren arloko bere eginkizunak direla-eta egindako ekintzak, bai eta

egin dituen prestakuntza eta aholku-emate bereziko ekintzak ere.

Oroitidazki horretan jasoko dira, gutxienez ere, aurkeztutako salaketen kopurua eta izaera, bai eta ikerketaren xede izan direnena eta horien emaitza, zehaztuta zer iradokizun edo gomendio egin zaion Administrazioari eta zenbat prozedura abiarazi diren Bulegoaren ekimenez, bai administrazio-izaerakoak bai izaera judizialekoak, sektore publikoko langileen eta kargu publikoen aurka. Txostenean orobat jasoko dira ikuskariek idatziz adierazitako desadostasunak eta prestatzaileek egindako ebaluazioak eta proposatutako arau-aldaketak.

2. Txostenean ez da jasoko ikerketa-prozeduran interesa dutenak publikoki identifikatzea ahalbidetzen duen datu eta aipamen pertsonalik, ikerketa abian den bitartean, izaera pertsonaleko datuak tratatuko dira izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudi indardunaren arabera.

3. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulego zuzendariak urteko txostenaren laburpen bat azalduko dio Parlamentuari, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako moduan.

31. artikulua. Herritarrei kontu ematea.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak herritarrei kontu emanen die administrazioetako eta foru lege honetako 4. artikuluan adierazitako gainerako entitateetako iruzurrari eta ustelkeriari buruzko politikak eta jardunbideak prebenitu, iker-tu eta ebaluatzearen arloan egindako kudeaketa dela-eta. Horretarako, herritarrak behar bezala informatuta egon ahal izan daitezzen behar adina baliabide erabiliko ditu. Bere jardunaren emaitzak hedabideei emanen dizkie, eta gizarte zibilarekiko topaketak antolatuko ditu, bere jardunaren eta egindako jarduketan emaitzen berri hari zuzenean emateko, bidean aurkitutako zailtasunak edo erre-zeloak adieraziz.

II. KAPITULUA

Gomendioak eta irizpenak

32. artikulua. Gomendioak.

Gomendio izaera edukiko dute Bulegoak ofizioz nahiz 4. artikuluan adierazitako subjektuetako edozeinek eskatuta egindako proposamenek, zeinen bidez bilatzen baita arrisku-egoerak edo jokatibide desegoki edo zintzotasunaren aurkakoak hobetzea. Alde batek eskatuta egindako eskariak Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren bidez bideratuko dira.

V. TITULUA

Giza baliabideak eta baliabide materialak

I. KAPITULUA

Bulegoaren zuzendaritza

33. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendaritza hautatzea, izendatzea, bateraezintasunak eta kargu-uztea.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak zuzendari bat edukiko du, bere karguan erabateko independentziaz eta objektibotasunez jardunen dena Bulegoaren berezko eginkizunak betetzean eta haren berezko eskumenen esparruan, eta legedi indardunari men eginez jardunen da beti.

2. Zuzendaria ezin izanen da afiliatuta egon inolako alderdi politiko, sindikatu edo elkarte profesional edo enpresa-elkartetan.

3. Zuzendariaren agintaldia sei urtekoa izanen da, Nafarroako Parlamentuak hautatzen duenetik zenbatuta, eta ezin izanen da berriz ere hautatua izan lanpostua utzi duenetik gutxienez ere sei urte igaro arte.

4. Zuzendaria Nafarroako Parlamentuak hautatuko du, beren eskubide zibil eta politikoen gaineko erabilmen erabatekoa duten eta karguan jarduteko behar diren egokitasun-, sustraitze-, zintzotasun- eta profesionaltasun-baldintzak betetzen dituzten adin nagusiko herritarren artean. Goi mailako unibertsitate tituluaren jabe izan beharko du eta hamar urte baino gehiagoko lan-jarduera edo jarduera profesionala eduki, bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duena. Halaber, nafartasun politikoa izan behar du.

5. Kargurako hautagaiak talde parlamentarioek edo beren jarduera Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek proposatuko dizkiote Nafarroako Parlamentuari.

6. Bulegoaren zuzendaria Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hautatuko du, gehiengo osoz.

7. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izendatuko du Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendaria, zeinak karguaren jabetza hartuko baitu izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean.

8. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren titularrak eskumen osoa edukiko du Bulegoaren gobernuari, barne araudiari eta bere zerbitzuko langileei dagokienez. Esku-

men horiek beteko ditu titulu honetan ezarritakoa- rekin bat eta, ordezkotza erabiliz, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatu-tuaren Testu Bateginean ezarritakoarekin bat.

34. artikulua. Bateriaezintasunak.

1. Bateriaezintasunak dira Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendari kargua eta beste ordezkotza-kargu, kargu politiko edo administrazio-eginkizun oro, lanbide-, merkataritza- edo lan-jarduera oro, bai eta zuzendaritza- edo aholkularitza-kargu oro ere.

2. Zuzendariak eginkizun horretarako arduraldi eksklusiboa izanen du eta kargu publikoaren bateraezintasunei buruzko araubidearen mende egonen da.

3. Bulegoaren zuzendaria bateraezintasun-egoeraren batean eroriz gero, jarduera bateraezintasun hori utzi beharko du izendatu ondoko hilabetean eta karguaren jabetza hartu baino lehen. Hori egin ezean, izendapena onartzen ez duela ulertuko da. Ezusteko bateraezintasun-kasuan, hilabeteko gehieneko epean erregularizatu beharko du bere egoera.

4. Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, zehaztuko du zein izanen den Bulegoaren zuzendaritza uki dezaketen bateraezintasun-egoerei buruzko zalantzak edo gatazkak ebazteko batzorde eskuduna.

35. artikulua. Kargu-uztea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendariak honako arrazoi hauetakoren batengatik utziko du kargua:

- a) Karguari uko egin edo hilez gero.
- b) Agintaldia bukatzeagatik.
- c) Ezusteko bateraezintasunagatik.
- d) Ebazpen judizial irmo baten bidez deklaratu-tako ezgaitasun zibilagatik.
- e) Eskubide politikoak baliatzeko desgaitasun-azagatik, ebazpen judizial irmo baten bidez deklaratu.
- f) Kautelazko neurriekin batera eginiko inputazioa izateagatik, ahozko judizioa hasteagatik edo delitua egiteagatik epai irmoz emandako kondena-gatik.
- g) Karguaren betebeharrak betetzean erakutsitako zabarkeria nabarmen eta astunagatik.

h) Nafartasun politikoa edo eskubide zibil edo politikoaren erabilmen erabatekoa galtzeagatik.

2. Arrazoia baldin bada 1. zenbakiko g) letran ezarritakoa, Parlamentuko kasuko batzordeak proposatu behar du zuzendariaren kargu-uztea, eta zuzendaritzaren titularrak eskubidea izanen du batzorde horretara joateko eta hitza hartzeko. Kargu-uztea Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki beharko du, botoen hiru bostenen gehiengoarekin. Gainerako kasuetan, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari dagokio kargu-uztea erabakitzea.

3. Zuzendariak kargua utzi ondoren, beste bat izendatzeko prozedura abiaraziko da. Kargu uzteko arrazoia baldin bada 1. apartatuko b) letran ezarritakoa, zuzendaritzaren titularrak jarduneari jarraituko du bere karguan, harik eta zuzendari berria izendatu arte. Gainerako kasuetan, zuzendariaren ondokoak hartuko du bere gain zuzendaritza, zuzendari berria izendatu arte.

36. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendaritzaren eginkizunak.

1. Zuzendaritzak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren ordezkotza.

b) Bulegoaren jardueren urteko oroitidazkia, bai eta Bulegoak egiten dituen txosten bereziak ere, Parlamentuari aurkeztea eta informatzea.

c) Bulegoaren ikerketa-arloko politikaren lehen-tasunak urtero ezartzea eta, argitaratu aitzin, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Arartekoari eta Kontuen Ganberari igortzea, horien berri izan dezaten eta koordinatzearen.

d) Bulegoaren eginkizunak betetzean gertatzen diren gorabehera larri guztiak Parlamentuari jakinaraztea.

e) Aholkularitza eta kontroleko barne-prozedura ezartzea, legezketasunaren jarraipena barne, pertsonen prozedura-bermeekiko eta funtsezko eskubideekiko errespetuari dagokionez, besteak beste.

f) Egin beharreko lanak jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoko langileen artean banatzea.

g) Jardueren eta interesen erregistroa kudeatzea.

h) Langileen goi-mailako buruzagi izatea, haien jarduketan zuzendaritza- eta koordinazio-lana egi-

nez, bai eta haien izendapena eta kontratazioa eginez ere.

i) Barne araubidearekin eta gobernuarekin lotutako arlo guztiak antolatzearen eta haien zuzendaritza egitearen arloan dituen ahalmenak betetzea, bai eta Bulegoaren berezko gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea ere.

j) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko aurrekontua prestatzea.

k) Ikerketa batean independentzia eta objektibotasuna arriskuan jar daitezkeenean langileekin eta langileen artean gerta daitezkeen interes-gatazkek ebaztea.

l) Jendeari emandako informazio guztia modu neutral eta inpartzialean ematen dela eta horren dibulgazioa ikerketen konfidentzialtasuna errespetatuz egiten dela bermatzea.

m) Bulegoko langileen errekusazioari eta abstentzioari buruz jasotako eskaerak ebaztea.

n) Foru lege honetako manuak haustegatik zehapenak ezartzea.

o) Foru lege bidez ematen zaion gainerako edozein eginkizun, kontratu publikoei buruzko legedia betez.

2. Zuzendariak ahalmen eta gaitasun tekniko frogatuko persona bat izendatzen ahalko du, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoko langile ez-administrariaren artetik, zuzendariaren ondoko kargurako, zeinari aplikatuko baitzaizkio zuzendariari dagozkion hautagarritasun eta bateraezintasun baldintzak. Zuzendariaren ondokoari dagozkio Bulegoaren zuzendariari laguntzea hark agintzen dizkion eginkizunetan, hura ordezkatzeko aldi baterako absentzia edo ezgaitasun kasuan eta legearekin bat hark eskuordetzen dizkion eginkizunak bere gain hartzea.

II. KAPITULUA

Bulegoaren zerbitzuko langileak

37. artikulua. Izendapena, printzipioak, bateraezintasunak eta kargu-uztea.

1. Administrazio publikoetako funtzionarioek edo/eta horretarako hautatutako langileek beteko dituzte Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren lanpostuak, lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen izaeraren arabera. Langile horiek behartuta daude beren eginkizuna betetzean jakiten dituzten izaera pertsonaleko datuen sekretua gordetzera, baita kargua utzi ondoren ere.

2. Bulegoaren zerbitzuko langileak hautatuko dira berdintasunaren, publikitatearen, merezimen- duen eta esleitutako eginkizunaren arabera gaitasunaren printzipioen arabera, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak ezartzen duen moduan.

3. Lanpostuen zerrenda Bulegoko zuzendariak onetsiko du.

4. Bulegoari atxikitako langileek behar bezalako gaitasun tekniko eta prestakuntza etengabea izan dezaten, hezkuntzako hitzarmenak, akordioak edo protokoloak sinatzen ahalko dira unibertsitateekin edo goi mailako beste edozein hezkuntza-entitatearekin eta izaera bertsuko bulegorekin, horiek autonomia erkidego batekoak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak izan.

38. artikulua. Ikuskariak.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren ikuskariak oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira, goi mailako titulazioa daukaten pertsonen artetik.

2. Ikuskariak agintari-izaera edukiko dute, egiaztatzen eta kasuko lege-baldintzak betez formalizatzen dituzten dokumentuetan jasotako gertakariaren egiazkotasunaren presuntzioaren ondorioetarako.

3. Ikuskariari zuzendariaren bateraezintasun- arrazoi berberak aplikatuko zaizkio.

39. artikulua. Ikuskariaren eginkizunak.

1. Ikuskaria da, espezializazioaren eta lanbanaketaren printzipioen arabera, ikerketa-, ikuskaritza- eta, dagokion neurrian, prebentzio- organoa.

2. Ikuskariaren eginkizunak dira:

a) Foru lege honetako 7. artikuluan aipatzen den ikerketa-eginkizuna.

b) Bulegoaren zuzendariari ikerketa-txostenak eta horien balizko ondorioztapenak proposatzea, azter eta onets ditzan.

c) Zuzendariari helaraztea bere lana hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak.

d) Zuzendariak esleitutako lana planifikatzea.

e) Zuzendariak esleitzen ahal dizkion guztiak.

3. Desadostasunik baldin badago ikuskari batek egin duen ebazpen- edo-txosten proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren edo txostenaren artean, ikuskariak idatziz jasotzen

ahalko du desadostasun hori, eta txosten edo ebazpenean eranskin gisa gehitzen ahalko du.

40. artikulua. Prestatzailea/aholkularia.

1. Lizentziatu bat egonen da, gutxienez ere. Bera izanen da jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren prestakuntza eta ebaluazio arloaren arduraduna, eta oposizio-lehiaketa bidez izanen da hautatua, goi mailako titulazioa daukaten pertsonen artean.

2. Prestatzaile/aholkulariari zuzendariaren bateraezintasun-arrazoi berberak aplikatuko zaizkio.

41. artikulua. Prestatzailearen eginkizunak.

1. Prestatzailea da, espezializazioaren eta lanbanaketaren printzipioen arabera, ebaluatzearen, prestatzearen eta, dagokion neurrian, prebentzioaren arduraduna.

2. Honako hauek dira prestatzailearen eginkizunak:

a) Jardunbide okerren eta ustelkeriaren aurkako borroka- eta prebentzio-neurrien eraginkortasuna kontrolatu eta ebaluatzea.

b) Jardunbide irregularren prebentzioaren eta jardunbide egokien arloko prestakuntza- eta sentsibilizazio-politikak taxutzea, bai eta ebaluazio-adierazleak taxutzea ere, bai administrazio publikoentzat edo haien mendeko entitateentzat, bai entitate pribatuentzat.

c) Zuzendariari helaraztea bere lana hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak.

d) Zuzendariak esleitutako lana planifikatzea.

e) Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendariak esleitzen ahal dizkion guztiak.

42. artikulua. Bulegoko langileak:

Nafarroako jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak bere eginkizunak bete ahal izateko beharrezkoak diren langileak – teknikariak, administrariak, laguntzaileak eta mendekoak – edukiko ditu. Langileak oposizioz edo oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira.

III. KAPITULUA

Baliabide materialak eta finantzaketa

43. artikulua. Aurrekontua eta kontabilitatea

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak esleitu zaizkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak eta

egokiak diren baliabide ekonomikoak eduki behar ditu.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren funtzionamendurako beharrezkoa den zuzkidura ekonomikoak partida bat edukiko du, berriazko izendapenarekin, Nafarroako aurrekontu orokorretan.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendaritzak bere aurrekontu-proiektua egingen du.

4. Bulegoaren aurrekontua Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoko entitateei buruzko araudiaren mendekoa da.

5. Bulegoaren kontabilitatea kontabilitate publikoaren printzipioei eta baimen, xedapen, obligazio eta ordainketa sistemari dago lotuta, aurrekontu-kontrola ziurtatze aldera.

6. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren ondare- eta kontratazio-araubidea, zeina bere organo berekien bidez beteko baita, Foru Komunitateko Administrazioarako araubidea bera izanen da.

44. artikulua. Kanpo kontratazioak

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak zilegi izanen du kontrolaren xede diren arloetan espezialista eta peritu edo aditu direnen zerbitzuak kontratatzea. Egiten diren kontratuak Nafarroako kontratu publikoei buruzko legediari egonen dira lotuta.

2. Zerbitzu espezializatu horiek Bulegoko gainontzeko langileek bete beharreko zintzotasun, neutraltasun, erantzukizun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun araubide berari lotuta egonen dira.

IV. KAPITULUA

Funtzionamendua

45. artikulua. Ikuskaritza.

Foru lege honetan ezarritako araudiarekin bat eta, ordezkio izaeraz, administrazio prozedura erkideari buruzko araudi indardunarekin bat izapidetu eta bideratu beharko du ikuskaritzak ikerketa-espeditente oro.

46. artikulua. Prestakuntza eta prebentzioa.

1. Prestatzaileak egingen ditu prestakuntza- eta ebaluazio-eginkizunak.

2. Prebentzio-eginkizuna ikuskari batek edo prestatzaile batek egingen du, edo bi teknikarien

arteko lankidetzaren bidez eginen da. Prestatzailearen eta ikuskariaren arteko lankidetzaz ezarzen baldin bada, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak izendatuko du arduraduna.

VI. TITULUA **Zehatzeko ahalmena**

47. artikulua. Erantzukizuna.

Arau-hausteen erantzule dira, baita ez-betetze soilaren mailan ere, foru lege honetan tipifikatutako egite edo ez-egiteetan erortzen diren agintariak, zuzendaritza-kargudunak eta 4. artikuluan adierazitako entitateen zerbitzuko langileak.

48. artikulua. Tipikotasuna.

1. Zehatzeko moduko arau-haustek dira foru lege honetan halakotzat tipifikatuta dauden doloak edo erruzko egite edo ez-egiteak.

2. Arau-haustek oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

49. artikulua. Arau-hauste motak.

1. Arau-hauste oso astunak:

a) Aurreikusitako lankidetzaz aktiborako edo informazio-helarazpeneko betebeharrak ez betetzea, lehendabiziko atzerapen baten ondoren eta inongo justifikaziorik gabe jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren errekerimendu espresa aintzat hartu gabe utzi denean.

b) Salaketa-egilearen babesean ez laguntzea.

c) Ikerketak dirauen bitartean informazioa ezkatuan kanporatzea.

d) Bulegoak ikertu beharreko jarduerak, agerian faltsuak direnak, salatzea.

2. Arau-hauste astunak:

a) Informazio-igorpenean atzeratzea justifikaziorik gabe.

b) Ikerketari begira beharrezkoa den dokumentaziorako edo espedienteetarako sarbidea oztopatzea.

c) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak deitutako agerraldira justifikaziorik gabe ez agertzea.

d) Ustelkeriatzat, iruzurrezko jokabidetzat edo interes orokorraren aurkako legez kanpokotzat har daitezkeen gertakariak jakinarazi gabe uztea, asmo txarrez.

e) Diziplina espediente bat edo, kasua bada, zehapen-espediente bat abiarazteko errekerimendua aintzat ez hartzeko erabakia Bulegoari modu arrazoituan jakinarazteko betebeharra ez betetzea.

3. Arau-hauste arinak:

a) Dokumentazioa osatu gabe edo oker igortzea behin eta berriro, justifikaziorik gabe.

b) Ikerketaren xede diren dokumentuak zaintzeko arduragabetasuna.

50. artikulua. Zehapenak

Arestiko artikuluko arau-hausteei honako zehapen hauek aplikatzen ahal zaizkie:

1. Arau-hauste arinak:

a) Ohartarazpena.

b) 2.000 euro bitarterainoko isun hertsatzailea.

2. Arau-hauste astunak:

a) Ez-betetzearen gaineko deklarazioa, eta deklarazio hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

b) 2.001 eurotik 20.000 eurora bitarteko isuna.

3. Arau-hauste oso astunak:

a) Ez-betetzearen gaineko deklarazioa, eta deklarazio hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

b) 20.001 eurotik 60.000 eurora bitarteko isuna.

51. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Tipifikatuta dauden arau-haustek egiteagatik ezartzen diren zehapenak arau-hausteen eta inguruabarren arabera mailakatuko dira, berariaz honako irizpide hauei jarraituz:

a) Berrerortzea, arau-haustea tipifikatzean kontuan hartu ez denean.

b) Interes publikoei eragindako kaltearen edo galeraren garrantzia.

c) Arau-haustek Bulegoaren ikerketa-jardueran eragin duen kaltearen maila.

d) Eragindako kalte edo galerei konponbidea ematea, bidezkoa bada; halaber, norberaren ekimenez arau-haustea zuzentzea.

e) Kontuan hartuko dira proportzionaltasunaren, intenzionalitatearen eta errudutasunaren printzipioak.

2. Ulertuko da berrerortzea dela izaera bereko arau-hauste bat egitea, ebazpen irmo batez hala deklaratu denean.

3. Zehapenaren aplikazioa arau-haustea eragin duen jokabidearen larritasunaren proportzioan egiten da, eta segurtatuko du arau-haustea egitea arau-hauslearentzat ez dela onuragarriagoa hautsitako arauak betetzea baino.

52. artikulua. Zehatzeko eskumena eta prozedura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa da titulu honetan aurreikusitako arau-haustea egin izanaren ondoriozko zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

2. Baldin eta araudi indardunari jarraikiz beste organo bati badagokio diziplina-zehapena ezartzea, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak organo horri eskatuko dio hartu beharreko neurriak har ditzan kasuko diziplina-prozedura haste-ko.

3. Hilabeteko epean, Administrazio eskudunak jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari txosten bat aurkeztu beharko dio, zeinetan adieraziko baita zer neurri hartu diren edo hartu behar diren, eta bestela, zer dela-eta ez den neurririk hartu.

4. Zehapenak ezartzeko, foru lege honetan eta zehapen-prozedura administratiboari buruzko araudi indardunean ezarritako xedapenak eta printzipioak jarraituko dira.

5. Bulegoaren zehapen-jarduketan iraupena ezin izanen da sei hilabete baino gehiagokoa izan, zehapen-prozedura abiarazteko erabakia hartzen denetik zenbatuta, salbu eta kasuaren konplexutasuna dela-eta epe hori luzatzea komeni bada; edonola ere, epe hori ezin izanen da beste sei hilabete baino gehiagokoa izan.

6. Bulegoak, bere urteko txostenean, espedienteak abiarazteko eskaerak eta Administrazioak edo kasuko erakundeak egindako jarduketak jasoko ditu.

Foru lege honek arautzen duen zehapen-espedientearen xedea ezin izanen da inolaz ere izan zigor-zuzenbideko kausa batean zehatutako egitatea, ez eta lehentasunez lan- edo zerga-arloko legedia edo funtzionario publikoei aplikatzeko zaien araubidea aplikatu behar diren kasuak ere.

53. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa. 40/2015 Legea.

1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-haustea eta zehapenak preskribatuko dira:

a) Arau-hauste eta zehapen oso astunen kasuan, hiru urteren buruan.

b) Arau-hauste astunen kasuan, bi urteren buruan.

c) Arau-hauste arinen kasuan, sei hilabeteren buruan; zehapen arinen kasuan, berriz, urtebetere buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunetik. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokabide arau-hauslea bukatzearekin batera hasiko da epea zenbatzen.

Preskripzio-epea eten egiten da zehapen-prozedura penal edo administratibo bat interesduna horren jakitun delarik hasten denean. Epe hori berriz hasiko da zenbatzen baldin eta zehapen-espediente hilabete baino gehiagoz geldirik badago ustezko arau-hausleari ezin egotzizko arrazoiengatik.

3. Zehapenen preskripzio epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena betearazgarria den egunaren biharamunetik edo ebazpenaren aurkako errekurtsua jartzeko epea bukatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Preskripzio epea etenda geldituko da betearazpen prozedura –interesduna horren jakitun delarik– hastearekin batera, eta, prozedura hilabete baino gehiagoz geldirik egoten bada arau-hausleari ezin egotzizkoa den arrazoiren batengatik, preskripzio epeak aurrera jarraituko du.

Zehapena ezartzen duen ebazpenaren aurka ezarritako gora jotzeko errekurtsua ustez ezetsi baldin bada, zehapenaren preskripzio-epea zenbatzen hasiko da errekurtsu hori ebazteko legez ezarritako epea bukatu eta biharamunean.

Lehen xedapen gehigarria. Aplikatzekoak diren ordezkoko legeak.

Kontratuak, aurrekontu-araubidea, administrazio-prozedura eta barne araudia direla-eta foru lege honetan aurreikusi ez den orotarako, foru legedian edo estatu-legedian ezarritakoa aplikatu da ordezkoko izaeraz.

Bigarren xedapen gehigarria. Kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko eginkizunak.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak beteko ditu Sektore Publikoa-

ren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 332. artikulua Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari esleitzen dizkion eginkizunak, eta Nafarroako Foru Komunitateko organoa izanen da ondorio horietarako.

2. Haren eginkizunak aipatutako 332. artikulua-ren 6, 7 eta 8. apartatuetan esleitutakoak izanen dira, Nafarroako lurralde-eremurako.

3. Nafarroako Parlamentuak, haren Erregelamenduak ezartzen duen moduan, denik eta informazio zabalena jasoko du Bulegoarengandik, kontratazio publikoaren eta arlo honetan hartzen diren arau-hobekuntzako ekimenen kontrola eta zaintza ahalbidetzeko.

4. Bulegoak, halaber, Estatuko organo eskudonekiko eta Europako erakundeekiko koordinazio-eginkizunak beteko ditu kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko eginkizunetan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren atala.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren atal batek beteko ditu azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikulua Ebaluazio Bulego Nazionalari esleitzen dizkion eginkizunak: obra- eta zerbitzu-ematikidako kontratuen jasagarritasun finantzarioaren analisia, eta 333. artikulua-ren 3. apartatuak aipatzen dituen nahitaezko txostenak egitea.

2. Erregelamenduz zehaztuko da atalaren osaera, eta Nafarroako Gobernuak beharrezko diren baliabideak emanen ditu hark bere eginkizun ekonomiko eta finantzarioa bete ahal dezan.

Lehen xedapen iragankorra. Lobbyen eta lobbyzaleen jarduna arautzea.

Lobbyen jardura arautzeko eta haien erregistroa eta jokabide-kodea sortzeko, aintzat hartuko

da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearen IV. Tituluan (Interes taldeak) ezarritakoa, eta araudi hori izanen da aplikatuko dena lobbyen eta lobbyzaleen jardunari buruzko araudi bat onetsi bitartean.

Bigarren xedapen iragankorra. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak proposaturik, Nafarroako Gobernuak onetsiko du organo honen antolamendu- eta funtzionamenduerregelamendua, bai eta aurrerago eginen zaizkion aldaketak ere.

Erregelamendu hori sei hilabeteko epean onetsiko da, Bulegoaren zuzendaria izendatzen dene-tik aitzina.

Hirugarren xedapen iragankorra. Giza baliabideak eta baliabide materialak.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa abian jartzeko, Nafarroako Gobernuak zainduko du Bulegoak bere funtzionamendurako behar dituen bitarteko pertsonal eta materialak badauzkala, eta zilegi izanen du zenbait langile zerbitzu-eginkizunetan atxikitzea lanpostu horietan.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa”.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa

ATARIKOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Lege proposamena izapidetu du, zeinaren hirugarren xedapen gehigarriaren bidez aldatu egiten baita azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Aipatu 19/1996 Foru Legearen aldaketa onesteko, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoa, hala ezartzen baita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 25. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 152. artikuluan. Hori dela eta, erauzi egin da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru

Lege proposamenetik, eta honako foru lege proposamen hau hezuramitzera igaro da.

Aldaketa-sorta bat da, xedetzat duena bateraezintasunei buruzko araudia Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren arauetara egokitzea, Goi karguen jardueren eta interesen erregistroari dagokionez –Bulego horrek kudeatua izatera pasako da erregistro hori– eta bateraezintasunen arloko zehatze-eskumena Bulego horri ere emateari dagokionez.

Artikulu bakarra. Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen honako manu hauen testua jarraian ematen dena izanen da:

Bat. 8. artikulua. Kudeaketa-organoa.

“Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak independentzia osoz kudeatuko du Goi karguen jardueren eta interesen erregistroa, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan”.

Bi. 10 artikulua. Informazioa Nafarroako Parlamentuari.

“Foru Lege honetan ezarritako bateraezintasun araubidearen kontrolaren gardentasuna ziurtatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak, sei hilabetean behin, informazioa igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, goi karguek aitortpena egiteko betebeharra nola bete duten eta foru lege honen aurka egin diren arau-hausteak eta ezarri diren zehapenak ere adieraziz”.

Hiru. 11. artikulua. 3. apartatua.

“3. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak aitortpena aztertuko du eta, akats formalik aurkitzen baldin badu, interesdunari eskatuko dio akats hori zuzendu dezan”.

Lau. 12. artikulua. 5. apartatua.

“5. Ondarearen gaineko aitorpenarekin batera –zeinean jasotzen baitira haren ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak–, goi karguak bere baita emanen dio Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoari, banku entitateei ziurtagiri bat eska diezaien, data horietan aitortutako kontu korranteetan dauden saldoei buruzkoa”.

Bost. 17. artikulua. 1. apartatua.

“1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoak, edozein zehapen espediente abiarazi aitzin, aurretiazko jarduketa erre-serbatuak egiten ahalko ditu espedientea abiaraztea justifikatzen duen inguruabarrik ba ote den zehaztearren”.

Sei. 19. artikulua. 1. eta 2. apartatuak.

“1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendaria da zehapen prozedura abiarazteko organo eskuduna; instrukzioa egiteko organo eskuduna, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendariak izendatutako funtzionarioa da.

2. Zehapen-espedientea ebaztea jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren zuzendariari dagokio”.

Xedapen gehigarri bakarra. Garapen-arauak.

Nafarroako Gobernuak foru lege honen artikulua bakarraren bat eta sei apartatuen edukia eta norainokoa sei hilabeteko epean garatuko du, eta behar diren aldaketak egiten ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari goi karguen jardueren eta interesen erregistroaren funtzionamendua arautzen duten erregelamenduzko arauetan.

Xedapen iragankor bakarra. Erregistroaren kudeaketarako epea.

1. Jokabide egokien Bulegoa goi karguen jardueren eta interesen erregistroaz arduratzeak 2020ko irailaren 1etik aurrera izanen du indarra.

2. Jokabide egokien Bulegoa aipatutako erregistroaz egiazki arduratzen ez den bitartean, erregistro hori Nafarroako Gobernuko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak jarraituko du kudeatzen, eta indarrean jarraituko dute azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 8. eta 19. artikuluek eta hura garatzen duten erregelamenduzko arauak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa seme-alabatasunari dagokionez aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa seme-alabatasunari dagokionez aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa seme-alabatasunari dagokionez aldatzekoa

ATARIKOA

Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioak, "Foru Berria" deritzonak, seme-alabatasuna zehazteko sistema osoa eta itxia dauka, biderik ematen ez duena ordezko edo osagarri gisa beselako zuzenbiderik erabiltzeko (Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaia, 1994ko abenduaren 22koa, eta Konstituzio Auzitegiaren 236/2000 epaia, urriaren 16koa). Eta, Nafarroaren sistema horretan, ezertan galarazi gabe Erregistro Zibilari buruzko Legean ezarritakoa, aitortpena izan da ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna ez-judizialki zehazteko bidea, zabalki onartua izan baita, ezen Konpilazioko 69. Legeak ez du horren baliozkotasuna baldintzatu inolako auresuposamendutara; ez du horrelakoetara jo aitortpena adingabeena edo judizialki aldaturiko gaitasuna duten pertsonena denean. Hala eta guztiz ere, aitortutako pertsonaren ordezkarri legalak aurkaratu ahal izan du "horretarako arrazoi zuzena izanik"; eta, gaitasuna erdietsi edo berreskuratu ondoren, seme edo alabak berak izan du hori diskrezionalki egiteko aukera.

Horrenbestez, nahiz eta Konpilazioan seme-alabatasuna arautzen duten legeen interpretazio bateratu eta sistematikoak modua ere eman seme-alabatasun zehatz bat aurkaratu eta, gero batean, aitortpena egiteko, kontua da ezen, beste

kasu batzuetan aukera hori ez egoteaz gain, adindunaren baimenik ezak edo aitortpenaren aurkartzearen bideragarritasunak gurasoari itxi egiten ziotela ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren zehaztapena egia biologikoaren arabera egiteko bide oro, Konpilazioak ez baitzion legitimaziorik ematen seme-alabatasuna aitortzeko akziorako, eta azken hori seme edo alabari eta ez beste inori ematen ziolako (71. b legea).

Konstituzio Auzitegiaren epai jada aipatuak, 2000ko urriaren 16koak, adierazi zuen ezen gurasoak bere gurasotasuna aitortua izateko legitimaziorik ez izateak ez zuela urratzen berdintasunaren printzipio konstituzionala, argudiatuz ezen Konpilazioan bildutako araubidea zeraren agerpena besterik ez zela, "nafar legegileak aitortuta dituen eskumenen barruan arau-taxuketarako askatasuna erabiltzearena, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren zehaztapenerako demanda aurkezteko legitimazioa duen pertsona hautatzeari eta horretarako boterea duten pertsonak izendatzeari dagokienez".

Alabaina, Konstituzio Auzitegi horrek berak, zenbait urte geroago, deklaratu zuen inkonstituzionala zela Kode zibileko 133. artikulua, ezkontzaz kanpoko gurasoa legitimaziorik gabe uzten zuen heinean seme-alabatasunaren erreklamazioa egiteko egoera-edukitzarik ez zegoenean, oinarri gisa harturik gabetasun horretan uzteak urratu egiten zituela Espainiako Konstituzioaren 39.2 eta 24.1 artikulua (Konstituzio Auzitegiaren 273/2005 epaia, urriaren 27koa, eta 52/2006 epaia, otsailaren 16koa).

Epai horren ondorioz, zenbait zalantza sortu ziren 71. b) legearen konstituzionaltasunari buruz, kontuan izanik seme-alabatasunari oinarri ematen dioten printzipio konstituzionalei buruzko jurisprudentziaren bilakaerak agerian uzten zituen oharkizun berriak.

Konstituzio Auzitegiaren 41/2017 epaiak, apirilaren 24koak, Konpilazioko 71.b) legearen konstituzio-kontrakotasuna deklaratzeko adierazi zituen arrazoi berberengatik: ez delako "bateragarria gertatzen 39.2 artikulua gurasotasunari buruzko ikerketa ahalbidetzeaz jasotzen duen aginduarekin, ez eta, horrexegatik,

benetako babes judizialerako eskubidearekin ere (Konstituzioko 24.1 artikulua), eskubide horrek jurisdikziorako sarbidea izatea esan nahi duen aldetik”.

Era horretan, Konstituzioaren interpretatzaile gorenak arrazoitzen du 2000ko urriaren 16ko bere epaian adierazitakoarekiko kontraesanik ez dagoela, esanez azken epai haren xedea mugatu zela berdintasun-eskubidearen (Konstituzioko 14. artikulua) balizko urraketarik ote zegoen aztertzeraz, auzotasun zibilararen araberako tratamendu ezberdina ematen zela-eta, ikusirik Konpilazioko 71. Legearen edukia murriztaileagoa zela zuzenbide zibil erkidearena baino, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren erreklamazioari zegokionez. Alta, epai horretan ez zen inolako adierazpenik egin ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren deklarazioa eskatzeko legitimazio aktiboa murriztearen ondorioz Konstituzioko 24.1 eta 39.2 artikuluek jasan lezaketen balizko urraketari buruz. Gai hori, ordea, ebatzi zen, bai, zuzenbide zibil erkideko araubideari zegokionez, Konstituzio Auzitegiaren 273/2005 eta 52/2006 epai horietan, jadanik adierazitako zentzuan.

Halatan, Konstituzio Auzitegiak egiten duen baieztapena, Forua konstituzioaren kontrakoa dela gurasoari ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna eskatzeko legitimaziorik ez aitortzeagatik, egiten du horretarako oinarri harturik aipaturiko konstituzio-arauen urraketa, eta nafar legegilea premiatzen du sortutako egoerari urtebeteko epean eman diezaion araugintzazko erantzuna; zehazkiago, eskatzen dio “ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren erreklamazioa egiteko gurasoek daukaten legitimazioa orokortasunez arautu dezan, kasua bada zerrendatuz zer betekizun josten diren beharrezko, seme-alabatasun-zehaztapeneko bide horren abusuzko erabilera eragozteko, betiere jokaturik benetako babes judizialerako eskubidearekiko errespetuaren mugapean (Konstituzioko 24.1 artikulua)”.

Horrela, Foru Lege honen xedea da araugintzazko erantzun hori ematearen agindu konstituzionala betetzea.

Legegintza-zeregin horretan, lege honek egiten duen arauketa ezin da mugatu 71. b) Legearen aldaketa puntual bat egitera. Alde batetik, horrek eragina duelako kapitulu bereko beste lege batzuetan, engranaje itxi eta osoa den nafar seme-alabatasun-araubidearen barrenean batzuen eta besteen artean dagoen elkarloturaren poderioz. Bestetik, helburu parlamentario izaki, gaur den egunean, Konpilazioaren aldaketa integral bat egitea, halaber delako egokia beste afera batzuk ere aldatzea, erreformatu beharra daukatela adierazi

denekoak, halako moduz non, gai honetan eragina izan lezaketen etorkizuneko erreformaren nondik norakoak ezertan galarazi gabe, jadanik oraingo erreforma honen xedean sartu beharrekoak baitira seme-alabatasun-akzioekin zuzeneko zerikusia daukatenak.

Araugintzazko erantzun hori nafar zuzenbide zibilararen berezitasunekin koherentea den modu batean oinarritzerakoan, funtsezkotzat jo da ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna zehazteko modu gisa nafar testuak aitortpenari egiten dion abegi zabala mantentzea; izan ere, aitortpena berez den zientzia-deklarazioa oinarritzen da pertsonen intimitateari dagozkion nondik norakoen jakitean, familia-orekan eta seme-alabatasun-egoerari darraikion segurtasunean.

Hori dela-eta, Konstituzio Auzitegiak ezarritakoa betetzen da aitari eta amari ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioaz baliatzeke legitimazioa emanaz, baina, seme-alabatasuna oraindik zehaztu gabe dagoen kasuetan, prozedurarako aurrebaldintza bezala ezarri aurretiazko aitortpena, zeinaren esparrua zabalagotu egiten baita jadanik zendutako seme edo alaba barne hartzeraino, orain arte ez baitzen ezein kasutan aintzat hartzen eta orain hori posible egiten baita zendutako horrek ondorengo ahai-deak utzi izanaren kasuetarako.

Horrela, aitortpena seme-alabatasuna zehazteko eraginkorra ez den kasuan soilik izanen du gurasoak modua seme-alabatasuna deklaratzeko akziora jotzeko, barne dela jada zendutako seme edo alabaren seme-alabatasunerako akzioa, aipaturiko baldintzetan.

Horrekin batera, eta Konstituzio Auzitegiak berak aipaturiko mugekin, “seme-alabatasun-zehaztapeneko bide horren abusuzko erabilera eragozteko”, eta, batez ere, beharrezkoa den oreka bermatzearen familia-egonkortasunaren, seme edo alabaren interes gailenaren eta egia biologikoaren artean, eta benetako babes judizialerako eskubidearekiko errespetuz, neurritzotzat jo da akzioaren iraungitzerako epe bat ezartzea, urtebetekoa, bai eta modua ematea kasuko agintari judizialak era horretan zehaztu den seme-alabatasunaren eraginak mugatu ahal izateko.

Aitortpenaren arauketa bera ere aldatu egiten da. Zehazki, hari eraginkortasuna guztiz kentzeko aukerari dagokionez, baldin eta pertsona aitortuaren baimena beharrezkoa ez bada, eta orain arte “aurkaratze” deitu zaion horren izaeraren arabera koagoa den araubide bat lortzearen. Halatan, aurkaratzea “errefus” gisa ezaugarritzen da, pertsona aitortuaren interes gailenean oinarritu beha-

rrekoa (eta ez “arrazoi zuzena” delakoan) eta borondatezko jurisdikzioaren tramiteen bitartez hezurmamitua; gainera, hori formalizatzeko epea nabarmen laburtzen da, urtebetekoa izanen baita, lege honek seme-alabatasunari buruzko akzioei dagokienez egiten dituen gainerako aldaketen ildo beretik. Horrekin batera, eta egoera zibila ezin xedatuzkoa izatearen irizpidez jabeturik, bertan behera uzten da pertsona aitortuak adin-nagusitasunera iristen zenean edo bere gaitasuna berreskuratzean aitortpena errefusatzeko zeukan diskrezionaltasuna.

Seme-alabatasunari buruzko akzioei dagokienez, eta xedapen orokorren artean, esanbidez ezartzen da ezen seme-alabatasuna deklaratzeko akzioaz baliatzeko legitimaturiko pertsona orok halaber duela akzioa seme-alabatasuna aurkaratzeko; eta hori, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko aldera gurasoaren alde sortu berria den akzioaren nahitaetzko osagarri bezala ez ezik, legitimazio bikoitz horri buruz orain arte sorturiko zalantzak argitzearren.

Aurkaratze-akzioetan, aitortpenaren eta deklaratorako akzioaren araubide berriak agerian utzi du akzio bat sortzeko premia dagoela, adingabearen edo judizialki aldaturiko gaitasuna duen pertsonaren legezko ordezkariarentzako, hark aitortpenaren aurka adierazitako errefusa ezetsi egin denean, xedea izanik aitortpen-egilearen gurasotasunik eza frogatzea edo era horretan zehazturiko seme-alabatasunaren eraginen murrizketa lortzea. Era berean, aurkaratze-akzioa ezartzen da pertsona batentzat, baldin eta aitortpena egin bazitzaion adingabea zelarik edo gaitasuna judizialki aldatuta izan zuen garai batean. Akzio hori gaitasuna lortzen edo berreskuratzen duenean erabili ahalko du, haren legezko ordezkariak jadanik ez badu aurkaratzea egin. Aipaturiko akzio horiek halaber ezartzen dira hil ondoren aitortua den pertsonaren ondorengo ahaideei dagokienez.

Araubide horren eta, zehazkiago, “aitortpenaren errefusa” delakoa taxutzearen ondorioz, bereizketa egin beharra suertatu da: batetik, aitortpena bere horretan eta adostasunaren akatsagatik aurkaratzeko akzioa, eta bestetik, era horretan zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioa.

Beste xedapen batzuk aldatu egin dira aurkaratze-akzioei zegokienez. Halatan, Erregistro Zibilararen araubide orokorraren salbuespena jaso da, tituluaren baliogabetasuna ez eragoztearren eta bi legediak harmonizatzearren; gurasotasun biologikoari buruzko jakintzarik eza jaso da akzioaren “dies a quo” delakoa zehazteko parametro gisa, jakiteko modua izatearen printzipioari

jarraikiz (Konstituzio Auzitegiaren 138/2005 eta 156/2005 epaiak), zeina 71. legearen testu berrian ere jasota agertzen baita; eta senarraren gurasotasuna aurkaratzeko akzioa sortu da, amaren mesedetan, betiere aurkaratze hori seme edo alabaren interesean oinarritzen bada.

Azkenik, gainerako aldaketak deklaratzeko akzioen esparruan egin dira, eta gauzatu dira, alde batetik, seme edo alabari modua emanez ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren deklaratorako akzioa bere bizialdi osoan egikaritzeko – bertan behera utzi dira akzioa oinarritzeko lehena go eskatzen ziren inguruabarrak, eta esanbidez adierazi da, haren ondorengo ahaideen legitimazioaren inguruan sortu ahal izan ziren zalantzak kontuan harturik, adingabetasunean zehar akzioa legezko ordezkariak egikaritu dezakeela–; eta, bestetik, ezkontzazko seme-alabatasunerako akzioa egoera-edukitzeaz egikaritze aldera hirugarrenei aitorturiko legitimazioa hedatuz ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunera.

Artikulu bakarra. Aldaketak, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa onetsi zuen martxoaren 1eko 1/1973 Legeari eginak.

Jarraian zerrendatzen diren Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioko legeak aldatzen dira:

1. 69. Legea aldatzen da. Testu hau izanen du:

“69. LEGEA. Aitorpena

a) Forma.

Aitorpena egin beharko da Erregistro Zibilararen arduradunari egindako adierazpenaren bidez edota beste agiri publiko baten bidez.

Gurasoek seme-alabatasuna aitortzeko dezaitez biek batera edo bananduta. Bananduta eginez gero, aitortpen horretan ezin izanen dute adierazi beste gurasoa nor den, salbu eta nortasun hori aldeztu aurretik zehaztuta dagoenean.

b) Gaitasuna.

Aitorpena 14 urte baino gehiagoko pertsona orok egin dezake. Emantzipatu gabeko adingabea bada edo gaitasuna judizialki aldatuta badauka, beharrezkoa izanen da epailearen onespena, Fiskaltzari entzutea eman ondoren.

c) Baldintzak.

Adindunaren edo adingabe emantzipatuaren aitortpenak haren esanbidezko edo isilbidezko adostasuna izan beharko du.

Emantzipatu gabeko adingabearen edo epaileak aldaturiko gaitasuna duen pertsonaren aitortpe-

na Erregistro Zibilean inskribatu ahalko da, ezertan galarazi gabe haren legezko ordezkariak duen errefusa adieraztea, hurrengo apartatuan ezarritakoari jarraikiz eta pertsona aitortuaren interes gailenean oinarrituz.

Halaber aitortu ahalko da jadanik zendutako seme edo alaba bat, baldin eta ondorengo ahaideak utzi baditu. Horiek adindunak edo adingabe emantzipatuak baldin badira, aitortuaren haien esanbidezko edo isilbidezko adostasuna izan beharko du. Emantzipatu gabeko adingabeak badira, edo epaileak haien gaitasuna aldatu badu, aitortuaren inskribatzeko modukoa izanen da, baina halaber zilegi izanen da haien legezko ordezkariak errefusa adieraztea, haien interes gailenean oinarriturik.

d) Aitortuaren errefusatzeari.

Errefusa formalizatu beharko da aitortuaren jakinarazi zenetik urtebeteko epean; jarraitu beharko dituen izapideak Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legeak ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeko ezartzen dituenak dira, eta baietsi egiten da aitorturiko pertsonaren edo haren ondorengo ahaideen interesaren aurkakoa denean”.

2. 70. Legea aldatzen da. Testu hau izanen du:

“70. LEGEA. Seme-alabatasunari buruzko akzioak. Xedapen orokorrak.

Aitatasuna eta amatasuna erreklamatu eta aurkaratu ahal izanen dira mota guztietako frogabideak erabiliz, konpilazio honetako xedapenei jarraiturik. Epaileak ez du demanda onartuko, horrekin batera ez bada aurkezten demanda oinarritzen den egitatei buruzko frogahasikinik.

Ezin da seme-alabatasunik erreklamatu legez zehaztuarekin kontraesanean dagoenik, aldi berean bigarren hori aurkaratzen ez bada. Konpilazio honek deklaratu-akzioa egikartzeko legitimazioa aitortzen dien pertsonen halaber izanen dute legitimazioa, eta epe berean, kontraesanean dagoen seme-alabatasuna aurkaratzeko; are aurkatu-akzioa modu beregainean egikartzeko legitimaziorik ez dutenean ere.

Epaia irmoz ezarritako seme-alabatasuna ez da ezein kasutan aurkaratzen ahalko.

Prozeduran zehar, epaileak egoki deritzen neurri guztiak hartuko ditu, emantzipatu gabeko adingabea den edo epaileak aldatutako gaitasuna duen pertsona babesteko, pertsona horren seme-alabatasuna demandaren xede denean; bai eta haren ondasunak babesteko ere.

Pertsona horien legezko ordezkariak edo Fiskaltzak egikari ditzakete, bata nahiz besteak, pertsona horiei dagozkien akzioak.

Demandatzailea hildakoan, horren jaraunsleek zilegi izanen dute jadanik abiatuta dauden akzioak egikaritzen jarraitzea.

Aurkatu-akzioak

Ezertan galarazi gabe Erregistro Zibilari buruzko legediak erregistro-idazpenen aurkatu-eari eta zuzentzuari buruz dioena, seme-alabatasunaren aurkatu-eari honako xedapen hauei jarraikiz egiten da:

a) Amatasunaren aurkatu-eari.

Jaiotza-inskripzioan agertzen den amatasuna auzibide zibilean aurkaratu ahalko da, frogatzen baldin bada erditzea sinetsarazi dela edo ustezko seme edo alaba eta benetan jaiotzen dena pertsona berbera ez direla.

Amatasunak bat egiten badu egoera-erdiarekin, amatasun hori zuzenean aurkaratu ahalko duten bakarrak semea edo alaba izanen dira, alde batetik, eta, bestetik, bere amatasunaren inskripzio faltsuaren edo horren ondoriozko seme-alabatasunaren jatorri diren egitateetan kontzienteki eta borondatez parte hartu ez duen emakumea.

Amatasunarekin bat egiten duen egoera-erdiarekin ez badago, interes zilegi eta zuzenekoa dutenek ere aurkaratu ahal izanen dute amatasun hori.

b) Senarraren aitatasuna aurkatu-eari.

Amaren senarraren aitatasuna senar horrek aurkaratu ahalko du harik eta urtebete igarotzen den arte seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatu zenetik; baina epe hori ez da igarotzen hasiko jaiotzaren berririk ez daukan bitartean, salbu eta, horren berri izanda ere, ez badaki aita biologikoa ez dela; eta kasu horretan, urtebeteko epea igarotzen hasiko da horren jakitun bihurtzen den unean edo horren jakitun izateko aukera moduzkoa izan duen unean.

Baldin eta senarra hil egiten bada aurreko paragrafoan zehazturiko epea igaro aurretik, horretarako akzioa oinordeko bakoitzak izanen du epe hori burutu bitartean. Hiltzen bada inskripzio hori egin ez delarik, jaiotzaren edo bere aitatasunaren berri izan gabe, haren oinordekoek zilegi izanen dute aipaturiko epean aurkatu-eari abiaraztea.

Seme edo alabak berak ere aitatasuna aurkara dezake urtebeteko epean, behar adinako gaitasunarekin.

na eskuratu edo berreskuratzen duenetik edo, bestela, beraren jaiotza inskribatzen denetik, hori geroagokoa izanez gero.

Amak zilegi izanen du aurkaratzea, seme edo alabaren ordezkari gisa eta haren interesaren alde, seme edo alaba adingabe emantzipatugabea denean edo gaitasuna epaileak aldaturikoa duenean. Epea urtebetekoa izanen da, inskripzioaren unetik hasita edo senarraren aitatasunik ezaren berri izan duen unetik hasita.

c) Aitorpenaren aurkaratzea.

Adostasunaren akatsa tarteko dela egin den aitorpen bat haren emaileak aurkaratu ahalko du akatsaren desagertpenaren ondorengo urtean zehar.

d) Aitorpenaren bitartez zehazturiko aitatasunaren aurkaratzea.

Adingabe emantzipatugabearen edo epaileak aldaturiko gaitasuna duenaren legezko ordezkariak zilegi izanen du, hark aitorpena dela-eta adierazitako errefusa ezetsi bada, horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea, aitorpena egin duenaren gurasotasuna egiazkoa ez izateagatik. Halaber, seme edo alabaren edo horien ondorengo ahaideen interesetan zilegi izanen du, hil osteko aitorpena denean, akzioa egikaritzea, aitorpenaren ondorioak epaian murriztu daitezzen, 72. Legeak adierazitakoaren arabera. Bi kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea urtebetekoa izanen da, seme-alabatasuna zehaztuta geratu denetik.

Adingabetasun-aldian edo aldaturiko gaitasuna izan duen aldian aitortua izan den pertsonak, edo adingabe zirelarik nahiz adostasuna emateko behar adinako gaitasunik ez zeukatenean aitortua izan zen pertsona zenduaren ondorengo ahaideek, zilegi izanen dute horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea adin-nagusitasuna edo emantzipazioa lortu ondoko nahiz akzioa egikaritzeko behar adinako gaitasuna berreskuratuz ondoko urtean zehar, baldin eta haien ordezkariak ez badu aurreko paragrafoari jarraituz jadanik hori egin.

Horrela zehazturiko gurasotasuna halaber aurkaratu ahalko dute horrekin kalteturik suertatzen direnek, gurasotasuna inskribatu ondorengo lau urteetan”.

3. 71. Legea aldatzen da. Testu hau izanen du:

“71. LEGEA. Deklaratze-akzioak.

a) Ezkontzako seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa

Aitak, amak eta semeak edo alabak edonoiz erreklama dezakete ezkontzako seme-alabatasuna, semearena edo alabarena. Egoera-erregulazioa izanez gero, akzioa egikari dezakete interes zilegi eta zuzeneko duten hirugarrenek ere.

b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa.

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa honako hauek egikaritu ahalko dute:

1. 1.- Seme-alabek, beren bizitza osoan zehar. Adingabeak direnean edo gaitasuna epaileak aldatuta daukatenean, akzioa haien legezko ordezkariak eta Fiskaltzak izanen dute.

Baldin eta adingabe zirelarik edo gaitasuna epaileak aldatuta zeukatelarik hil baziren, akzioa haien ondorengo ahaideek egikaritu ahalko dute.

2. Gurasoek, ustezko aitatasun edo amatasunaren berri izan ondoko edo horren berri izateko aukera moduzkoa izan ondoko urtebeteko epean.

Seme-alabatasuna zehaztu gabe dagoenean, beharrezkoa izanen da bere gurasotasuna deklaratu izan dadila nahi duen gurasoak alde aurretik aitorpena egin izana 69. Legeak ezarritakoari jarraituz, eta horren arabera seme-alabatasun-zehaztapena ezin egin izana aitorturiko pertsonaren edo, kasua bada, haren ondorengo ahaideen adostasunik ezagatik, edo kasuan kasuko legezko ordezkarien errefusa judizialki baietsia suertatzeagatik.

Kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea eten egingen da aitorpena egiten den unean, eta epekontaketa jarraitu egingen da adostasunik eza frogatzen denetik edo errefusa baiesten duen ebazpena irmo bihurtzen denetik.

Deklaratze-akzioa baiesten duen epaiak zehaztu egingen du seme-alabatasuna, baina zilegi izanen du, seme edo alabaren nahiz haren ondorengo ahaideen interesetan, haren eragina murriztea, 72. Legeak xedatuari jarraituz.

3. Zuzeneko interes zilegi bat daukaten pertsonak, baldin eta egoera-erregulazioa badago, eta edonoiz.

c) Deklaratze-akzio guztietako legitimazio pasiboa.

Aita edo ama hilda badago, haren jaraunsleen aurka egikaritu ahal izanen dira aitatasunaren edo amatasunaren deklarazio judizialerako akzioak.

4. Honako aldatuta hauek sartzen dira 72. legean:

“a) Haren izenburua “Seme-alabatasunaren edukia eta eraginak” izatera pasako da.

b) Honako testu hau izanen duen bigarren apartatu bat txertatzen da:

Arestikoa gorabehera, aurreko legeek berariaz aurreikusten dituzten kasuek aipatzen dituzten ebazpenetan, epaileak zilegi izanen du arrazoiturik xedatzea ezen seme-alabatasunaren eraginak harreman horren deklaratzeko hutsezkoak izanen direla, edo eragin horien norainokoa murriztea.

c) Hurrengo paragrafoak, hurrenez hurren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoak izatera pasako dira.

d) Horrez gain, bigarren paragrafoa zenak, zeina hirugarren paragrafoa izatera pasatzen baita, honako testu hau izanen du:

Aitatasuna edo amatasuna epaiketa bidez gurasoaren errefus funtsatugabearen aurka zehaztu bada, edota guraso hori kondenatzen

duen epai penalaren bidez, orduan, guraso horrek ez du izanen guraso-ahalik edo seme nahiz alabaren gaineko bestelako babes-eginkizunik, ezta lege-aginduzko eskubiderik ere, haren ondarearen gain edota haren mortis causa oinordetzaren gain. Eta seme edo alabaren beraren edo horren legeko ordezkariaren borondatez bakarrik jarriko zaizkio seme edo alabari gurasoaren abizenak”.

Xedapen iragankorra.

Aitorpen-errefusaren iraungitze-epeen kontaketa, bai eta lege honetan arautzen eta aldatzen diren akzioen iraungitze-epeena ere, lege honek indarra hartu eta biharamunean hasiko da, horiek jaioarazten dituen egitatea lehenagokoa den kasuetan, baldin eta oraindik igaro gabe badago ordura arte indarrekoa zen legeak ezarritako epea.

Azken xedapena.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerabidea egin dezan 2030 Agendako 17.2 helburuan ezarritakoaren betetzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerabidea egin dezan 2030 Agendako 17.2 helburuan ezarritakoaren betetzeari dagokionez".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Aurrerabidea egin dezan 2030 Agendako 17.2 helburuan ezarritakoaren betetzeari dagokionez, programa-akordioan ezarritakoa betez eta legegintzaldi hau amaitu baino lehen aurrekontuaren % 0,5 bideratuz garapenerako laguntza ofizialera.

2. Sektoreko entitateekin (GGKEen Koordinakundea) eta parlamentua osatzen duten talde politiko guztiekin adostasunetara irits dadin garapenerako laguntza ofizialera bideratutako aurrekontuaren ehunekoa zehazteko irizpideen inguruan.

3. Zorrotz bete ditzan Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua arautzen duen irailaren 21eko 213/2011 Foru Dekretua eta haren funtzionamendurako erregelamendua, eta gutxienez ere urtean bitan dei dezan.

4. GGKEen Koordinakundearekin elkarriketa iraunkor eta produktiboa izan dezan, Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendariaren prestaketan parte-hartze zabala eta adostasuna egon daitezen".

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da, Haur Hezkuntzak duen hezkuntza-izaera ukaezina ikusita, aipatu zikloa departamentuak berak kudeatzearen alde egin dezan, eta, helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza arloko eragileekin batera plangintza bat diseina dezan, fasez fase gauza daitekeena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da, Haur Hezkuntzak duen hezkuntza-izaera ukaezina ikusita, aipatu zikloa departamentuak berak kudeatzearen alde egin dezan, eta, helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza arloko eragileekin batera plangintza bat diseina dezan, fasez fase gauza daitekeena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du, Haur Hezkuntzak duen hezkuntza-izaera ukaezina ikusita, aipatu zikloa departamentuak berak kudeatzearen alde egin dezan, eta, helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza arloko eragileekin batera plangintza bat diseina dezan, fasez fase gauza daitekeena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kronograma bat aurkez dezan sei hilabeteko epean, 2018-2020 urteetan egin beharreko jarduketena, gutxienez ere honako alderdi hauek jasoko dituena:

a.- Araudi bat taxutzea, Otik 6 urtera bitarteko etapa hau garatuko duena –bereziki, lehenengo zikloa– eta etapa hori arautuko duena bai ikaste-txe publikoetan bai pribatuetan, Nafarroako Foru Erkidegoko berezko bi hizkuntzetan emanen dela bermatuz, familien eskaeren arabera.

b.- Otik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasuna arian-arian ezartzeak izanen lukeen kostuari buruzko azterlana, honako hauek adierazita: ratioak, ukitutako ikasleen portzentajea, epeak, eremuak, eraikinak, eta abar.

c.- Hezkuntza Departamentuaren mendeko erakunde bat eratzea, etapa horretako lehen zikloaren hezkuntza izaera bermatu eta izaera horretan sakonduko duena, honako hauek adierazita: ratioak, irizpide pedagogikoak, metodologiak, beharrezkoak diren profesional-motak, eta abar, hezkuntza-etapa horren helburuak garatzen lagunduko dutenak. Halaber, doakotasunean aurrerabidea egiten dela begiratu du, bai eta titulartasun publikoko haur-eskolak Hezkuntza Departamentuaren mende egotera arian-arian eta ordenaz igarotzen direla ere. Erakunde horretan egonen dira, gutxienez ere, Eskubide Sozialetako Departamentua, udalak eta Nafarroako 0-3 Plata-forma.

d.- Ikuskaritza Zerbitzua nola inplikatu den etapari buruz dagoen araudiaren nahiz dimentsio pedagogikoaren kontrol zorrotzean, garapenean eta laguntzan.

e.- Etapa horretan egun lan egiten duten pertsonen buruzko txostena, haien lan- nahiz ordain-sari-eskubideekiko errespetu osoa eta baldintza duinak bermatzeko, trantsizio-etapa horretan eta gero behin betikoz”

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iruñeko espetxera ekar ditzan zigorra beste espetxe batean betetzen ari diren preso nafar guztiak edo errotzea Nafarroan duten pertsona guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iruñeko espetxera ekar ditzan zigorra beste espetxe batean betetzen ari diren preso nafar guztiak edo errotzea Nafarroan duten pertsona guztiak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua, zehazki Barne Ministerioa, premiatzen du ahalik lasterren Nafarroako Parlamentuari honako informazio hau igor diezaion:

a. Nafarroakoak izan edo Nafarroan erroturik dauden (halakotzat harturik espetxean sartu baino gutxienez ere urtebete lehenagotik Nafarroan erroldatuta daudenak) pertsonetatik zenbat ari

diren zigorra betetzen Estatuko beste espetxe batzuetan, eta zeinetan.

B. Beste espetxe batean daudenetatik zein diren beraiek erabakita han daudenak eta zein espetxe-administrazioak erabakita. Espetxe-administrazioaren erabakia denean, haren zergatiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Iruñeko espetxera berehala ekar ditzan nafarrak diren edo Nafarroan erroturik dauden preso guztiak, zigorra beste espetxe batean betetzen ari direnak; betiere, interesdunek haien adostasuna adierazten badute.

3. Erabaki hau Barne Ministerioari eta Ministroen Kontseiluari igorriko zaie”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-

harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa.

2. Berma dezan eremu judizialean lan egiten duten profesional guztiak genero indarkeriari buruzko prestakuntza eraginkorra eta espezializatua daukatela, Diputatuen Kongresuak 2017ko irailean onetsitako Genero Indarkeriaren aurkako Itunean jasotzen den gisan.

3. Babes dezan Diputatuen Kongresuko talde sozialistak eginiko proposamena, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzekoa”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza-proiektuaren diseinua hobetzeko proposamenak egin ditzan.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako bileran, ezetsi egin du Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza-proiektuaren diseinua hobetzeko proposamenak egin ditzan Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa, zeina Javier García

Jiménez jaunak aurkeztu baitzuen eta 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da hizkuntza eredu gisa ezar ditzan, berme juridiko eta hezkuntza-berme guztiekin, atzerriko hizkuntzetako ikasketa-programak –bereziki, ingelesezkoa (PAI)–.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako bileran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da hizkuntza eredu gisa ezar ditzan, berme juridiko eta hezkuntza-berme guztiekin, atzerriko hizkuntzetako ikasketa-programak –bereziki, ingelesez-

koa (PAI)–. Mozioa Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztuzuen eta 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza